



IMANOL

ELIAS

Mallo Oiarzabal

ELIAS



## Mailo Oiarzabal

*Urrestildarra da (1971) eta bertan bizi da. Kazetaritza ikasketak eginak ditu, eta 'Euskaldunon Egunkaria'-n hasi zen lanean jarduera horretan. 1994tik, berriz, 'El Diario Vasco'-n dabil lanean, Azpeitiko karta egiten.*

*Liburu honez gain, beste bat dauka egina: 'Azpeitiko Jaiak', beste batzuekin batera (2000).*





# IMANOL ELIAS

Herria maitatzeko  
era asko daudelako

Mailo Oiarzabal

uztarria



AZPEITIKO KULTUR KOORDINADORA

© Egilea: Mailo Oiarzabal Odriozola

© Uztarría Kultur Koordinadora

2002ko iraila

Azala: Iñaki Uranga Rekejo

I.S.B.N.: 84-607-5616-5

Lege gordailua: SS-1033/02

Inprimaketa: Antza S.A.L. • Lasarte-Oria

---

Uztarría: Julian Elorza 4, 2.a ezkerre. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa: 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 - 15 03 58

Fax zenbakia: 943 - 15 03 58

Posta elektronikoa: [uztarría@topagunea.com](mailto:uztarría@topagunea.com)

# 1. *Gerraren urtean jaiotakoa*

Imanol Elias 1936. urteko Urte Berri egunean jaio zen. Azpeitian (Gipuzkoa), Eliz kalean sortu zen mundura, sei hilabete beranduago piztu zen Espainiako Gerra Zibil latzaren bezperatan. Frantziako Elias Unanue *Pako Barbero* eta Manuela Josefa Odriozola Letamendia gurasoen hirugarren semea zen Imanol, baina bizirik jaio zen bigarrena. Era berean, Imanolek ez zuen izan Juan anaia zaharragoa ezagutzeko beta handirik, Imanolek berak lehenengo urtea bete eta berehala hil baitzen Juan, bost urte egin aurretik.

Aipatutako gerra piztu zenean, Pako Elias frontera joan zen borrokara, altxamendu *nazionala*-ren kontra zeuden euskal gudari abertzaleekin batera. Gerra Zibilari *anaia arteko guda* esan izan zaio askotan, eta Imanol Eliasen aitaren familian gertatu-

takoa kontuan hartuz gero, benetako zentzua hartzen dute hitz horiek: Imanolen aita eta Joxe Mari *Konpare* anaia abertzaleen aldean borrokatu ziren bitartean, Saturnino eta Manuel *Pottin*, beste bi anaiak, erreketekin batera aritu ziren. Pottin ez zen etxera itzuli, 1937ko ekainaren 3an hil egin baitzen, Lemoako (Bizkaia) frontean.

Azpeitian kalean jaio arren, Imanol Eliasen lehen oroitzapenak Azpeitian Loiolako bailaran Oñatzen magalean dagoen Telleria baserriari lotutakoak dira. Senarra gerrara joanda, beste askoren antzera egoera latzean aurkitu zen Manuela Josefa Odriozola, bi seme txikirekin eta sostengurik gabe. Juan eta Imanol, Telleria bere baserrira eramatea erabaki zuen orduan, han zaindu zituzten, bera Eliz Kaleko Takolo-Txiki tabernan neskame lanetan has-teko. Tellerianean Juan Frantzisko eta Josefa Inazia aiton-amonekin eta Joxe eta Pantxike osaba-izebe-kin bizi izan ziren bi anaiatxoak. Juan bertan hil zen, amaren baserrian, 1937ko otsailaren 19an.

Imanol, besoetako haur bat besterik ez zela, bere bizitzako lehen urteak erabat baldintzatu zituzten gertaerak garatu ziren, beraz, inguruan. Garai zailtan jaioa zen, eta aurrerago ere nabarmendu behar izan zituen gerrak eta honek utzitako ondorio-ek jende gehienaren bizimodura ekarritako ajeak.

## ***Haur baten oroitzapenak***

Telleria baserrian aiton-amonekin eta osaba-izebe-kin eman zituen lehen urte haietako oroitzapenak gazi-gozo eta bakanduta datorzkio burura Imanoli.





Telleria baserria, Azpeitiko Loiola bailaran. Imanolien amaren etxea, eta bere haurtzaroko lehen oroitzapenen tokia. / **AZPEITIKO BASERRIAK LIBURUA**

Amaren igandeetako bisitaldiak ditu gozoenen artean. “Gure amak, aste osoan zehar ematerik ez zuen maitasuna agertu nahi izaten zidan egun horietan, baina, zoritxarrez, une labur batzuk besterik ezin ditut gogoratu”, dio berak.

Aita ere bazuen, bai, Imanolek, baina ez zuen oraindik ezagutzen. Pako Eliasek berak ere ezin jakin gerrara joan zenean etxean utzi zuen zazpi hilabeteko umea zer itxura hartzen joan zen. 1939an, guda amaitu zenean, galtzaileen arteko beste askok bezala kartzela ezagutu behar izan zuen Pako Barberok. Bilbon kartzelaratu zuten, heriotza zigorrarekin. Eta Bilboraino joan zen behin Manuela Josefa egoera latz horretan, Imanol txikia berekin hartuta, senarra ikusteko asmoarekin. Baina

bere asmoa bete gabe itzuli behar izan zuen Azpeitira. Beste kartzela batzuk ere ezagutu zituen Imanolen aitak, bueltarik gabeko zigorra noiz beteko. Zigorra bertan behera utzi eta etxera itzuli ere itzuli zen, baina denbora gutxirako, ia berehala berriro kartzelaratua izan baitzen, herritar baten salaketa bat medio.

Azkenean iritsi zen, ordea, semeak aita lehen aldiz ikusteko eguna. Imanolek ondo gogoratzen du Tellerianean aita ezagutu zueneko hura, gertaerak ezustean harrapatu zuelako, *Azpeitia. Gaztaroko kronikak* bere liburuan kontatzen duen bezala: “Gris erako kolorea zuen txakur handi bat arduratzen zen igandero bere [amaren] etorreraren albistea ematen. Nire ama hurbilean zela adieraziz bezala zaunka batzuk egin ondoren, bidean behera abiatzen zen korrika bere buztana astinduz, topo egitean ohiko agurra eskaini eta etxeraino laguntzen ziola ondoren. Denbora igaro zen eta egun batez, txakur handi hark albistea eman zuen nire ama hurbilean zela adieraziz. Ez zen igandea eta ezinezkoa zen... Nire amonak bere besoetan hartu ninduen eta etxeratzen zen bidearen azken zatia ikusten zen sukaldeko leihora altxatu ninduen. Han agertu zen bera, baina oraingoan, gizonezko bat zen berarekin. Ulertu ez nion zerbait esan zidan amonak belarrira, baina benetan aurpegi alaia zuela konturatu nintzen. Atarira irtetzearekin batera eta begietatik malkoak jaulkitzen zitzaizkiola, amonak esan zidan, nire ama zerbait atzean utzirik gureganatzen zen gizonezko hura seinalatuz: ‘Zure aita dator...’. Hitz horietako bakarren bat, amari entzuna nion aurrez. Ezaguna



Pako Elias Unanue eta Manuela Josefa Odriozola Letamendia, Imanolen gurasoak. / IMANOL ELIAS

egin zitzaidan... Amonari begiratu nion, hitz bera behin eta berriz errepikatzen zuenez, aita... Unean sentitu nuen nire amaren eskuak baino indartsuagoek heltzen zidatela eta amonarenetatik askatzen

nindutela. Ezagutzen ez nuen gizonezko hark, bere eskuetan ninduen eta bularraren kontra harturik bere aurpegia nirearekin bat eginik zuen. Bere malakoak, gozoki irristatu ziren nire masailean. Beldurtu egin nintzen nonbait eta ezagutzen nituen esku gozoagoek askatu ninduten, seguraski benetan maite ninduen gizonezko haren eskuetatik...”.

## ***Baserritik kalera, kaletik baserrira***

Senar eta aitaren itzulerarekin, Elias Odriozola sendia gerra aurreko egunerokotasuna berreskuratzen saiatu zen. Telleria baserria utzita, Imanol Eliz kaleko bere jaiotetxera jaitsi zen, amarekin eta aitarekin. Aldaketa nabarmena izan zen umearantzat, baserriko bizimoduak eta honen inguruneak zerikusi txikia zuten-eta ordu arte Imanolek ia ezagutzen ez zuen kaleko etxearekin eta inguruarekin.

Kaleko etxean gurasoekin batera bizitzen ez zen, ordea, luzaroan egon Imanol. Osasun arazoak izaten zituen umeak eta, sendagileen gomendioak jarraituz, gurasoek semea berriro Tellerianera eta hango aire garbiagora bueltatzea erabaki zuten, kaletik baserrira. Aiton-amonen etxera itzulita, amaren beste anaia ezagutu zuen Imanolek: Antonio *Telleye*. Pako Eliasek bezala, Antoniok ere gudariekin batera hartu zuen parte Gerra Zibilean, eta etxean bueltan zen Imanol bigarrenagoz Tellerianean bizitzen jarri zenean. Zortzi urte bete arte bizi izan zen Imanol amaren familiaren etxean. Bertan pasatu zituen lehen urteetan bezala, igandeak egun bereziak izan ziren beretzat; izan ere, lehen ama joaten



Ezkerreko argazkian, Eliz kaleko antzinako irudia. Ezkerretik eskuinera agertzen den hirugarren etxean jaio zen Imanol. Eskuinean, Imanol bera lehen jaunartzeko argazkian. / IMANOL ELIAS

zitzaion bezala, orain aita eta ama, biak izaten zituena bisitari.

Lehendabiziko eskola egunak ere Tellerianean bizi zela ezagutu zituen. Errementeri baserria, Loiolako Santutegitik oso gertu, izan zen Imanol Eliasek ezagutu zuen aurreneko eskola. Errementeriko Mariak, inguruetako haurrak irakurtzen, idazten eta zenbatzen ikasteko biltzen ziren eskola txikia zuzentzen zuen han. Imanolek ez ditu gogoan berekin batera han ibilitako lagunak, baina inoiz ez zaio ahaztu baserritik bide luzea egin ondoren Errementeriko aurreneko eskola egunean gertatu zitzaiona. Hau da, Maria maistrak, eskolakoak ez ezik, etxeko lanak ere zuzendu egin behar, eta jolas denboraren

ondoren tarte luze samarra egin zuen nonbait gelara itzuli aurretik. Umeak ume izan jakina, eta irakaslea falta zen tartean, festa eta triska nagusi gela barruan. Iskanbilaren erdian, maistrak mahai ondolan izaten zuen zumezko besaulkian eseri zen Imanol. Baina eserlekuaren hanka batek huts egin, eta lurrera... Maria gelara sartu zen une berean. "Aurpegia erabat aldatuak zuen Maria onak, eta eskua luzatuz, ikasgelako atea seinatuz, etxera joateko agindu zidan. Amaiturik zen nire lehen eskola eguna...", dio Imanolek. Mariaren haserreak ez zuen luzaro iraun, eta hurrengo egunetik aurrera Errementerira joan-etorriak ohikoak bihurtu zitzaizkion Imanoli.

Berak sei urte zituela, Elias Odriozola sendiak berri pozgarria ezagutu zuen: 1942ko irailaren 13an, Eliz kaleko etxe hartan, Maritxo jaio zen. Igandetan gurasoek Tellerianera egiten zizkioten bisitaldi haie-tan ezagutu zuen Imanolek arreba txikia. Poztasunak ez zuen, ordea, luzaro iraun Imanolen etxean, Maritxo jaio eta bi urtera ama Maria Josefa Odriozola hil egin zelako; 1944ko azaroaren 12an, hain zuzen. Imanolek zortzi urte zituen orduan eta kolpe latz horrek erabat aldatu zituen bere eta bere familiaren bizimoduak.

## ***Urte gogorak***

Ama hiltzean, Telleria baserria utzi eta aitarekin eta arreba txikiarekin batera beste amonaren etxean jarri zen bizitzen Imanol: Teresa Unanue *Barbero*-renean. Hain justu, berriro Eliz kalera bueltan, baina



Ezkerreko argazkian, Teresa 'Barbero', Imanolen aitaren aldeko amona. Eskuinean, amonaren etxeke karrera, Eliz kaletik Erdi kalera pasabidea duena. / IMANOL ELIAS - IÑAKI URANGA

oraingoan ez bere gurasoek zuten etxera. Imanolen amona Eliz kaletik Erdi kalerako pasabide gisa erabiltzen den etxean bizi zen. “*Malkortxo*, Luis *Uniyo*, *Txantxiko*, Belokitarrek, Lasa sendia eta Telesfora Agirre” —gero bere izeba izan zena azkena— gogoratzen ditu Imanolek bertako auzokideen artean.

*Barbero* ezizena, bere senar zenaren ofizioetako batetik zetorkion Teresari, bere semeari bezala; Joxe Pablo Elias —1920an hila— abarketaria ere izan baitzen. Joxe Mari eta Satur, Pako aitaren bi anaiak ere, etxe bertan bizi ziren. Imanolek dioten bezala, “gerrate ondorengo urteak ziren eta bizitza benetan zail egiten zen, batez ere nire aita bezalako langile batentzat, orduak eta orduak lanean egiten

bazituen ere soldata txikia lortzen baitzuen behar guztiei aurre egiteko". Tapizaritza zen Pako Eliasen ogibidea, eta oso trebea omen zen, gainera, be-rean.

Aitarenak ez ezik, Teresa amonaren ahalegi-nak ere ez ziren makalak izan. Ama falta zuten bi biloba txiki zituen etxean eta, baldintzak egokienak izan ez arren, handik edo hemendik haiek aurrera atera behar. Teresak Azpeitian Soreasuko Sebastian Deunaren ondoan, Santiago kalearen barrene-an zegoen garbitokian ordu asko eman zituen lane-an besteen arropak garbitzen, herriko beste hainbat emakumek bezala, bere sosak ateratzeko. Gipuz-koako Foru Aldundiko buru izandako Julian Elor-zaren etxekoentzako zenbait lan ere egiten omen zituen. Lan horiekin, eta Madalena auzo inguruan lantzen zuen baratzak ematen zizkion fruituekin, berea jartzen zuen Teresa amonak etxekoak aurre-ra ateratzeko. Guztia eta gehiago behar zen, ordea, gerra osteko urte ilun haietan. Imanol eta Maritxo txikiegiak ziren beraien familiak bizi zituen une larriez behar bezala jabetzeko, baina gerora jakin zuten Errukietxera sartzetik ez zirela urruti ibili.

Urtebete pasatxo bizi izan zen Pako Elias seme-alabekin bere amaren etxean. 1946ko otsaila-ren 7an Juliana Olazabal Arangurenekin ezkondu zen; Azpeitiko Oiartzabal baserrikoa zen Juliana. Horrenbestez, aitaren eta amaren aldekoekin batera familia berria izan zuten Imanolek eta Maritxo arre-bak, eta baita bizileku aldaketa berri bat ere. Amona Teresa bizi zen tokitik urrutira joan gabe, Erdi kaleko etxebizitza batean jarri zen bizitzen familia berria.



1947an Arantxa Elias Olazabal jaio zen. Bi urte beranduago iritsi ziren Begoña eta Milagros bikiak. Eta 1951n anaia gazteena, Joxe Inazio.

## ***Ilararen azkenetakoa, baina komiki zalea***

Imanolek hamar urte egin berriak zituen aita bigarren aldiz ezkondu zenean, eta Maritxo lau betetze-ar zen. Anai-arreba zaharrenen arteko harremana oso estua bilakatu zen urteen poderioz, baina familiaren gorabeherak eta Imanolen osasuna medio, haurtzaroan ez zuten elkarrekin egoteko aukera handirik izan, beraien arteko adin alde a sei urtetik gorakoa zela ahaztu gabe. “Imanol beti nire defendatzailea izan da. Elkar asko defenditzen ginen, baina hura zaharragoa izanda, haren babesa beti edukitzen nuen nik”, esaten du Maritxo Eliasek anaia zaharragoari buruz urte haietatik gordetzen dituen oroitzapen urriei buruz galdetzean. “Erdi kalean bizi ginela, etxean katu bat genuela ere gogoan daukat. Imanolek doma-doma eginda zeukan katu. Hankatatik gora sorbaldaraino igotzen zitzaion, zirkoan baleude bezala. Eta iturritik edaten ere erakutsi zion; ur gutxirekin jartzen zion iturria, bera ondolan jartzen zuen, eta katuak nola edan bertatik!”.

Haurtzaroko azken urteak etxean eta aitari laneko gauzatan laguntzen, ahal zuenean besteak beste Rodolfo Rabella, Andoni Albizuri *Katxo* eta Joxe Mari Zudupe *Montte* lagunekin batera abenturatan, eta Maristek herriko plazan zuten ikastetxearen artean pasatu zituen Imanol Eliasek. Ikasketa garai hartaz ez dauka aparteko oroitzapen onik.

Bere hitzetan, gelan “ilararen azkenetakoa” izaten zen gehienetan, hileru, irakasleak notak ematen zituenean. Ilararen atzealdean ez ziren justu maila oneneko ikasleak biltzen. Imanolek ez du uste, ordea, orduan ikasketatan pattal ibiltzearen arrazoia ez saiatzea izan zenik, berak eta bere ingurukoek gaztelera behar bezala ez menperatzea baizik. “Nire maila agertu nahi izaten nuen ikasgai bakarra marrazkigintza zen. Ez nuen irakaslearen xehetasunak entzun eta ulertu beharrik horretarako. Ematen zitzaigun marrazki baten kopia egitea zen gure langintza eta horretan eginahal guztia jartzen nuen”.

Begoña eta Milagros ahizpa bikiak jaio berritan Oiartzabal baserrian denboraldi bat pasatu zuten Imanol Eliasek eta bere familiak, Juliana Olazabal bigarren amaren etxearekin. Garai hartan, batean ala bestean lanak eta enkarguak egiten denbora asko joaten zitzaion arren, erdi ezkutuka bazen ere topatzen zituen Imanolek bere afizioetarako tartekak. Eta afizio horien artean komikiak zeuden. “Lehen aldiz komiki bat nire eskuetara iritsi zen unetik, uste dut berari loturik gelditu nintzela”. *El Pequeño Luchador, Roberto Alcazar y Pedrín, El Hombre de Piedra, Hazañas Bélicas, El Guerrero del Antifaz, Pulgarcito, TBO...* 1940ko hamarkadaren bukaerako urte haietan hainbat umeren imaginazioa sutan jartzen zuten argitalpenak goitik behera irakurtzen zituen Imanolek. “Era batera edo bestera lortzen nuen dirua, horrelako komikiak erosten gastatzen nuen”. Baina beti ezkutuan, hori bai, aita Pakorenztzat komikiak alferrikako gastuak zirelako. “Izaraz, mantaz eta arropaz betetako armairuak, ohe kol-



Joxe Inazio eta Imanol Elias anaiak, Erdi kaleko etxean ateratako argazki batean. / IMANOL ELIAS

txoiak heltzeko izaten ziren egurrezko langak, ganbara... egokiak ziren komikiak ezkutatzeko, baina egokiena Oiartzabal baserrian egin genuen denboraldian prestatu nuen dudarik gabe”, dio Imanolek. “Horma aproposa” aurkitu zuen Barrenetxe eta Oiartzabal baserriak batzen zituen bidearen ertzean, “sasiek eta belarrek nolabait estaltzen zutela”, eta horixe aprobe txatu zuen ezkutuan gelditzen zen zulo bat egin eta komiki preziatuak bertan gordetzeko. Ale bat irakurri nahi zuenean, disimuluan eta inork ikusi gabe bide bazterreko hormako ezkutalekura inguratzen zen, eta irakurri ostean gauza bera egiten zuen komikia bere tokira bueltatzeko.

## ***Bilbo, bizitza berri baten hasiera***

1950ean bere bizitzan garrantzia handia izan duen aldaketa berri bat ezagutu zuen Imanol Eliasek. Oiartzabalgo familiaren eta hauen tartekoak ziren Errekartekoen bidez, jesuiten eskutik Bilboko Deustuko Salesiarren kolegioan *Maestría Industrial* ikasketak egiteko aukera paregabea sortu zitzaion orduan hamalau urte zituen gazteari. Paregabea, bai. Izan ere, Imanolek eta bere familiak ordu arte bizi izandako estuasunetatik Bilbora ikasketak egitera joatea izugarrizko jauzia zen. “Kolegiora joan nintzenean aldatu zitzaidan niri bizitza”, aitortzen du Imanolek. “Han hasi nintzen pixka bat idazten, eta lehendabiziko antzerkiak ere bertan egin nituen”.

Esan bezala, jesuitek bilatu zioten lekutxoia Deustuko Salesiarretan. Haien kontaktoa Felix Valdes enpresa gizon bilbotarra zen, eta azken honi “zor” dizkio benetan Imanolek Bilbon bizitakoa eta ikasitakoa, Valdes jaunak ordaindu baitzuen Bilboko bere egonaldi osoa. “Gizon haren konfesorea jesuita zen, Aita Mauri, eta hortik etorri zitzaidan aukera. Nire bigarren amaren familiak Errekarteko sendiarekin eta Garate Anaiarekin zuen harremanaren bitartez iritsi ziren harengana. Nik neuk Valdes jaunarekin ez nuen zuzeneko harreman handirik izan, ezin dut hartaz gehiegi esan; Madrilen eta Mexikon negozioak zituela uste dut eta Bilboko Gran Vía kalean bizi zen”. Bilbon bost urteko ikasketak bete zituen Imanolek, eta bukaeran jakin zuen bereak ez ezik, Salesiarretako ia beste berrogei ikasleren egonaldiaz eta gastuez ere Felix Valdes arduratzen zela.



Ezkerrean, gainontzekoen kontraeran bezala agertzen dena da Imanol, Bilboko ikastetxeko patioan. / IMANOL ELIAS



Imanolek Bilboko Salesiarretan futbol taldeetan parte hartzen zuen. Hemen zutik dauden artean ezkerretik laugarrena da bera. / IMANOL ELIAS

“Niri alpargatak eta dena ordaintzen zizkidan, hori da egia. Gure aitak bazuen adurra urtero-urtero, urte hasieran edo, gizonari oparixoren bat egiteko. Biok joaten ginen haren etxera eta, hura ez bazegoen ere, usokume pare bat edo hari gustatzen zitzaion

zerbait ematen genion. Gizon hura bolkatu egin zen nirekin. Bestela nik ez nuen ez ikasketa, ez ezer egingo”. Ordu arte ezagutu zuen bizimodutik oso bestelako esperientziak ezagutzeko parada eskaini zion Imanoli Bilbok. Hamalau urteko azpeitiar haren-tzat “Bilbora joatea zeharo urruti joatea zen, orduan gehienez Zarautzeraino (Gipuzkoa) iritsiko ginen eta... Esate baterako, aldaketa handia zen urtarrilean joan eta ekaina bitartean Bilbon egotea”.

Aita Beobide salesiar azpeitiarrari ere badu zer eskertua Imanol Eliasek. Beobide —musikaria ere bazen— Bilboko ikastetxean zegoen, eta laguntasun handia eskaini zion Imanoli erlijjioko ikasgaia aurrera eramaterakoan. “Hemendik doktrina euskaraz ikasita joan nintzen, eta han, berriz, doktrina edo erlijjioa gaztelera ematen genuen. Beobidek lasai ibiltzeko esan zidan, berak galderak euskaraz egingo zizkidala eta nik hilerro haiei erantzuteko, eta horrela ibiltzen ginen. Eta ez hori bakarrik, nik erantzunak ematen nizkionean, gaizki zeudenak-eta berak zuzentzen zizkidan”. Azpeitiar gehiago ere baziren Imanol Eliasekin batera Deustuko Salesia-rretan: Felix Azkue, Javier Epelde, eta Jaime Aristi eta Ahiertza urrestildarrak.

Kolegioko oroitzapen bitxienean artean gorde-tzen ditu Imanolek hango patio zabalean jokatzeko zituzten futbol partida *bereziak*. Bilboko egonalditik gordetzen dituen argazkiak ere futbolarekin lotuta-koak dira guztiak. “Ilandetan-eta denak patioan egoten ginen. Baina salesiarrek ez zuten nahi izaten inor geldirik edo egonean ikusterik; ez zuten uzten. Derrigorrez zerbaitean aritu beharra zegoen, eta



Juventus izena jarri zioten talde honek, eskolako txapelketa irabazi zuen 1951-1952 ikasturtean. Imanol Elias goiko ilaran ezkerretik hirugarrena da. / IMANOL ELIAS

horrela elkartzen ginen batzutan bostehun lagun inguru, guztiak batera futboleko jokatzen. Ez dakit zenbat partida nahasten genituen, bakoitza bere baloiarekin eta bi hamaikako partida bakoitzean. Baina, jakina, ez zen batere erraza izaten han mol-datzea. Ate bakoitzean zazpi atezain biltzen ziren, bakoitza bere partidako baloiari begira, eta hor etor-tzen zitzaien beste partida bateko baloikada. Hura eromena izaten zen. Eta, noski, inork ez zuen nahi izaten atezain postuan jokatzea”.

Imanolek hemeretzi urte zituela bukatu zituen ikasketak Bilbon, eta Azpeitira itzuli zen, lanerako prest. *Maestría Industrial*-en ikasitako guztiaz gain beste ezagutza batzuk ere ekarri zituen handik. Horien artean, antzerkiaren harra. ■





## 2. *Institutu Laborala eta Oargi*

**B**ilbotik atzera Azpeitira; horixe egin zuen Imanol Eliasek 1955eko ekainean, *Maestría Industrial* barruko mekanika ikasketak bukatu zituelako, eta berriro Azpeitira eta bertako bizimodura itzultzea tokatu zitzaion. Eskolako azkeneko bi ikasturteetan, udako hilabeteetan, Azkoitian Juaristi lantegian praktikak eginez aritu zen, baina hortik aurrera tokatzen zitzaion lanean benetan hastea. Garai hartan ikasketak bukatutakoan berehala lanean hasteko arazo handirik ez zen izaten, eta ikasketak amaitu ondorengo aurreneko lanpostua Felix Urkizuren tailerrean aurkitu zuen Imanolek. Tailer edo enpresa txiki ugari zegoen Azpeitian, eta haietako bat zen Urkizurena; mekanika tailerra zen eta errebolber tor-noak egiten ziren bertan.

Urkizunean ez zuen, ordea, denbora luzea

egin, hilabete batzuk besterik ez. 1955ean bertan, urte amaiera aldera, Azpeitian Institutu Laborala sortu zen eta Imanol Eliasek irakasle postua esku-ratu zuen, *Ciclo de Formación Manual* deiturikoaren buru bezala. “Neu nintzen irakaslerik gazteena —gogoratzen du Imanolek—, hemeretzi urterekin, ikasketak bukatu eta ia segituan sartu bainintzen. Institutua martxan jartzera zihoazela eta, *Jefe de Ciclo de Formación Manual*-erako norbait behar zuten, eta aukera polita iruditu eta aurkeztea erabaki nuen, mekanika arloan nekienaz baliatuz”. Pablo Valero, Jose María Ribas, Josefina Mendieta, María Teresa España, Jose Aizpuru, Juan Jose Etxaide eta Jaime Gomez izan zituen lankide Imanolek Institutu Laboralaren aurreneko urrats haietan.

Institutu Laboralaren lehen egoitza Azpeitian Sindikatu Zaharra bezala ezagutzen den eraikinean egon zen, Plaza Txikian, garai batean herriko udal-txea izan zen leku berean. Egoitza hura behin-behinekua izan zen, Institutuaren behin betiko egoitza izango zen Perdillegiko eraikinaren lanak amaitu artekoa, hain zuzen. “Hasierakoan, Sindikatu Zaharrean, lehen solairuan eskoletarako gelak zeuden, eta bigarren solairuan, berriz, marrazkirako gela handi bat eta tailerrak. Orain zezenketetarako sarre-rak saltzen diren horretan, berriz, arotz-tailerra zegoen. Baina gauza handirik gabe, ez zegoen-eta makina handirik sartzeko tokirik”, dio Imanolek.

Institutuko irakasle lanak bere benetako zaletasuna zen antzerkiaren inguruan zerbait egiteko aukera eman zion Imanoli. Ikasleekin egin zuen lehen lana *El catedrático de anatomía* izenekoa izan



Institutuko antzerki talde bat. Ezkerretik eskuinera zutik agetzen dira Alberto Agirrezabal, Miguel Angel Iriondo, Inazio Javier Ansoalde, Eugenio Telleria, Jose Luis Borao (irakaslea), Joxe Mari Bereziartua, Imanol Elias, Javier Furundarena eta Joxe Luis Lopetegi; behean, Joxe Mari Azpiazu, Maxi Zubizarreta, Javier Arregi, Miguelito Sarralle, Juan Joxe Arrizabalaga, Jesus Mujika eta Joxe Mari Azpeitia. / **IMANOL ELIAS**

zen. Zelaitxo aretoan eman zuten antzezlanak Institutuko gazteek, Imanolen zuzendaritzapean. Besteak beste, Lorenzo Azkuek, Julian Alonsok, Javier Furundarenak, Abel Izagirrek, Inazio Arregik eta Fernando Beldarrainek hartu zuten parte emaldian. Lanak harrera ona izan zuela ikusita, beste maila bateko ikasleekin bigarren antzezlan bat prestatu zuten Institutukoek: LAOCA (*Libre Asociación de Obreros Cansados y Aburridos*). Hemen aktoreen zerrenda luzatu egin zen eta ondorengoak aritu ziren: Alberto Agirrezabal, Miguel Angel Iriondo, Inazio Javier Olea, Inazio Javier Ansoalde, Eugenio Telleria, Joxe Mari Bereziartua, Javier Furundarena, Joxe Luis Lopetegi, Joxe Mari Azpiazu, Maximo Zubizarreta, Xabier Arregi, Miguel Angel Iriarte, Juan Joxe Zubizarreta, Joxe Mari Odriozola, Juan

Joxe Agirrezabalaga, Jesus Mujika eta Joxe Mari Azpeitia.

Institutuko ikasleak baino lehenago ere aurkitu zituen, ordea, herrian antzerkirako lagun aproposak Imanolek, eta hauen eskutik hasi zen gero urte luze-etan Azpeitian antzerkiari lotuta egin zuen bidea.

## ***Azpeitia, herri antzerkizalea***

Azpeitian ez zen antzerkirako zaletasunik falta; jendeak horrelako ikuskizunetarako nahikoa joera zuela esan daiteke. Orain Telefónicaren egoitza dagoen eraikinean, parrokitik gertu, Luistarren kongregazioak emanaldi ugari egiten zuen bere garaian, eta arrakastaz gainera. Funtzio egunetan sarri gainezka izaten zen antzoki txikia. Juanito Bikendi zen Luistarren emanaldietan aktore bezala parte hartzen zuenetako bat, eta oroitzapen onak gordetzen ditu. “Aita Gaztelumendirekin eta Agueda Perez Arregirekin ibiltzen ginen —dio Bikendik—. Agueda zen gure erakustailea, oso ona, eta pianoa ere berak jotzen zuen. Soldadutzatik bueltan sartu nintzen ni, eta dezenteko koadrila elkartu ginen”.

Luistarretan neskak eta mutilak ibiltzen zirela dio Bikendik, “baina aparte. Antzezlanean neskaren papera egon arren, mutil batek egin behar izaten zuen, ez zuten-eta neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen uzten. Arrimatzen ere ez zuten uzten orduan, egia esanda. Horrela ibiltzen ginen, eta gehienetan erdaraz. Euskaraz ere lan batzuk egin genituen, *Melitonaren bi senarrak, Aldiz aldi...*”.

1936ko Espainiako Gerra Zibilaren aurreko ur-

teetan, orduan Luminor zena eta gero Zelaitxo izango zen antzokian ere Iñaki Agirreren eskutik hiruzpalau antzezlan eskaini zituztela gogoan du Juanito Bikendik. Antzerkiak bazuen, beraz, bere tiradizoa Azpeitiko jendearengan, eta herrian baziren antzerki munduan lan egiteko ohitura zuten lagunak. Ezagunenen artean, Juanito Bikendi bera, Inazio Rezabal *Potxolo* eta Jacinto Arregi zeuden.

## **‘El Verdugo de Sevilla’**

Inguruan somatzen zen antzerki zaletasun horretaz baliatzea erabaki zuen nonbait Joxe Aizpuru *Jaka*-k 1955ean, Sierbetako lekaimeak diru aldetik estu zebiltzala-eta hauei laguntzeko zerbait egitea erabaki zenean. Herriko jendearekin antzerki emanaldi bat antolatzea pentsatu zuen Jakak, eta Deustun ikasketak amaitu berri zituen Imanol Elias izan zen proiekturako deitu zuenetako bat. Juanito Bikendi, Joxe Inazio Etxeberria *Antzi*, Jesus Agirre, Javier Larriba, Agustin Segurola *Xague*, Alberto Iturrioz *Kue*, Xabier Arregi *Pottor*, Javier Egaña, Joxe Luis Iriarte, Bixente Etxeberria eta Antton *Porru* ziren antzezlan aurrera ateratzeko Joxe Jakak elkartu zituen beste batzuk. Aukeratutakoan artean aurrez antzerkian aritutakoak ziren batzuk, baina inoiz horrelakorik egin gabeak gehienak. Jaka Lagun Onak Futbol Taldeko presidentea izan zen 1952tik 1955era, eta aktore berrien artean bazeuden talde horretako garaiko jokalaria ezagun batzuk ere; hala nola, Antzi eta Jesus Agirre.

Antzerki talde berezi horrek taularatu beharre-


ko lana *El Verdugo de Sevilla* zen, hori ere Joxe Jakak aukeratua, eta horrela hasi ziren entsegu saioekin. Juanito Bikendiren esanetan, “gustura joaten ginen entseatzera, joango ez ginen ba! Joxek beti piku mordoa eta ia zaragikada ardoa eramaten zizkigun, eta entsegua bukatutakoan bete-bete eginda joaten ginen etxera”.

Imanol Eliasek ere ondo gogoratzen ditu *El Verdugo de Sevilla* haren inguruan bizitakoak: “Deustun antzerki asko egiten nuen. Mundu hori bizi nuen, eta besteak ohera joaten zirenean saiatzen ginen han antzerkiak prestatzen. Azpeitira itzuli eta erdaraz antzerkia egiten zuen talde batekin topo egin nuen, eta haiekin hasi nintzen. *El Verdugo de Sevilla*-n ezagutu nituen Juanito Bikendi, Xague,... horrelako koadrila bat. Azpeitian zeuden aldrebesenak esango nuke nik, neu ere tartean nintzela. Ikastetxekoarekin alderatuta giroa desberdina zen”.

Sierbetako lekaimeen alde prestatutako *El Verdugo de Sevilla*-k oso harrera beroa jaso zuen Azpeitian. Zelaitxon egin zen estreinako emanaldia erabateko arrakasta izan zen. Jendea erruz antzokian, eta denak pozik: aktoreak, ikusleak, antolatzaileak eta lekaimeak. Lehendabiziko emanaldi haren atzetik beste bi etorri ziren, gainera: bata Azkoitian eta bestea Zestoan. Azkoitikoaren inguruan pasarte dibertigarri bat dakar gogora Imanolek. “Azkoitian *El Verdugo de Sevilla* eman genuenean, taula gainean lanean ari ginenak gehiago ginen ikusten zeudenak baino. Gogoan dut Xabier Arregi *Pottor*-ek nola esan zien ikusleei eskenatokitik: ‘Hi, zergatik ez zarete zuek hona etortzen?; eta gu hor jarriko gaituk’”.



Sierbetako lekaimeen alde 1955ean Azpeitian eqin zen 'El Verdugo de Sevilla' obran parte hartu zutenak. / IMANOL ELIAS



Ezkerreko argazkian, Imanol eta Abel Izagirre, Institutu garaiko antzezpen batean. Eskuinean, Imanol eta Luis Mari Galdos. / IMANOL ELIAS

## *Imanol eta Itziar*

Deustun Salesiarrekin ikasketak amaitu eta berehala ezagutu zuen Imanol Eliasek gero bere emaztea izango zen Itziar Oiarzabal Ezeiza. Itziarrek ez ditu

oso argi hasierako kontu haiek, baina bai Imanolek, lehen unetik iruditu baitzitzaion “lagun paregabea, bizitza berri bati heltzeko”.

Itziar —Azpeitiko Izarraitz azpiko Arantzeta baserriko Gregorioren eta Feliparen alaba— oso gazterik jaitsi zen kalera lanera. Egurtzanean egoten zen neskame, Enparan kalean. “Ume zain etorri nintzen ni, eskolara ez joateagatik. Ez nago seguru, baina hamabi edo hamahiru urte izango nituen kalera jaitsi nintzenean, oso gazterik. Urte batzuk egin nituen horrela, eta atzera baserrira itzuli nintzen, etxera, hamasei edo hamazazpi urterekin”. *Atxero*-nean josten ere ibili zen Itziar neskame egon zen urte haietan. Urtea ez du gogoratzen, baina bai Imanol beregana hurbildu zen lehen aldia. “Koadrilarekin etxera nindoan, Enparan kale aldera, eta bera atzetik etorri zitzaidan, etxera laguntzera. Gero, baserrira bueltatu nintzenean, haraino laguntzen zidan. Lokatzetan ibili beharko zuen, orduan biderik ez zegoen eta!”, dio Itziarrek.

“Behin neskarekin hasi zenean, egia esan, ez nuen ia ikusi ere egiten. Harekin pasatzen zuen denbora guztia”, dio Maritxo Eliasek. Ordurako beste etxebizitza aldaketa bat ezagutu zuen Elias sendiak; Erdi kaletik Aranara joan ziren bizitzera, Azpeitian *Zentenarioko etxeak* bezala ezagutzen direnetako etxebizitza batera. Han egunero prestatzen zion Maritxok afaria Institututik bueltan etortzen zen anaiari. Jan kontuetan Imanol “beti delikatu samarra” izan dela dio Maritxok. “Adibidez, garai hartan zaldi haragia jaten genuen; jende askok erosten zuen. Imanol normalean nahiko berandu etortzen





zen, askotan Institututik irten eta Itziarrekin egon ondoren, eta ni egoten nintzen bere zain, afaria emateko. Iristen zenean, berehala antzematen zion haragiari. Platera hartzen zuen, begiratu eta 'oh, zaldi haragia!'. Saletxeneko Bixentaren soroa genuen aurrean, eta haragia hartu eta hara botatzen zuen”.

### **“Zer degu O.A.R.G.U.I?”**

*Zer degu O.A.R.G.U.I?*; izenburu horixe jarri zion Imanol Eliasek *Olatz* aldizkarira igorritako bere aurreneko artikuluari, 1957an. *Gaiztoa* ezizenarekin sinatu zuen Imanolek idatzia, eta aurrerantzean ere

goitzen bera erabili zuen hainbat aldiz, *Olatz*-en eta baita beste zenbait argitalpenetan ere, *Zeruko Argia*-n bezala. Azken aldizkari horrekin *Gaiztoa* goitizena zela-eta bitxikeria bat ere gertatu zitzaion urte batzuk geroago. “Halako bilera edo ospakizun bat antolatu zuten *Zeruko Argia*-ren urteurren baten inguruan, eta urteetan aldizkarian kolaboratu zuten guztiak elkartzea pentsatu zuten, baina niri ez zidaten deitu. Artxiboetan gordeta zeukaten *Gaiztoa* bat bazela, baina ez zekiten *Gaiztoa* ni nintzenik”.

Azpeitiko parrokiak argitaratzen zuen aldizkari-*txoa* zen *Olatz*, eta gehienbat elizarekin eta honen ekimenekin lotutako gaiak jorratzen zituen. Eta elizarekin —garai hartako Acción Católicarekin hain zuzen— estuki lotuta jaio zen Azpeitian O.A.R.G.U.I (*Organización Artística Recreativa Guipuzcoa*), 1956. urtean. Ramon Etxeberria izan zen lehenengo presidentea eta Imanol Elias, berriz, idazkaria; “idazten nekielako edo. Prestatzeko, bilera batzuk egin genituen, Donostiara joaten ginen Ramon eta biok, eta horrela hasi ginen”, dio berak.

Oargi, esan bezala, Acción Católicaren barruko atal bat zen. Ramon Etxeberriak azaltzen duen bezala, orduan Acción Católican zeuden J.O.C (*Juventud Obrera Católica*), J.I.C (*Juventud Independiente Católica*) eta Oargi. “J.O.C.en tailerretako langileak zirenak elkartzen ziren. J.I.C.en, berriz, banketxeetan lan egiten zutenak, ofizinizak eta horrelakoak. Eta gero, kiroletarako, arterako edota kulturarako Oargi zegoen. Denak Acción Católica-ren menpe zeudenez, erretorea zen guztien buru egiten zuena. Gero talde bakoitzak bere apaiz kon-



Imanolen lagun koadrila. Zutik, ezkerretik hasita: Joxe Mari Unanue, Ramon Etxeberria, Inazio Urrestilla, Imanol bera, Mikel Larrañaga, Pepe Lizaso, Joxe Mari Zelaia, Pello Iriarte eta Tomas Gereta. Behean: Rodolfo Rabella, Iñaki Rezabal, Nikolas Arrieta, 'Pedrotxo', Cruz Mari Joaristi, Andoni Albizuri eta Joxe Mari Zudupe. / IMANOL ELIAS

tseilaria zeukan. Hemen J.O.C.en don Cecilio Ara-baolaza ibili zen lehenengo, J.I.C.en lehendabizi don Francisco Epelde eta gero don Jose Maria Eguren izan genituen, eta Oargin hasiera batean don Nicolas Apaolaza eta ondoren Eguren”, dio Ramon Etxeberriak.

Bere izenarengatik pentsa daitekeen moduan, urte haietan Oargiren taldeak Gipuzkoa osoan zehar barreiatuta zeuden. Gehienak denborak aurrera egin eta garai berriak etorri ahala desagertzen joan ziren, baina Tolosakoa (Gipuzkoa), esate baterako, gaur egun oraindik martxan dago, bertako parrokiaren inguruan egituratuta.

Presidente izan zen garai hartan, gainontzeko herrietako ordezkariekin egiten zituen bileratan kon-turatu zen Ramon Etxeberria herri gehienetan Oar-

giko taldeek mendizaletasunaren bidetik jotzen zutela. “Donostian elkartzen ginenean, guztiek mendiko kontuak ekartzen zituzten. Azpeitian, berriz, aurretik bazegoen Lagun Onak Mendi Bazkuna, eta horkoekin ondo konpontzen ginen eta ez genuen nahi izan mendira zuzendutako bigarren elkarte bat eraterik, alferrikako lehia ez sortzeko. Guk martxa erregulatu batzuk baino ez genituen antolatzen, eta gainontzean kultur eta festa kontuez arduratzen ginen batik bat”.

## ***Gauzak egiteko prest zegoen makina***

Kultura aldetik ia gauza denak egiteko zeuden garai hartan, eta zeresanik ez euskal kulturarekin lotutakoak. Oargiren bidez hainbat ekimen jarri ziren martxan Azpeitian 1957tik aurrera, urte horretan hasi baitzen benetan lanean Oargi. Horrela, eta besteak beste, 1957ko Errege bezperan ospatu zen lehen-dabiziko kabalgata Azpeitian. Aurretik, bazkalondonan, pregoia egitea erabaki zuten. Pregoia presidentek, Ramon Etxeberriak, zaldi baten gainean zihola irakurri behar zuen, eta Imanol Elias idazkaria zaldia eramanez oinez joango zen bere aldamenean. Pregoirako arropa aproposak jantzi zituzten biek, antigoalako paje itxura eman nahian, galtzerdi edo *panty* luzeekin eta galtza motzekin. “Baina gertatzen zena zen —dio Imanolek— lehen ukituan apurtu zirela *panty*-ak, batez ere nik nituenak behintzat nahiko arlosteak agertzen zirela, jositako tokian hautsirik eta *patata* bat baino gehiago zituztela agerian. Ramonek zituenak berriagoak ziren segurue-



Oargiko Izarraitz Dantza Taldea, Loiolan. Zutik: Cruz Mari Juaristi, Inazio Urrestilla, Joxe Mari Zudupe, Pepe Lizaso, Mikel Larrañaga, Rodolfo Rabella, 'Pedrotxo', Pello Iriarte, Tomas Gereta, Imanol Elias, Antonio Arenas, Andoni Albizuri, Ramon Etxeberria eta Anttonio. Behean: Joxe Mari Unanue, Nicolas Arrieta, Iñaki Rezabal eta Joxe Mari Zelaia. / IMANOL ELIAS

nik, eta askoz ere hobeto ikusten ziren, nahiz eta edozein tokitara joateko erakoak ez izan. Gertatzen zen ez zegoela besterik eta abiatzeko unea iritsi zela, eta arratsalde hartan bete beharreko paperak aldatzea iruditu zitzaigun. Ramon joango zen oinez zaldia heldurik eta nik irakurriko nuen pregoia zaldi gaintetik". Ramon Etxeberriak gogoratzen duenez, berriz, "kabalgata Loiolako etorbidean dagoen Jesus eta Maria komentutik abiatu zen. Irten eta beherala ezbehar txiki bat ere izan genuen, etxafuegoen danbatekoekin zaldi bat guztiz aztoratu baitzen. Harezkeroko erabaki genuen etxafuego gehiago ez erabiltzea".

Umeen lehen danborrada ere 1957an ospatu zen, San Sebastian bezperan, Cecilio Arabaolaza eta Baltasar Iglesias donostiar apaizen ideiarri jarrai-

tuz, eta bi urte beranduago abiatu zen helduen danborradaren historia, hori ere Oargiko gazteen ekimenez. Saninazio jaietan, 1957an, ospatu zen lehenengo Umearen Eguna, eta festa haietan egin zen *Gran Fiesta Vasca* izenarekin herri kirolen erakustaldia eta Oargiren barruan eratutako Izarraitz Dantza Taldearen emanaldia batu zituen ekitaldia. Oargik hasiera haietan bultzatu eta martxan jarri zituen festa asko gaur egun tradizio dira Azpeitian, herriak bereganatu dituen seinale. Pedro Illarremendik *Azpeitiko Jaiak* liburuan dioen bezala, “Oargi beti gauzak egiteko prest zegoen makina” zen, eta mugimendu handia ekarri zuen Azpeitiko bizimodura.

Aipatutako dantza taldea eta antzerkia ziren Oargiren barruan lantzen ziren bi atal garrantzitsu. Dantza taldeak Izarraitz izena zuen berez, baina gero Loiola jarri zioten, Ramon Etxeberriaren esanetan “donostiarrek, pixka bat kanpora ateratzeko eta, Izarraitz izenik egokiena ez zela esan baitziguten”. Imanol Eliasen koadrilako lagun gehienak buru-belarri sartu ziren dantza taldean. Joxe Mari Zelaia, Nicolas Arrieta, Mikel Larrañaga, Joxe Mari Zudupe *Montte*, Cruz Mari Juaristi, Pepe Lizaso, Iñaki Rezabal, Joxe Mari Unanue eta Inazio Urrestilla dantzari moduan aritzen ziren, Madalena-ko Pedrotxo irakasle zutela. Andoni Albizuri *Katxo*-k eta Tomas Geretak txistua jotzen zuten, Rodolfo Rabella ere txistua jotzen ikasten ari zen, eta Ramon Etxeberria atabalaz arduratzen zen. Imanol ere saiatu zen dantzak ikasten eta bere lagunak mar txari eusten, baina... “Txarragoa, ezin! Ahalegindu

nintzen, baina ez nuen lortu inoiz taldekideekin batera pauso egoki bat ematea”, dio berak. Txistuarekin ere saiatu zen, baina alferrik.

Dantza eta musika kontuan zereginik ez zuela sinetsita, eta taldearen emanaldietan laguntzaile gisa aritu arren, bere benetako afizioari eutsi zion Imanolek, eta, hala, antzerki proiektuetan egin zituen lanik probetxugarrienak. Azpeitian antzerkiaren tradizioa eta zaletasuna aspalditik zetozen, baina Oargiren bidez aldaketa aipagarri bat gertatu zen. Izan ere, ordu arte herrian ematen ziren ia antzezlan guztiak gazteleraz baziren, Oargikoek euskararen aldeko apustua egin zuten antzerkian. Euskal Herrian toki batean baino gehiagotan ohitura da Santo Tomas egunez euskarazko antzerkia ematea, eta Azpeitian ere ohitura hori berreskuratu nahi izan zuen Oargik.


1957an eskaini zen Soreasun talde honek egindako lehen antzezlanak. *Damuba garaiz* izan zen lehen emanaldirako aukeratu zuten obra. Inazio Rezabal *Potxolo*, Jacinto Arregi eta Juanito Bikendi beteranoekin batera aktore gazteagoek ere hartu zuten parte antzezlanean, Imanol Eliasek berak tarteko, baita Maria Pilar Lapeirak ere. Jendeak harre-  
ra beroa egin zion Oargiren lehen antzerki saiakerari, eta Imanol Eliasek eta bere lagunek aurrera jarraitu zuten beren lanarekin. *Damuba garaiz*-en atzetik etorri ziren Toribio Altzagaren *Ramuntxo* eta Tene Mujikaren *Gogo oñazeak* eta *Itziartxo* eta *Osaba* bezalako antzezlanak. Azken bi horietan ez zuen parte hartu Imanolek, Afrikan zegoen-eta soldadutza egiten.

## **Donostiatik Ifniko gerrara**


Soldadutzarekin ez zuen zorte handirik izan Imanol Eliasek, hasiera batean baiezkoa iruditu arren. Espainia eta Maroko gerran zebiltzan 1958ko hartan Afrikan Ifniko (Maroko) lurraldean, eta soldadutzara joatea tokatzen zitzaien guztiek destinu huraxe saihestea zuten ia amets bakarra. Imanolek lehen aldian lortu zuen helburua, baina bigarreanean ez. “Soldadutza Donostian egitea egokitu zitzaidan zozketa nagusian. Ustez oso toki onean nengoen, garajeko bulegoan, eta kamioia gidatzen ere ikasi nuen. Baina Ifnin ordurako bazen Donostiatik joandako konpainia bat, eta hari itzultzea tokatzen zitzaion eta hemendik hara beste bat bidali behar zuten. 1958ko ekainaren 4an egin zen Afrikara zein joango ziren erabakitzeko zozketa. Lasantas sarjentuarekin batera neu jardun nintzen papertxoak biltzen, garajeko bulegoan. Zozketa egin genuen eta, hara!, neurea izan zen joatea tokatu zitzaienen azkeneko izena”.

Berri txarra ezagutu ondoren, etxera joan eta pare bat egun bertan pasatzea erabaki zuen Imanolek, baina koartelean inori ezer esan gabe. “Ifnira joatea baino nahiago nuen nonbait denboraldi bat kartzelan igarotzea”, kontatzen du. “Baina itzuli nintzenean bazirudien ezer ez zela gertatu, nire lagunak baino ez zirela konturatu. Miraria!...”. Eta oraindik izan zuen Afrikako gerrara joan gabe pasatzeko beste aukera bat, baina zozketan berriz ere kale; hamar gidaritatik bost bakarrik behar zituztela esan zieten, eta hamarren artean zozketa berria egiteko. “Egin zen berriro zozketa eta laugarren





Espainiako militarren desfilea, Iñuri. Imanolek han egin zuen soldadutza 1958tik 1959ra, Espainia eta Maroko gerran zirela. / IMANOL ELIAS



Ezkerreko argazkian, soldaduen kanpamendua Iñuri. Eskuinekoan, berriz, Imanol 'komeriketari', han ere bai. / IMANOL ELIAS

tokian agertu zen nire izena. Unean bost mila duro izan banitu ordezkoren bat aurkitu ezinik ez nuela izango esan behar dut, baina haiek falta”, gogorazten du Imanolek.

Zozketak zozketa, 1958ko ekainaren 16an Euskal Herritik abiatu, Vigoko (Galizia) koartel batera bi egun geroago iritsi, han *Cabo de Hornos* ize-neko itsasontzia hartu, Cadizera (Espainia) heldu eta bertatik Ifnira iritsi zen Imanol bere soldadu lagunekin ekainaren 24an, San Juan egunez. “Ifnira joatean esan ziguten urtearen bukaera bitartean txandatuak izango ginela. Hori zen gure itxaropena, baina 1959ko ekainaren 22an iritsi ginen berriro Donostiara, eta hurrengo egunean Azpeitira, ilunabarrean Urrestillako San Juan festetara joateko”. Gidari ibiltzea beste postu batzuekin alderatuta abantaila izan arren, Ifnin pasatutako urtea ez zen, ez, samurra izan Imanolentzat. Etxetik hain urrun, ulertzen ez zuen gerra baten erdian, “zorionez” inoiz erabili behar izan ez zuen pistola batekin kamioiak gidatzen... Itziar Oiarzabalek ia egunero jasotzen zituen bere mutil-lagunaren berriak. “Nik tartean behin, ahal nuenean, erantzuten nion. Baina berak egunero-egunero idazten zidan”, gogoratzen du Itziarrek. Honentzat ez ezik, Azpeitiko *Olatz* aldizkariako ere gutunak bidaltzen zituen Imanolek, Afrikako bere bizipenak kontatuz. Guztira bere hamar gutun argitaratu ziren Azpeitian, bera Ifnin zegoela.

Bizipen bitxiak ere izan zituen Imanol Eliasek Afrikako egonaldian. Kamioi gidari gisa, batzuk eta besteak batetik bestera garraiatzen pasatzen zituen egunak, eta Legioko soldaduekin ibiltzea ere egokitu zitzaion batzutan. Legionarioak gizon eskuzaballak iruditu zitzaizkion azpeitiarrari. “Legionarioekin joatea zen... Haietako bat banintz bezala tratatzen



Espainiako Armadako zapadorean konpainiaren futbol taldea. Imanol goiko ilaran ezkerretik bosgarrena da. / IMANOL ELIAS

ninduten, zeukaten dena ematen zidaten, dena. Horretan egundoko jendea ziren. Gero hori bai, ikusten nituen harri handi bat bizkarrean hartu eta jira eta buelta patioan. Eta gauean ohera joaten nintzen eta haiek iluntzero kantuan entzuten nituen, '*Mi novia es la muerte...*' eta horrelakoak esaten. '*Mekaguen, ederki gatxaudek, hi!*', nioen neure artean".

Egoera okerraren barruan Imanol eta bere konpainiakoak zorteko izan zirela ere esan daiteke, han egon ziren garaian gerrako kontuak baretuago zeudelako. Beraien aurretik Ifnin izan zen Donostiako konpainiak une latzagoak bizi izan zituen: hiru soldadu hil egin ziren eta Ifnin bertan lurperatuta utzi behar izan zituzten. ■



# 3. *Antzerkia eta kazetaritza*

**A**frikako lurretan, Ifnin, etxetik hain urruti, gerrate Agiroko soldadutza astuna eta luzea igaro ostean, etxera bueltan urtebete lehenago bertan utzitako bizimoduari berriz ere eusteko garaia iritsi zitzaion Imanol Eliasi. “Soldadutzak dena moztu zidan, Institutuko lana tartean zela. Orduan ez soldata eta ez ezer gelditu nintzen”, aitortzen du berak. Azpeitira itzuli zenean, ordea, Institutu Laboraleko bere lanpostua zain zeukan, eta hortxe jarraitu zuen beste urte batzuetan. Nola ez, Itziar emaztegaia ere zain zeukan. Eta bere lagunak, eta Oargikoak...

Herrira 1959ko uda hasieran iritsi zen Imanol. Hamarkada bat amaitzear zegoen eta berri bat has-teko ez zen asko falta. Hamarkada berri hori, 1960koa, eta bereziki lehenengo urteak, aldaketa eta une garrantzitsuz betetakoak izan ziren Imanol

Eliasentzat. Eguneroko bizimoduari lotutako aldaketa nabarmenak ezagutu zituen, lanari eta bizitza pertsonalari lotutakoak. Oargi barruko bere ibilbide laburra ere laster bukatu zen. Aldaketarik izan ez zuena, eta, aldiz, indartuz joan zena, Imanolen eta antzerki munduaren arteko lotura izan zen. 1960an Azpeitian hain arrakastatsua izan zen *Pasioa* antzeztu zen lehendabiziko aldiz, eta lehen emanaldi hartan Imanol bera partaide izan ez arren, beste azpeitiar asko bezala antzeztan haren inguruan sortutako giroan murgilduta ibili zen. *Pasioa*-k urte batzuetako ibilbidea bete zuen eta Imanol Eliasek azkenean hartu zuen parte, aktore bezala hasieran eta zuzendari gisa amaieran.

Bestalde, 1960ko hamarkada horretan Imanolen eta antzerkiaren arteko harreman estuan pauso aipagarria eman zuen azpeitiarrak, *Inoxente* izeneko bere lehen antzezlana idaztean eta taularatzean.

## ***Ikasleek alde egitea ezin eraman***

Imanol Eliasek 1962an utzi zuen Azpeitiko Institutu Laboralean zeukan irakasle lanpostua, herrian Landeta auzoan zegoen lantegi batean hasteko. Institutua uzteko arrazoen artean pisu handia izan zuen, bere esanetan, lehendabiziko promozioetako ikasleak, ikasturteak pasatu ahala, ikastetxea uzten hasteak. “Egundoko pena eman zidan nire lehen ikasle haiek alde egiteak —dio Imanolek—. Haiek, gainera, normala baino pixka bat zaharrago zirela hasi ziren Institutuko hasiera hartan. Eskola bukatu ondoren bazuten lanerako okasioa, baina askok



Imanol eta Luis Mari Galdos Azpeitiko Kasinoan antzezten. Institutuan irakasle eta ikasle ziren, baita lagunak ere. / IMANOL ELIAS

nahiago izan zuten zerbait gehiago ikastea. Haiekin beraietako bat bezalaxe ibiltzen nintzen. Futbolean elkarrekin ibiltzen ginen, jolasean ere elkarrekin... Izugarrizko pena hartu nuen alde egitea tokatu zitzaizenean. Gero bigarren talde bat etorri zitzaidan, eta haiek ere joan ziren, eta orduan ere bai... Institutukoa ez zen, gainera, guztiz nire gustuko lana”.

Luis Mari Galdos zen Institutuan hasi eta Imanolek aurreneko taldean ikasle gisa izan zueneko bat. Galdosek dioen bezala, “Imanol oso irakasle gaztea zen, gu baino urte gutxi batzuk zaharagoa baino ez. Ia adin berekoak izatean, harremana oso estua zen, koadrilakoak bagina bezala. Gero hura soldadutzara joan zen, Afrikara, eta handik etorri eta gero ni dagoeneko ez negoen Institutuan. Baina Institututik aparte ere mantendu genuen harremana”. Besteak beste, Imanolek eta Galdosek estudio txiki bat zabaldu zuten elkarrekin, Enparan kalean. Delineazioa irakasten zuten bertan, eta urtebete inguru aritu ziren lan horretan, 1959 inguruan. Institutuko garaira itzuliz, ordea, Luis Mari Galdos bera izan zen, Imanol Eliasek bultzatuta, ikasleek egin zituzten lehen antzerki emanaldi haietako partaideetako bat. Lan guztiak gaztelerazkoak ziren. Izan ere, Galdosek gogoan dauzka garai hartan euskararen inguruan Institutuan izaten zituzten arazoak. “Orduan eskolan debekatuta geneukan euskaraz hitz egitea. Geure artean eta klasetik kanpo egiten genuen, baina maisuekin eta gela barruan ezin izaten zen euskaraz hitz egin. Gu garai hartan, normala zen bezala, geure artean dena euskaraz egiten ohituta geunden. Baina bertako irakasleek eta esaten ziguten geuretzat zela mesederik handiena Institutuan euskararen ordeztu gaztelera erabiltzea, horrela hizkuntza hori gehiago praktikatzeko”.

Galdosek gogoan du Inauteriekin lotutako beste pasarte bat ere, Imanol tartean zela. “Instituto Laboralean, gure bosgarren ikasturtea zela uste dut, azkenekoa. Garai hartan, Azpeitian Inauteriak ez



ziren gaur bezala jai egunak izaten, jendeak lan egiten zuen edo eskolara joaten zen. Guk, ordea, egun batzuk lehenago baimena eskatu genuen Inauteri asteartean jai egiteko, sokamuturra ateratzen baitzen eta oso giro polita sortzen zen, baina ezezkoa eman ziguten”. Baltasar Iglesias apaiza zen orduan Institutuko zuzendaria, eta honen hitz batzuek gehiago sutu zituen ikasleak.

“Hala, iritsi zen asteartea —jarraitzen du Galdosek—, gu denak haserre geunden, eta hor etorri zen Iglesias, kalean oso giro ederra zegoela aipatuz. Horrek gure haserrea areagotu zuen. ‘Bueno, hemen greba egin behar diagu, alde egin behar diagu’, esan genuen geure artean. Ordurako Institutua Perdillegin zegoen, eta hango gure gelako leihoak atariaren altueran gelditzen zirenez, laugarren eta bosgarren mailakoek leihoetatik irten eta martxa egin genuen”. Institutuko ikasle *grebalariak* garai hartan Lagun Onak kirol elkarteak herriko plazan zeukan tabernan elkartu ziren, eta haiekin batera Imanol Elias, irakasle bakarra. Inauteri astearteko gertaera horrek izan zituen bere ondorioak, bai ikasleentzat, bai Elias irakaslearentzat. Ikasleek euren zigorra jaso zuten bitartean, Imanolek *gerrako kontseilua* jasan behar izan zuen. “Era guztietako galderek egin zizkidaten —gogoratzen du berak—, ikasleek eta nik neuk bezperan izandako jarrera azaltzeko. Gehienak kanpotarrak ziren eta ezin zuten ulertu azpeitiarrontzat Inauteriek eta sokamuturrak horrelako garrantzia izatea. Eskerrak, ordea, Baltasar Iglesias tartean zela; honek dagoeneko bazeramatzan urte batzuk herrian eta hobeto uler-

tzen zuen gure jarrera”. Estuasunak estuasun, urte hartan gaizki pasatzeak balio izan zien zerbaiterako ondorengo ikasleei, hurrengo ikasturtetik aurrera hasi baitzen Azpeitiko Institutu Laborala Inauteri festatan ateak ixten.

Inauterietan ikasleen eskaerarekin bat egiteak arazoak ekarri zizkion Imanol Eliasi gainontzeko irakasleekin, eta aurrerago ere tokatu zitzaion antzeko egoerak bizitzea. Politika debekatutako gaia zen urte haietan, eta zeresanik ez Euskal Herriaren ideiarekin zerikusia zeukaten kontuak; gaur egun txikike-riak liratekeen kontuek egundoko garrantzia har zezaketen. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Imanol Eliasi Ernio mendian irailean ospatzen diren erro-merietako batetik lagunekin batera Azpeitira itzuli zenean. Erniotik zintak etxeratzea aspaldiko ohitura bat da eta Imanolen koadrilakoek ere erosi zituzten beraienak. Orduan zeharo debekatuta zegoen ikurri-  
na, baina mendian ikurrina txiki baten inguruan baz-  
kaldu zuten guztiek, Andoni Albizuri *Katxo*-k makila baten barruan ezkutatuta eramana. Debekatutako abertzaletasun horrekin puztuta, beherakoan era-  
man beharreko zintak ere zuri, gorri eta berde kolo-  
rekoak izatea erabaki zuten lagun guztiek, eta horre-  
la iritsi ziren herrira, zintak soinean zituztela. Ima-  
nolen desgrazirako, ordea, Azpeitira iritsi besterik ez  
eta zeinekin topo egingo eta Jaime Gomezekin, Ins-  
titutu Laboraleko *Formación del Espíritu Nacional*  
irakasgai famatuaren irakaslearekin. “Urrian, Ins-  
titutuan ikastaroa hasi zen lehen egunean, irakasle  
guztiak beraien areto nagusiko mahai handiaren  
jiran eseririk zirela aurkitu nintzen. Haietako norbai-

tek esertzeko eskatu zidan. Unetxo bat igarotzean hasi zen Jaime gertatutakoaren berri ematen, behin eta berriro adieraziz guztiei zinta gorriak, zuriak eta berdeak izan nituela zintzilikaturik, debekaturik zen sinbologia agertuz, eta, gainera, bertan aurkitzen zirenei nire aurkako botoa eman zezaten eskatuz, ni bertatik bidaltzeko”, kontatzen du Imanol Eliasek. Kanporatua izateko zorian egon zen, beraz, Imanol Institutuko bere bigarren *gerrako kontseiluan*, baina irakasleen gehiengoak ez zion gertatutakoari aparteko garrantzirik eman nahi izan eta ez zuen lanposturik galdu. Gertatutakoak, hori bai, Imanol bere ideietan eta usteetan indartzea lortu zuen. “Igaro behar izan nuen larrialdiaren ondoren, hitza eman nion neure buruari, berriro Erniora joatean belarrietatik ere kolore haietako zintak zintzilikaturik bihurtuko nintzela”.

## ***Ezkondu eta lanbide berria***

1961ean, maiatzaren 27an, ezkondu zen Imanol Elias Itziar Oiarzabalekin. Gurasoen etxea utzi eta bizimodu berri bati ekin zion, hortaz, oraindik Institutu Laboraleko irakasle zela. Ezkondu eta hurrengo urtean, ordea, eta lehenago aipatutako arrazoiak zirela medio, Institutuko irakasle izateari utzi zion eta Azpeitian bertan, Landeta auzoan zegoen Construcciones Agur enpresan hasi zen lanean. “Delineante bezala sartu nintzen, baina azkenean hori ez beste guztia egin nuela uste dut”, dio Imanolek Eliasek.

Baina bigarren lanpostu horretan ez zuen den-

bora luzerik egin. 1963ko ekainean Construcciones Agur utzi ondoren, urte berean, irailean, Azkoitian Acerías y Forjas lantegian sartu zen, *Entretimiento Preventivo* izeneko alorrean kontrola eramateko, Iñaki Urretabizkaiaren esanetara. Hor bai, hor urte luzeak egin zituen, 1978. urtea arte bertan aritu baitzen lanean. Dagoeneko Forjas edo Aforasa bezala ezaguna den Azkoitiko lantegian zebilela, Bizkaia aldera joatekotan ere ibili zen. “Patxi Altuna *Kanpaxa* etorri zitzaidan, Lemoako lantegi baterako postua eskainiz. Bertara joanda ere izan ginen emaztea eta biok, hango nagusiak oso ondo tratatu gintuen, eta etxea eta guzti eskaintzen ziguten. Baina azkenean Azpeitiak gehiegi tiratzen gintuen, eta hementxe gelditu nintzen”. Imanolek Azpeitia ezin utzi orduan, eta aurrerago ere ez.

Lemoara joan gabe gelditu zen, beraz, baina kontu hura medio Azkoitiko bere lanpostuan baldintza hobekak lortzea erdietsi zuen behintzat. “Lemoara Forjasen ezer esan gabe joan nintzen, eta horren ondorioz zigorra ere izan nuen, hiru egunez enplegurik eta soldatarik gabe utzi ninduten eta. Baina itzuli nintzenean, baldintzak hobekak ziren”.

Imanol Eliasi buruz zerbait esan badaiteke, geldirik egoteko gizona behintzat ez dela esan behar da, eta garai hartako beste adibide batek ondo asko argitzen du hori. “Tartean beste gauza batzuk ere egin nituen —kontatzen du berak—. Enparan kalean orduan bazen Cooperativa del Consumo izeneko, eta harako administrari bat behar zen, bertako kontuak-eta eramateko. Nik kontabilitatea egina nuen, posta bidez ikasita. Administrari lan horretara



Azpeitiko 'Pasioa'-ren edizio bateko partaideak. Ehun laundik gora elkartu ziren lehen aldiz 1960an eman zen antzezlanean. / IMANOL ELIAS

aurkeztea erabaki nuen, eta zer gertatuko eta lanpostua atera nuela. Azkenean ez nuen kargu hura hartu, baina orduan ere balio izan zidan nire nagusiarengana joan eta 'beno, postu berri bat zaukeat' esateko. Hemengo nagusiek beti izan dute langilea joatea baino edozer nahiago, eta kasu horretan ere niretzako mesede izan zen”.

## ***Azpeitiarren 'pasioa'***

Laneko gorabeherak eta 1960ko hamarkada hasieran Imanol Eliasek bizitako aldaketa eta gertaera aipagarriak garrantzitsuak izan ziren ezbairik gabe beretzat, eta zentzu askotan bere etorkizuneko ibilbidea markatu zuten. Aldaketarik jasan ez zuen zera bat ere hor zegoen, ordea: Imanolen antzerki zale-tasuna, alegia. Soldadutzara joan aurretik Oargiren eskutik berreskuratutako euskarazko antzerki ema-

naldien bidea eta Institutu Laboralean ikasleekin egindako lanak hortxe utzi zituen Imanolek, eta Afrikan Espainiako Armadan emandako urtearen bueltan ere ez zitzaion har hori itzaldu.

Imanol bera barruan ez bazegoen ere, Oargik aurrera jarraitzen zuen bere ekintzetan, eta horien artean antzerkia ere bazegoen. Eta Azpeitian Oargik bultzatuta gauzatu ziren antzerki lanetan herritarren gogoan gelditutako bat aukeratzekotan, hori Agustin Zubikarairen *Jaunaren bideetan* obraren antzezpena da, *Pasioa* bezala ezagutzen zena eta oraindik ere gogoratzen dena. Jesusen pasioaren eta heriotzaren inguruko estanpek osatutako antzezlan horren moldaketa, Joxe Mari Altuna azpeitiarrak sortutako musikaz jantzia, 1960ko Aste Santuan eman zuten lehenengo aldiz Azpeitian. Soreasu zineman aurkeztu eta erabateko arrakasta izan zen. “Herri guztia bildu zuen ekintza izan zen *Pasioa*”, Imanol Eliasen hitzetan. Izan ere, alde batetik, aktore, kantore eta abarren artean ehun lagunetik gora aritzen ziren lanean. Eta, bestetik, herriak izugarritzko harre-ra egin zion antzezlanari, ikusle aldetik. Enrique Zurutuzak aktoreen zuzendaritzan eta Joxe Mari Altunak musika jarriz eta abesbatza gidatuz, lan eskerga egin zuten *Pasioa* aurrera ateratzeko.

1960ko lehen ekinaldi arrakastatsuen ondoren, 1961erako oraindik eta ahalegin handiagoa egin zuten Oargikoek: ikuskizuna indartu zuten dekoratu eta jantzi berriak prestatuz. *Pasioa*-ren bigarren saiakera horrek, gainera, oihartzun berezia izan zuen, ikuskizunaren sonak Azpeitiko mugak gainditu eta Donostiaraino iritsi baitzen. Horrela,

## SOREASU ANTZOKIA

### AZPEITI'n

Ostegun Santu egunean Illuntzeko 8:30an OARGUI'ren babesean "AZPEITIKO ANTZEZLARI ta ABESLARIAK" azalduko dituzte Pasio Irudiak.

# «JAUNAREN BIDEETAN»

Zabikaral'tar Agosti'larek Idatzia  
Abesti doñak, Altuna'tar Jose Mari'k egiñak

### EGUILLEAK, AZALTZEN DIRAN ERAN

ATHALE	Ojerzabal'tar Itziar
BOOZ	Lezkano'tar Javier
BETANIAKO BERTSOLARIA	Altuna'tar Jose Mari
ISAAK	Goenaga'tar Itziar
ISMAEL	Esnaola'tar Jose Antonio
SAMUEL	Larrazaga'tar Javier
GOG	Izaguirre'tar Abel
RUBEN I	Odrizola'tar Itziar
BAAL	Lezkano'tar Javier
OZIAS	Arambarri'tar Mikel
NOEMI	Odrizola'tar Jose Antonio
JONATAS	Aguirre'tar Itziar
ABEL	Galaraga'tar Peko
PEDRO	Olatz'tar Julian
JESUS	Galdos'tar Luis Mari
MATEO	Garin'tar Jose
SANTIAGO	Arambarri'tar Nikolas
JUAN	Letamendia'tar Itziar
JUDAS	Viquendi'tar Juan
AINGERUA	Saldias'tar Olatz
MALKO	Izaguirre'tar Abel
PILATOS	Alkorta'tar Juan
EMAZTEA	Ojerzabal'tar Itziar
ELIAS	Reizabal'tar Itziar
TOBIAS	Arregui'tar Jaxinto
LAPUR GAIZTOA	Zebeleta'tar Itziar
LAPUR ONA	Sudupe'tar Jose Mari
RUBEN II	Arambarri'tar Nikolas
MARIA	Galdos'tar Mari Karmen
MADALENA	Garmendia'tar Mari Tere
KLEOFAS	Olatzola'tar Konzu
SALOME	Olatz'tar Antoni
JAKONA	Lezkano'tar Olatz

### Aueaz gañera Itz-gabeak, APOSTOLU, GUDARI ta ERRITARRAK.

Abeslarien zuzendari I ALTUNA'tar JOSE MARI  
Antzezlarien zuzendarit ELIAS'tar IMANOL

## Egun bakarra.

Imanol Elías - Zuzendari - Pasioa, 19 - 1983



Ezkerrean, azken 'Pasioa'-ren kartela. Goian, Imanol eta Itziar. Behean, Imanol San Joanen paperean, eta Felisa Orbegozo (amabirjina) eta Maria Pilar Lapeira. / IMANOL ELIAS.

1961eko Ostegun Santu egunez Gipuzkoako hiriburu-ruko Victoria Eugenia antzoki ezagunean aurkeztu zuten azpeitiarrek euren *Pasioa*, goizez eta arratsal-

dez saio bana eskainiz, eta baita arrakasta biribila lortu ere. Imanol Eliasek oso gogoan dauka egun hura. “Nik ez nuen parte hartu 1960ko lehen emanaldian, baina bigarrenetik aurrera hor ibili nintzen, aktore gisa lehenengo eta zuzendari lanetan ere bai bukaeran. San Joanen papera betetzen nuen”. Itziar bere emaztea ere partaide izan zen *Pasioa*-n. Esan bezala, gogoan dauka Imanolek 1961eko Ostegun Santuko egun hura, Donostian *Pasioa*-k izandako harrera beroagatik batetik, “eta egun hartantxe on Julian Barrenetxea musikaria hil zelako. Donostiara abiatu aurretik jakin genuen haren heriotzaren berri”. Azpeitiko parroko organujole eta abesbatzako tipleen zuzendari izandakoari eskainitako artikulua izan zen, gainera, Imanol Eliasek *Olatz* aldizkarian argitaratu zuen azkenekoa —1960an—.

*Pasioa*-ren ingurukoak bizi-bizi gogoratzen dituen bestea Juanito Bikendi da. Bera zen, Inazio Rezabalekin eta Jacinto Arregirekin batera, antzezlanetan parte hartu zutenen artean oholza gainean eskarmenturik handienetakoa zuena. “Parte hartzea eskaini zidaten —dio Bikendik— eta nik baietz, baina Judasena egitekotan. Eta Judasen papera eman zidaten”. Donostiako egun bereko bi emanaldi haiez hitz egitean, Victoria Eugenia antzokia nola bete zen gogoratzen du Bikendik. “Antzokia beteta zegoen. Goizekoan apaiz eta jesuita ugari joan zen, gainera, ikustera, eta orduko gotzaina ere han zegoela uste dut. Arratsaldean bestelako jendea inguratu zen, baina orduan ere dena bete zen”.

*Jaunaren bideetan*-ek edo *Pasioa*-k aldi desberdinak ezagutu zituen Azpeitian. Horrela, hasiera-



ko hiru urteren bueltan, bat zela eta bestea zela, bertan behera gelditu zen. Baina azpeitiarrak ez ziren egon urte luzez *Pasioa* berreskuratu gabe. Berreskuratze horretan, berriro Oargiren eskutik, Imanol Eliasek hartu zuen bere gain aktoreen zuzendaritza, eta Joxe Mari Altunak jarraitu zuen abeslariak gidatzen. 1967an eman zen azkeneko aldiz *Pasioa* Azpeitian, zortzi urteko ibilbide gorabeheratsu bezain oparoari amaiera jarriz.

### **'Inoxente', Manuel Eliasena**

Antzerkian aktore eta zuzendari gisa parte hartzeaz gain, 1960ko hamarkadak aparteko garrantzia izan zuen Imanol Eliasen idazle ibilbidean. Are gehiago, esan daiteke hamarkada horren aurreneko urteetan jaio zela Imanol Elias idazlea. Lehendabiziko idazlanak Loiola Herri Irratirako egin zituen. "Loiolak eman zituen lehenengo euskarazko lanak nik idatzitakoak izan ziren", dio Imanolek 1962an aireratu ziren *Andre-gizonak* irratsaioei buruz. Irratirako idazteaz gain, Loiola Herri Irratiko lehen urte haietan esatari lanetan ere aritu zen; "baina laster jabetu nintzen hura ez zela niretzako egiten", dio.

Oargik bultzatuta Azpeitian euskarazko antzerkiak urte haietan ezagutu zuen berpizkundearen hariari eutsi zion, era berean, Imanol Eliasek. Juanito Bikendi eta beste zenbait bidelagun hartuta, han eta hemen antzezlanak egin zituen 1960ko hamarkada osoan zehar. Antzerkiarekiko zaletasuna idaztearekin bat eginez, Imanol Eliasek 1964an sortu zuen bere aurreneko antzezlanak: 'Inoxente'.

Gaztelerazko beste baten moldaketa izan zen hura, euskaratua. Eta baita taularatua izan zen egile azpeitiar honen lehendabiziko lana ere. Komedia erako lan horren estreinaldia 1966ko Santo Tomas egunean egin zen, Azpeitian, Soreasu antzokian, eta 1967ko urtarrilean, berriz, Azkoitian Olimpia zine aretoan eman zuten berriro. “*Txokolo*-tar txistularietako bat hil egin zen, eta haren alargunarentzat dirua biltzeko antolatu genuen *Inoxente*-ren emanaldia —gogoratzen du Imanolek—. Hemen zortzi mila pezeta baino gehiago bildu ziren. Garai hartan sarrerak igual hogeituro edo gutxiago balio zuela kontuan hartuta, jendeak oso ondo erantzun zuela ikusten da”.

Imanol Eliasek idatzita taularatu zen lehendabiziko lan hori, Grupo Artístico Azpeitiano izeneko taldeak eman zuen. Berez ez zegoen izen hori zerman antzerki talderik, baina antzeko izenen bat jarri behar, dirudienez, diktadura garai hartako agintariak baimena luzatzeko. Espainiako Informazio eta Turismo Ministerioko Gipuzkoako delegaziora eskaera luzatzea ezinbestekoa zen, beste hainbat konturako bezala, herri mailan antzerki lan bat aurkezteko. Hortik Madrilera zuzentzen ziren eskaerak, antzezlanaren libretoarekin batera, hango Dirección General de Cinematografía y Teatroko Censura Teatral sailetik igarotzeko. Hangoen oniritzia adierazten zuen zigilua gainean zutela itzultzen ziren azkenean eskaera orrialdeak. Grupo Artístico Azpeitiano izen *serioarekin* batera, Imanol izen *susmagarria* baino askoz *fidagarriagoa* zen Manuelekin ordezkatzeko ere ezin ahaztu, noski. Horrela, Manuel

MINISTERIO DE INFORMACION  
 DIRECCION GENERAL DE CINEMATOGRAFIA Y TEATRO  
**GUIA DE CENSURA**

Expe. núm. 335.66  
 Guía núm. 1

15

MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO  
 DIRECCION GENERAL DE CINEMATOGRAFIA Y TEATRO  
**CENSURA TEATRAL  
 AUTORIZADA UNICAMENTE  
 PARA MAYORES DE 18 AÑOS**

Vista la instancia suscrita por Luis M<sup>a</sup>. Galdos Eguiguren  
 con fecha 10 de diciembre de 1966.

CONSIDERANDO:

Esta Dirección General, ha resuelto AUTORIZAR  
 la obra titulada "INOXENTE", original  
 de Manuel Elias Odriozola, adaptación de  
 que ha de representar la Compañía GRUPO ARTISTICO AZPEITIANO  
 bajo las condiciones que se establecen al dorso.

Lo que comunico a Vd. para su conocimiento y demás efectos.  
 Madrid, a 14 de diciembre de 1966  
 EL DIRECTOR GENERAL

Sr. Director de la Compañía GRUPO ARTISTICO AZPEITIANO

**SALON OLIMPIA**  
 AZCOITIA.

Miércoles 18 de Enero  
 A las 8'30 de la noche

El "GRUPO ARTISTICO AZPEITIANO"  
 pondrá en escena la comedia en  
 tres actos y en verso

• **"INOXENTE"**  
 de IMANOL ELIAS  
 que tanto éxito ha obtenido en Azpeitia,  
 En el intermedio actuará el cantante melódico  
Luis Maria Galdós

NOTA: Las montañas utilizadas en la representación  
 de la obra son cedidos por TAPICERIA ELIUS  
 TORO de Azpeitia.

MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO  
 DIRECCION GENERAL DE CINEMATOGRAFIA Y TEATRO

15

MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO  
 DIRECCION GENERAL DE CINEMATOGRAFIA Y TEATRO  
**CENSURA TEATRAL  
 AUTORIZADA UNICAMENTE  
 PARA MAYORES DE 18 AÑOS**

Lo que comunico a Vd. para su conocimiento y demás efectos.  
 Madrid, a 14 de diciembre de 1966  
 EL DIRECTOR GENERAL

Expe. núm. 335.66  
 Guía núm. 1

**"INOXENTE"**

El "GRUPO ARTISTICO AZPEITIANO"  
 pondrá en escena la comedia en  
 tres actos y en verso

• **"INOXENTE"**  
 de IMANOL ELIAS  
 que tanto éxito ha obtenido en Azpeitia,  
 En el intermedio actuará el cantante melódico  
Luis Maria Galdós

**'Inoxente' lana emateko garaiko zentsuraren oniritzia jasotzeko beharrezko eskaerak dira goi-goikoa eta haren beheko eskuinaldeko biak. Ezkerrean, antzezlanaren kartela Azkoitiko emanaldia iragarri. / IMANOL ELIAS**

Elias agertzen zen *Inoxente*-ren egile gisa, eta ez Imanol Elias. "Eskaera ofizial ugari egitea beste erremediorik ez zen egoten antzerkia emateko arazorik ez izateko. Eta eskaeratan Imanol Eliasik ez

jarri, Manuel ipini badaezpada ere, hainbeste lan hartu eta gero antzerkia eman gabe gelditzeko arriskua egoten zen eta. Gero, askotan, emanaldia egiteko bi egun falta ziren arte ez zitzaigun baietza iristen, eta iristen zenean agian ‘halako bi orrialde kendu’ agintzen zizuten. Baina ordurako aurrera segitu eta guztia ematen zen, eta kito. Aurrera eramateko gai zaila zen, baina ez genuen aparteko arazorik izaten”, azaltzen du Imanol Eliasek. Hori bai, *Inoxente*-k ‘*únicamente para mayores de 18 años*’ baimena eskuratu zuen, nahiz eta, Imanolen esanetan, “ezer ez eduki”. Garaiko zentsura famatuaren komeriak.

## ***Taularatu gabeak***

*Inoxente*-rekin badirudi Imanol Eliasi sormenaldi oparoa piztu zitzaiola, 1964an idatzitako hori kontuan hartuta, hiru urteren buruan lau antzerki lan idatzi baitzituen. Baina, *Inoxente* ez bezala, 1960ko hamarkadan azpeitiarrak sortu zituen gainerako antzezlanek ez zuten azkenean oholtza gainean islarik izan. *Inoxente* komedia sortu eta handik urtebetera, 1965ean, *Amaren malkoak* izeneko drama idatzi zuen Imanolek, dantzarien eta txistularien laguntzarekin emateko pentsatua. 1966an, berriz, urte bukaeran *Inoxente* estreinatzearekin batera, beste bi idazlan amaitu zituen, egile gisa gerora ere erakutsi duen etorri izugarria erakutsiz. Azkeneko bi obra horiek espreski beste horrenbeste urte sasoirako pentsatuta egin zituen Imanol Eliasek. Bata, *Haurtxoa seaskan* izenekoa, Eguberrietako antzer-

kia zen, eta bestea, berriz, *Gurutz Bidea*, Aste Santurakoa. Hiru urteren barruan, beraz, komedia bat, drama bat eta oinarri historikodun bi lan idatzi zituen Imanolek. Ondoren, eta antzerki sorkuntzari dagokionez, lau urteko atsedenaldea hartu zuen, 1970ean idatzi zuen *Nor errudun?* drama sortu aurretik. Hau ere, taularatu gabe gelditu zen. Imanol Eliasen antzerkirako idazlanen lehen aro baten amaiera dela esan daiteke *Nor errudun?*, hortik aurrera urte dezente egin baitzituen berriro antzerkirako ezer idatzi gabe.

Horrek ez du esan nahi, ordea, Imanol ezer idatzi gabe egon zenik. 1960ko hamarkada esanguratsua atzean utzi aurretik, poesiari ere tartetxo bat egin zion egile azpeitiarrak; eta emaitza txukunekin, gainera. Horrela, 1966an Azpeitiko Lagun Onak Mendi Bazkunak eraturako lehiaketan saritua izan zen, *Mendizaleak Azpeitian* izeneko olerkiarekin. 1969an, berriz, beste sari bat eskuratu zuen, oraingo honetan Iruñeko I. Lore-Jokoetan, *Egilearen egarri* poesiari esker; Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak antolatu zituen Nafarroako hiriburuan aipaturako topaketak, eta Imanolek *Venegas y Figueroa* deituriko saria ekarri zuen Azpeitira.

## ***Prentsako artikulua***

Idazten hasi eta ezin gelditu. Hortaz, ez ziren hor bukatu Imanol Eliasen 1960ko urte haietako lanak. Horrela, komunikabideetan hainbat eta hainbat artikulua plazaratzen hasi zen 1968tik aurrera. Lehendabizikoak *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratu

zizkieten kolaborazioak izan ziren, *Gaiztoa* goitizena-  
narekin. 1968. urtean hilero argitaratzen zituen,  
*Mundu biribilla* izenburuko atalean. *Zeruko Argia*-n  
argitaratzen zituen artikuluetan aktualitateari halako  
errepasso berezia ematen zion. “Egunkarietan aten-  
tzioa ematen zidaten berriak hartzen nituen eta  
horien inguruko komentarioa eginez, ondoren be-  
rriarekin lotutako olerki bat eransten nion azpian”.

Ondoren *La Voz de España* egunkarian hasi  
zen kolaborazioak egiten, eta hortik aurrera egunka-  
ri berean eta *El Diario Vasco*-n urte luzeak egin  
zituen. 1968tik aurrera egunkari horietara bidaltzen  
zituen artikulua gehienek Azpeitiko gaiekin zuten lotu-  
ra, 1969an eta 1970ean *La Voz de España*-n argita-  
ratu zizkietenak kenduta. Urte horietan Acerías y  
Forjasen laneko segurtasun arduratan zebilela apro-  
betxatu zuen gai horri buruzko artikulua idazteko.  
Askotan langileek egindako marrazkiei ateratako  
argazkiekin osatzen zituen artikulua Imanolek.  
Orrialde osoak betetzen zituzten bere idatziek, *Te-  
ma del Día* izeneko atalean. Inork ez zion eskatzen  
Imanol artikulua bidaltzeko, bere ekimenez idazten  
zituen. “Nik bidali egiten nituen. Lehenengoa bidali  
nuen eta atera egin zidaten, hurrengoa bidali eta  
hura ere atera egin zidaten eta igual orrialde oso-  
soa, gainera... Beno, ba bidaltzen segitu nuen”.  
Testuaren zatirik nagusia gazteleraz idazten  
zuen, baina beti ere parte bat euskaraz idatzita  
bidaltzen saiatzen zen Imanol, gazteleraz idatzitako-  
aren laburpen erara. “Lehenengotik uste dut erdaraz  
soilik egiten hasi nintzela, baina gero euskaraz ere  
pusketak jartzen hasi nintzen, eta dena argitaratzen,

L. Voz 24/10/70  
**un tema cada dia**

**SEGURIDAD EN EL TRABAJO**  
**El abuso del alcohol influye en gran manera en los accidentes laborales**

**LAS BEBIDAS ALCOHOLICAS PUEDEN CONducIR A UN AGOTAMIENTO FISICO**

El abuso del alcohol influye en gran manera en los accidentes laborales. El alcoholismo produce un agotamiento físico que afecta a la capacidad de reacción y a la atención, aumentando el riesgo de cometer errores que pueden resultar en accidentes graves. Este fenómeno es especialmente preocupante en entornos laborales donde la seguridad es primordial. El consumo excesivo de alcohol también puede conducir a una disminución de la productividad y a problemas de salud a largo plazo. Es fundamental concienciar a los trabajadores sobre los riesgos asociados con el consumo de alcohol y promover medidas preventivas para reducir estos incidentes.



**Mundu biribilla**

El mundo sigue siendo un lugar complicado y lleno de conflictos. Desde las tensiones geopolíticas hasta los desafíos ambientales, las noticias parecen no tener fin. En este momento, la atención se centra en las negociaciones de paz en varias zonas de conflicto, así como en las medidas que los gobiernos están tomando para abordar la crisis económica global. La opinión pública está dividida sobre cómo abordar estos problemas, pero hay un consenso general de que la cooperación internacional es clave para encontrar soluciones sostenibles. Además, el avance de la tecnología y la inteligencia artificial plantea nuevas preguntas sobre el futuro del trabajo y la privacidad.

**Ezkerrean, 'La Voz de España' egunkarian Imanolek argitaratutako artikulua, eta eskuinean 'Zeruko Argia'-n agertutako beste bat. Azpeitiarrak bi komunikabide horietara hainbat lan igortzen zituen. / IMANOL ELIAS**

dena ateratzen zidatenez, ba segitu. Behin zuloa harrapatutakoan...".

Antzerkiarekin bezala komunikabideetan, Imanol beti eta ahal zen neurrian euskara erabiltzen saiatzen zen. Bere euskara erabiliz, hori bai, eskola zaharrekoa alegia, euskararen kontuan erabat autodidakta baitzen; bere belaunaldiko gehienak bezala, alfabetizaziorako eskolak urruti gelditzen ziren eta. Baina euskararen aldeko bere militantziak pisu handiagoa zeukan, eta, hala edo hala, kostala ala kostala, euskaraz idazten saiatzen zen. "Euskara ere halaxe idazten zen lehen —dio berak—, ez orain bezala *hatxeak* eta *lebitekin*". Euskara batuaren zabalkundeak eta berak aipatzen duen *hatxeak*, bestek

beste, nahi baino lan gehiago eman zizkioten, gainera. “Ni neure kasa ikasita nengoen, eta aldaketa etorri zenean kostatu egin zitzaidan hartara jartzea. Oraindik ere ez ditut batuan dauden hitz asko erabiltzen, baina beno, pixkanaka-pixkanaka jarri gara, nahikoa kostatuta”.

*El Diario Vasco*-n argitaratutako bere artikuluei dagokienez, bi aldi izan dituztela esan daiteke. 1970eko hamarkadaren hasieratik 1990eko lehen urteak bitartean egunkari horretan, Saninazio jaien inguruan argitaratzen ziren gehigarrietan plazaratzen ziren Imanolen lanak. Normalean, gainera, artikulua bera bai *El Diario Vasco*-n eta bai *La Voz de España*-n argitaratzen zuen. Horietako gehienak gazteleraz idatzitakoak izan ziren. 1989ko irailetik aurrera, ordea, *El Diario Vasco*-n asteroko kolaborazioak egiten hasi zen Imanol, *Hitz apurrak* izeneko atalerako. Oraingo honetan euskaraz idatzitako artikulua ziren egiten zituenak, era guztietako gaiak jorratuz. 1993ko urtarrilean bukatu zuen Imanolek kolaborazio lan hori, 173 artikulua idatzi ostean.

Dena dela, ez zion utzi prentsan idazteari. 2000ko martxotik, esaterako, *Uztarrria* Azpeitiko herri aldizkarian —honen bosgarren zenbakitik— hileroko herriko historiari buruzko artikulua idazten du.

## ***Loiola Irratiaren hasieran, eta euskaraz***

Bere artikulua prentsan plazaratzen hasi aurretik ere izan zuen Imanolek komunikabideekin harremana: Loiola Irratian. Azpeitian Loiolako Santutegiko jesuitek irrati bat sortzea nahi izan zuten 1960ko



hamarkadaren hasieran eta irrati horretan lan egiteko jendea nahi zuten. Imanol Elias sasoi hartan Institutu Laboralean klaseak ematen zebilen oraindik. Carmelo Otaegi ere Institutuko irakaslea zen une hartan, eta bi azpeitiar gazteak elkarrekin sartu ziren jaiotzeko zegoen irrati berriaren abenturan. Ordurako martxan ziren Segura eta Arrate irratiaren eredu jarraituz sortutako komunikabidea izan zen Loiolakoa, herri eta bailara mailako irratia izateko alegia, kasu honetan Azpeitiak eta Azkoitiak osatzen duten Iraurgi bailarara zuzendua. Era berean, euskararen erabilpen ahal zen normalduena bultzatzen saiatu ziren, urte haietan horretarako zeuden oztopo eta baldintza guztiek uzten zuten neurrian, behinik behin. Bailarako irrati izatetik, bere uhinak herri gehiagotara zabaltzen joan zen ondorengo urteetan, eta 1970eko abenduan Donostiako Herri Irratiarekin bat egin ostean, Loiolako Herri Irratia izena hartu zuen.

Gero ia berrogei urtean Loiolako Herri Irratiko ahotsik esanguratsuenetakoa izan da Carmelo Otaegi, eta honek gogoan dauka oraindik Imanol eta bera nola iritsi ziren Loiola Irratira. Loiolan jesuitek irrati bat jarri zuten berria zabaltzen joan zen Azpeitian, eta Otaegik berak ere entzuten zuen irrati hura. “Nik gogoan dudanez —dio Otaegik—, irratiaren Aita Bergara aritzen zen. Arratsaldeetan ordu batzuetako emisioa egiten zuen. Musika pixka bat ipintzen zuen, tarteka hitzen batzuk egin eta errosarioa jartzen zuen”. Loiola Irratia izango zenaren aurrekariak ziren horiek, oraindik ofizialki jaio gabe baitzen irratia. Handik denbora gutxira, kazetari bat

izendatu zuten irratia antolatzeko eta zuzentzeko. Errioxarra zen bera: Verdu jesuita. Irrati berrirako esatariak behar ziren, eta Verdu galdezka hasi zen, Azpeitian eta inguruetan irratian aritzeko prest egongo litzatekeen jendearen bila, gaitasuna izan zezaketen lagunen bila. “Ez dakit nondik nora hasiko ziren bila —jarraitzen du Otaegik—, baina kontua da niri deitu egin zidatela, eta niri bezala inguruko neska mordo bati. Eta hor hasi ginen, irratian aprobak egiten”. Carmelo Otaegiri irratian hasteko prest legokeen beste norbait ezagutzen al zuen galdetu zioten, honek Institutu Laboralean lankide zuen Imanol Eliasi esan zion eta horrela hasi ziren elkarrekin Loiolara joaten. Biekin batera, Loiola Irratiaren lehen pausoetan han ibili ziren Pilar Forcada eta Maite Quintana azkoitiarrak, Maritxu Martinez eta Marilo Azkune azpeitiarrak, eta Justita Etxabe zestoarra.

Garaiko eliz agintariek eta inaugurazio ofiziala 1961eko San Inazio egunean izan bazen ere, Loiola Irratiaren lehen saioak urte bereko otsailaren 11n aireratu ziren. Irratiko esatari lanetan trebatzen aritu ondoren, azkenean iritsi zen zuzeneko irratisaioen ordua. Loiola Irratiko lehen egun hartan entzun ahal izan ziren ahotsen artean zegoen Imanol Eliasena. Zorion agurren tartea egin zuen berak, irrati hartan euskaraz egin zen lehendabizikoa. Euskararen presentzia nahiko mugatua zen hasiera haietan, “pixka bat betetzeko eta herri giroko gauza batzuk esateko erabiltzen zen, orduan dena zainduta zegoen eta. Beno, garai hartan ez euskaraz eta ez erdaraz, ez zegoen gauza handirik



Ezkerretik, Carmelo Otaegi, Maritxu Martinez, Marilo Azkune, Maria Jesus Garijo eta Maite Quintana irratiko langileak, eta Font y Andreu Donostiako gotzaina, 1961eko San Inazio egunez, Loiola Irratiaren inaugurazio ofizialean. Imanol Elias ordurako utzita zegoen irratia. / **CARMELO OTAEGI**

esaterik”, dio Imanolek, baina bere partehartze gehienak euskaraz izaten ziren. “Imanolek euskaraz aritzeko erraztasun handia erakusten zuen, garai hartan nik baino askoz handiagoa”, dio Carmelo Otaegik.

Horrela bada, Loiola Irratiko lehen hilabete haietan arratsaldeetan han joaten ziren Carmelo eta Imanol, Institututik irtenda, irratira. Imanol ez zen, ordea, esatari lanetan eroso sentitzen. “Gogoratzen dut Verduk nola esaten zidan: *‘Tienes que abrir menos la boca, para pronunciar no hace falta abrir tanto la boca’*. Nik ez dakit ba zer-nola zabalduko nuen ahoa... Ezin nintzen hartara jarri, moztu egiten nintzen”. Otaegik ez zekien Imanolen estuasunak irratiko zuzendariaren komentarioekin lotuta zeude-

nik, baina konturatzen zen bere lankidea ez zebilela gustura. “Egun batean, Institututik ia arrastaka eram behar izan nuen. Loiolara iritsi ginen eta San Inazioaren estatua dagoen parera iritsi ginenean, ‘ni ez noak’, esan zidan, eta buelta hartu zuen eta ez zen berriro irratira joan”, kontatzen du Otaegik Imanolek irratian jarraitzeari uko egin zioneko. “Imanol asko estutzen zen, baina nik jarrai zezan animatzen nuen, ondo aritzen zela iruditzen zitzaidan eta. Baina berak horretarako ez zuela balio esaten zuen. Niri, berriz, segitu izan balu, irrati gizon ona izatera iritsiko zela iruditzen zitzaidan”.

Dena dela, Imanolen eta Loiola Irratiaren harremana ez zen hor amaitu. 1962an, *Andre-gizonak* irratsaioa ematen hasi ziren Loiolan. Saio haiek berehala bihurtu ziren entzuleen gustukoak, eta Imanolek idatzitako *sketch* laburrek osatzen zituzten saioak. “Eguneroko bizitzako pasarteetan oinarritzen ziren, baina beti ere umore ukitu handiarekin”, dio Carmelo Otaegik. Itziar Sagarzazuk eta Otaegik berak antzezten zituzten *Andre-gizonak*-en saioak. Imanolek irratsaio horiekin ekindako bide arrakastatsuari Joxe Mari Iriondok eman zion jarraipena, honek jarraitu baitzuen gidoiak idazten Imanolek 1962ko bukaera aldera egiteari utzi zionean. Beranduago, berriz, Loiola Irratirako berriemaile lanetan ere ibili zen Imanol; Azpeitiko eta Azkoitiko berriak bildu eta astean behin egiten zuen kolaborazioa. Berak esan beharrekoa grabatu egiten zen, gero larunbatetan irratitik emateko.

Loiola Irratikoak bukatuta ere ez zen eten Imanol Eliasen eta irratiaren arteko lotura, 1961

aldean bizi zuen hasierako esperientzia hura gaindita zuen seinale. Izan ere, azkeneko hamasei urteetan, 1986an hasita, asteazkenero hamar-hambost minutuko saioa egiten du Arrate Irratian, “dagoen berri kopuruaren arabera”, Azpeitiko eta inguruko albisteak emanez.

Antzerkia eta irratia uztartuz, berriz, *Andre-gizonak*-en ondoren beste hiru irratsaioetarako testuak idatzi ditu Imanolek. Lehendabizikoak, *Ziprintinak* izenekoak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin sortu zituen 1987an, baina ez ziren inoiz irrati bidez zabaldu. Bai, ordea, urte berean sortutako *Zirikadak*. Antxieta Antzerki Taldearen eskutik eman ziren irratsaio horiek bai Loiola Irratian eta bai Arrate Irratian. 1990ean, berriz, Imanolek idatzitako *Aupa, aupa!* izeneko irratsaioak hasi ziren ematen Arrate Irratian, Itziar Oiarzabal emazteak, Juanito Bikendik eta Aloña Oiarzabalek antzeztuta.

Kontuak kontu, bere literatur sormenaren pizkundea ekarri zion 1960ko hamarkadaren ondoren, inoiz ez dio idazteari utzi Imanol Eliasek, eta era guztietako idazlanak plazaratzeko gaitasuna azaldu du gainera, bere-bereak dituen jakin-mina eta adierazi beharra uztartuz. Hurrengo hamarkadan ere, 1970ean, hainbat idazlan plazaratu zituen, herrigintzan eta politikan urrats sakonagoak ematen hasi zen heinean. ■



# 4. *Historia idatziz eta eginez*

**A**ntzerkian, kazetaritzan eta poesian egindako lanek laster beste genero batekoekin bat egin zuten, eta gero eta luzeagoa zen Imanol Eliasen idazle kurrikuluma. 1970ean, bere lehen antzerkigile aroa itxi zuen *Nor errudun?*-ekin. Urte berean, sasoi hartatik aurrera maiz landu duen historiagintzari ateak ireki zizkion, *Azpeitia y sus hombres* liburuarekin. Eskolan hain gustukoa ez zuen historiarekin harremana berreskuratu ondoren, artxibategietan datu bilatzen eta biltzen aritzea ohitura bilakatu zitzaion Imanoli. Harrezkero, galdu ez duen ohitura eta afizioa izan da, 1970eko hamarkadan bertan eta ondorengoetan ere idazle jardueran tarte zabala merezi izan duten lanen oinarria.

Historiagintzan ez ezik, herrigintzan ere buru-belarri zebilen Imanol Elias 1970eko hamarkada

hartan. 1974an, Silvestre Otamendi alkatea buru zuen Azpeitiko Udalean zinegotzi lanetan sartu zen Imanol, beste zenbait lagunekin batera. Frankismoaren ondorengo garaia eta horrekin egon zitezkeen aldaketak iristeko oraindik urte batzuk gelditzen ziren, baina Euskal Herriko zenbait udaletxeetan irekitasun handiago baten aldeko pausoak eman nahian zebilen jenderik ez zen falta. Azpeitiko kasuan, urte haietan udalaren eta herriko taldeen arteko zubi lanak eginez, herria piztu zuten ekintzak aurrera eramateko balio izan zuen esperientzia bategi argia ikusi zuen. Hain zuzen, Erri-Zale zen bere izena, eta Imanol Eliasi oroitzapen politak dakartzkio. Franco diktadorearen garaiko udal hartan eginiko lanen artean gogokoenetakoa izan zen beretzat, zalantzarik gabe, Erri-Zale.

Baina ez bakarra, Espainiako diktadorearen heriotzaren aurreko eta ondorengo lehen urteetako udal talde hura osatzen zuten lagunei beste hainbat une historikoren lekuko eta partaide izatea egokitu zitzaielako.

## ***Historian “txar-txarra” zen***

Antzerkirako zaletasuna gaztetan modu naturalean sortu eta Bilbon ikasketak egiten ari zela indartu bazitzaion, historiarekin lotutako kontuekin gauzak nahiko bestelakoak izan ziren Imanol Eliasentzat. Izan ere, historia, eskolako gai gisa behinik behin eta han ikasitakoaren arabera, ez zitzaion batere gustatzen. “Historian txar-txarra nintzen ikastetxean ibili nintzenean, gustatzen ez zitzaidan gauza bat





Imanol, Silvestre Otamendi, Aita Lasa eta DAKMeko Olano jauna  
'Curiosidades históricas de Beizama...' liburuaren aurkezpenan, 1976an.  
/ IMANOL ELIAS

zen. Eskolan urtearen amaierarako ez nuen ezer gainditu gabe uzten, baina urtean zeharreko azterketatan zerbait uzten banuen, hor tartean seguru Historia egongo zela. Ez zitzaidan gustatzen, edo ez nuen ulertzen... Ez zidan behintzat, atentziorik ematen”.

Historiaren esparruko idazlanetara bere herri maitasunak bideratu zuela esatea gehiegizkoa izango da agian, baina ez guztiz okerra. Imanolen historia gaiko lehen lan aipagarria, *Azpeitia y sus hombres* (1970) izan zen eta Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak (DAKM) deituriko *Pueblos Guipuzcoanos* lehiaketara aurkezteko idatzi zuen. Formula horren bidez, Gipuzkoako historia herriz herri jasoko

zuen bilduma antzeko bat osatzea zen antolatzaileen helburua eta, bide batez, herri bakoitzaren historiari buruz aurkezten zen lanik onena saritzea. Lehiaketaren deialdiaren berri izan zuenean, Azpeitiari eta bere historiari buruz zerbait egin zezakeela pentsatu zuen Imanol Eliasek. Pentsatu, eta egin. “Azpeitiari buruz zerbait idazteko aukera bat zen, eta neuk zergatik ez nuen egingo pentsatu nuen. Lanetik etxeratzen nintzenean, idazten hasi eta ez nintzen gelditzen, eta gauez ere segi idazten. ‘Egin behar diat ba’, esaten nion neure buruari, egoskortu nintzen eta halaxe bukatu nuen behintzat. Lan txiki-txiki bat egin nuen gainera, ez zen gauza handia eta”. *Azpeitia y sus hombres* horri esker, DAKMren lehiaketan saria irabazi zuen Imanolek. Ez zen lan luzea izan, berak dioen moduan, baina bai Imanoli historiaren inguruan eta antzinako dokumentu zaharrek gorde zitzaireten altxorren bueltan interes bizia sortzeko balio izan ziona.

*Pueblos Guipuzcoanos* lehiaketaren lehen deialdia egin eta urte batzuetara esperientzia hura berreskuratzea erabaki zuen DAKMek, hasierako deialdi hartan lanik eskaini ez zitzairen herriei eta bailareei buruzko aleak argitaratuz, Gipuzkoako herriz herriko historia osatzeko eta biribiltzeko. Bigarren deialdi horri ere erantzutea erabaki zuen Imanol Eliasek eta, bere lantokitik libre gelditzen zitzaizkion ia ordu guztiak horretaraxe eskainiz, *Apuntes históricos de Albiztur, Régil, Beizama, Santa Marina y Urquizu* lana aurkeztu zuen lehiaketara. 1975ean argitaratu zioten, horrekin ere lehiaketako saria eskuratu baitzuen. Hurrengo urtean,

berriz, 1976an, *Curiosidades históricas de Beizama, Urrestilla y Machinventa* liburua argitaratu zion DAKMek sail berean. Azpeitiko eta inguruetao arxibo guztiak miatzen emandako orduen hirugarren eta azken fruitu horrek ez zuen lortu, bere aurreko biek bezala, lehiaketaren lehen saria, baina bai akzesita; Matxinbentako Aita Lasa frantziskotarrak gai berari buruz idatzitako lan bati eman zioten orduan sari nagusia. Imanolek aurkezturiko lana aurrekoen neurri beretsukoa zen, lehiaketan bertan eskatzen zuten orrialde kopuru jakin baten ingurukoa. Aita Lasa zenak, berriz, dezentez lan mardulagoa aurkeztu zuen, aipatutako neurri horiek gaindituz, baina osatuagoa noski, eta DAKMekoek saria Lasari ematea erabaki zuten.

Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren historia liburuxken ekimenak, dena dela, arrakasta handia izan zuen, eta argitaratutako ale guztiak laster batean agortu ziren kasu askotan. Horixe bera gertatu zen Imanol Eliasek Azpeitiari buruz idatzitako lehen lan harekin. Jendearen erantzunaz jabetuta, lehen liburuxka hartakoak osatuz bere herriaren historiaren inguruan tankerako beste bat idazteko ere agindu zioten aurrezki kutxako arduradunek Imanoli. Honek idatzi, idatzi egin zuen, baina lan osagarri horrek ez zuen sekula argirik ikusi.

## ***Fraideen eta apaizen kolaborazioa...***

Azpeitiko eta inguruetao herrietako historia bildu eta jakinarazi asmoz egindako liburuxka horiek gauzatzean hasi zen Imanol Elias kasu askotan histo-

rialarien lanak zekartzan zailtasunez jabetzen. Toki batzutan dokumentu baliotsuak falta zirelako, beste batzutan egoera kaskarrean gordetzen zirelako, edota artxibategien ardura zutenek mesfidantza handiegia erakusten zutelako, datuak topatzea eta jasotzea ez zen beti lan samurra izaten.

Lehiaketaren beraren berezitasunagatik, gainera, DAKMek herriak eta bailarak proposatzen zituen, eta nahi zuen edonork zeukan horietako bati buruzko lanak aurkezteko aukera. Beizama, Urrestilla eta Matxinbentako lanaren kasuan, Aita Lasak eta Imanol Eliasek bat egin zuten euren helburuetan, eta horrek ere sortu zizkion ustekabeko oztopoak Imanoli. “Apaizekin eta fraideekin topo eginez gero —kontatzen du berak—, horrelakoak gertatzen dira. Urrestillara joan eta hango paperez galdezka hasi nintzenean, ‘Aita Lasak eraman ditu’ erantzun zidaten. Azpeitiko Frantziskanen komentura joan nintzen, eta sartzen ere ez zidaten utzi; liburuak fraideek Arantzazura eramanda zeuzkaten... Horrelakoekin egiten duzu topo”. Lantegi horietan hasi berria izan eta ezezaguna izateak halako errezeloak sortzen zituen, nonbait, dokumentuen ardura zutenengan, baina traba horiek ez zuten Imanol atzera botatzen. Larunbatak eta igandeak aprobetxatzen zituen dokumentazioa bilatzeko, astegunetan lanak ez zion-eta horretarako aukerarik uzten. Normalean bakarrik egiten zituen bere artxibategietarako bueltak, baina gogoan dauka behin Beizamara Itziar emazteak lagundu zionekoa. “Larunbatero eta igandero hara eta hona ibiltzen nintzen, eta igande batean emazteak lagundu egin behar zidala erabaki

zuen. Han ibili ginen, paper artean eta. Haren gogoia erreka zulora joan eta eskuak garbitzeko! Ezin zuen aguantatu. Niri, berriz, berdin zitzaidan”. Hala-moduz gordetako paper zaharren hautsaren eraginak.

Bisitatzen zituen eliz eta udal artxibategietan baimena eskuratzea izaten zen lehendabiziko egin-beharra. Ondoren, agirien artean begira eta bila ibili ahal izateko askatasuna edukitzea izaten zen kontua. “Goiatzen —gogoratzen du Imanolek—, apaiza meza ematera irteten zen eta orduan bakarrik uzten ninduen. Egoera hura aprobeztatzen nuen dena astintzeko eta erregistratzeko. Baina apaiza bertan gelditzen bazitzaidan... Horrelakoetan, joandakoan zerbait bilatzea nahi izaten duzu. Fraideekin-eta fidatzen dira, baina bestela... Egundoko aldea dago, ez dago sinesterik”.

Informazioa bilatzerakoan antzeko oztopoak aurkitzen zituen, beraz, Imanolek, baina bestelako lagunekin ere egin zuen topo urte haietan. Oraindik Azkoitiko Acerías y Forjasen egiten zuen lan, eta enpresaren historiari buruzko lan bat egitea agindu zioten. Enpresa hori gerora Azkoitira etorrita baze- goen ere, berez Oñatin sortutakoa zen; zeharo aspalditik zetorrena gainera, XV. mendetik, hain zuzen ere, Zubillaga izenarekin eta deitura bereko auzoan, eta Oñatiko Kondea zen jabea. Hori zela eta, Oñatiko artxibategian ordu asko sartu behar izan zituen Imanol Eliasek, eta beste artxibategietan eta antzekoetan ez bezala, bere lanerako ederki asko etorri zitzaion konfiantza erakutsi zion hango apaiz arduradunak. “Aurreneko aldiz ezagutu ninduenean

—dio Imanolek—, berak irekitzen zidan atea eta berak itxi. Azkenerako, ordea, giltzak neuri ematen zizkidan, alde egiterakoan buzoian uzteko eskatuz. Askotan bazkaltzera ere ez nintzen ateratzen; otarteko bat eramaten nuen, zahatoan ardo pixka bat, eta bertan jaten nuen. Izan ere, irtetea denbora galtzea zen”.

Artxibategi hartan igarotako ordu luzeek bere fruitua eman zuten, “oso lan polita, gainera”, Imanolen beraren esanetan, baina azkenean Forjasekoek ez zuten ezer argitaratu. Hala ere, Oñatin artxibategian murgilduta pasatu zituen ordu luzeak “erabateko gozamina” izan ziren Imanolentzat. Bere lantegiak bidalita eta haiek ordainduta, lana gustura egiteko aukera izan zuen.

## ***Azpeitiko katuak eta arkakusoak***

Azpeitiko udaletxeko artxibategian ere garai hartan egin zituen lehendabiziko sartu-irtenak, baita bertako egoera kaskarraren ondorioak jasan ere. Izan ere, gaur egun informatizatuta eta askoz egokiago antolatuta dagoen artxibategiarekin zerikusi txikia zeukan toki umela, zikina eta utzitakoa zen Azpeitiko Udal Artxibategia urte haietan. Baita geroxeago ere, 1997an argitaratu zen *Azpeitia Historian zehar* erako lanean aritu zenean ere hala-moduzko baldintzatan aritzea tokatu baitzitzaion Imanoli. 1960ko hamarkada bukaerara itzulita, ordea, artxibategiaren egoera benetan beldurgarria zen, Imanolek kontatzen duenaren arabera. “Askotan leihoak irekita egoten ziren. Sareak zituzten haiek bere garaian,



Azpeitiko Udal Arxibategia, gaur egun. Imanol Eliasek makina bat ordu pasatu ditu bertan, eta ezagutu zuenean oso egoera kaskarrean omen zegoen. / IÑAKI URANGA

baina ordurako sare zuloak ziren. Katuak ibiltzen ziren eta batzutan atzera botatzeko moduko usaina egoten zen”. Katuak sartu-irtenean zirela, xaguekin eta arratoiekin topo egiteko aukerak murriztu egiten ziren behintzat...

Baina, hain justu, katuekin zuzeneko harremana zeukaten beste *maizter* batzuekin oso bestelako kontuak ezagutu zituen Imanolek. Hala, artxibategira eginiko bisitaldietako batean, bere garaian iragarriki taula gisa erabilitako bat aurkitu zuen, oihal berde batekin tapizatua. Tresna egokia iruditu zitzaion, liburuak taularen gainean jarri eta bere lana modu

erosoagoan egin ahal izateko. Baina taulak ezuste-ko *oparia* zeukan. “Neuk sentitzen nuen, ttak, ttak, ttak, besoetan zerbait. Zer izango eta arkakusoak! Neuk ikusten nituen besoetan saltoka. Oihal berdea josita zegoen”, dio, une hartako “azkura eta nazka ikara” gogoratzean.

Aurrezi kutxaren deialdiei erantzunez egindako hiru liburuxka haiekin sartu zen Imanol Elias historiariagintzaren barrenetan. Hasierako haietan bezala ondoren argitaratzen joan den lanetan ere, azpeitiarraren ikerketa eremua beti Azpeitian eta berau kokatzen den ingurune geografikoan egon da, bere herriarekin duen haustezinezko loturaren eta erakarpenaren adierazle.

1981ean ezagutarazi zuen bere laugarren historia lana. *Juan Antxieta. Apuntes históricos* izenburua zeraman, eta argitaratzaile lanak bete zituen Kutxaren aginduz idatzi zuen.

## ***Zezenez ere bai, gehiegi gustatu gabe***

Ondorengo bi liburuek, berriz, elkar lotzen zituen beste berezitasun bat zeukaten, biak ere zezenketen ingurukoak izan zirelako. Lehendabizikoan, *Guía histórica y taurina de Azpeitia* (1986), herriko historiaren daturik esanguratsuenak osatuz agertzen ziren zezenei buruzko erreferentziak. Bestea *El toro, símbolo de fiesta en Gipuzkoa* (1994) izan zen, eta hor jadanik zezenketek eta hauekiko zaletasunak gure inguruan dituzten erroak eta ohiturak landu zituen Imanolek. Bi liburu horiek Azpeitiko Udalak argitaratu zituen, bigarrenean Azpeitiko Zezenzale





Elkartearekin (AZE) batera. Azpeitiko herria betidanik egon da, izan ere, zezenzaletasunarekin lotuta eta horrela jarraitzen du, bai festatan kalera ateratzen den sokamuturrarekin, bai Saninazioetan zezen-plazan egiten diren zezenketekin.

Bere herriko nortasunari hain itsatsita agertzen den ezaugarri hori adierazteko modu bat izan ziren, nolabait, zezenketaren eta zezenzaletasunaren inguruan idatzitako bi liburuok, Azpeitiak zezenekin duen aspaldiko lotura horren sustriak bilatuz eta ondorengo garapena azalduz, eta, oro har, Gipuzkoako jaietan zezenek historian zehar izan duten presentzia aztertuz. Imanolek berak, izan ere, bere burua ez dauka oso zezenzaletzat. “Niri giroa gustatzen zait, zezen-plazako giroa. Kalekoa ederra da, hemen sokamuturrean ibiltzea eta, baina ni neu ez naiz ibiltzen. Kalekoa gustatzen zait, baina pixka bat urrutitik ikusteko”. Berari deigarriena egiten zaiona,

ordea, “Azpeitian bizi den zezen giro hori da, igual beste herri askok ez dutena”, eta hori azaltzea zen bere nahia liburu horiek idazterakoan.

## ***Udaletxean zinegotzi...***

1970. hamarkadako aurreneko urteetara itzuliz, Francoren diktaduraren azkeneko urteak ziren eta Imanol Elias berak ordu arte ezagutzen ez zuen esperientzia berri batean murgildu zen, Azpeitiko Udaleko zinegotzi bihurtu baitzen. Silvestre Ota-mendi alkatetzan zela, 1974ko otsailaren 3an esku-ratu zuen zinegotzi kargua Imanolek. Demokrazia-ren garaia iristeko urte batzuk falta ziren oraindik eta, noski, udalen osaketa, eta ez beste erakundee-na ere, ez zuten hauteskundeen bidez herritarrek erabakitzen. Frankismoaren garaian udal korpora-zioak, *tercios* izena hartzen zuten hiru zutabetan oinarrituta osatzen ziren. Hauek *Tercio familiar*, *Tercio sindical eta Tercio de entidades económicas, culturales y profesionales* deiturikoak ziren. Imanol bera, Manuel Altuna *Kanpaxa* eta Estanis Iriarte *Sarralle*-rekin batera, *Tercio familiar* zeritzonaren ordezkari gisa iritsi zen Azpeitiko udaletxera.

Manuel Altuna *Kanpaxa*-k, esan bezala, Imanolekin batera bizi izan zuen zinegotzi kargu hartzea. Bere esanetan, nahiko garai berezia izan zen hura, halako proiektu berriztatzaile bat bultzatzea nahi izan baitzen. “Udala herriari zabaltzea nahi izan zen”, dio Kanpaxak, ordu arte herritarrentzat nahiko itxita egoten ziren udaletxeko ateak irekitzeko asmo hura azaltzeko. Korporaziora iristeko bide-



1974ko korporazioa. Zutik: I. Uranga, J. Aizpuru, A. Irigoien (idazkaria), L. Soraluze, A. Prat, M. Altuna, T. Bereziartua, E. Iriarte, J. Arakistain. Eserita: T. Olaizola, S. Otamendi, I. Urkia eta R. Larrañaga. / IMANOL ELIAS



Imanol, Silvestre Otamendi, Aita Villasante eta Agustín Prat, besteak beste, udalak 1975ean Karmelo Etxegarairi egindako omenaldian. / IMANOL ELIAS

ari dagokionez, *Tercio familiar* izeneko hura aukeratzearen arrazoiak ere argitzen ditu Kanpaxak: "Guk ez genuen nahi izan sindikatu bidez sartzerik, sindi-

kalistak ere ez ginelako, ezta *entidades* bezala eza-gutzen genituenetatik sartzetik ere. Horiek, nolabait esateko, erregimenarekin lotuta baleude bezala izaten ziren. Gu *Tercio familiar*-etik aurkeztu ginen. Beno, aurkeztu, esate baterako, beste inor ez baitzen aurkezten eta, orduan, bozketarik ere ez zen egiten, berez horretarako aukera ematen zuen *tercio* bakarra izan arren. Aurkeztuz gero, Francorekin lotzen zintuzten. Baina gu aurretik hitz eginda geunden udala herriari irekitzeaz. Baita Festetako Batzordean sartuko ginena ere, kultura arloan-eta mugitzeko, eta horrelaxe aurkeztu ginen”.

Imanolekin, Manuel Altunarekin eta Estanis Iriarterekin batera Ignacio Uranga *Antzi*-k, Joxe Aizpuru *Txato*-k, Lorenzo Soraluzek, Agustin Pratek, Tomas Bereziartuak, Javier Arakistainek, Tomas Olaizola *Lepaso*-k, Iñaki Urkiak eta Rafael Larrañaga *Txortena*-k osatzen zuten garai hartako udal korporazioa, Silvestre Otamendi alkate zela.

### ***...eta Erri-Zalen presidente***

Udalaren neurri bateko irekiera jarreraren eredueta-ko bat Erri-Zale izan zen. 1950eko hamarkadaren erdialdetik herrian kultura eta festa inguruko ekin-tzen pisu handi bat bere gain hartu zuen Oargik eta hau desegiteko agindua eman zuen 1971ko irailean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, eta Azpeitiko Udalak aho batez onartu zuen agindu hori betetze-ko agindua urte bereko azaroaren 18an eginiko osoko bilkuran. Azpeitian nola edo hala bete beharreko hutsune nabarmena sortu zen, eta, bestek



Miguel Bereziartua 'Miel Olarte' sariarekin eta Imanol Elias, Erri-Zalek 1974ko Santo Tomasetan egindako bakailao lehiaketan. / IMANOL ELIAS

beste, hori bete asmoz eta Oargikoen lanari jarraipena eman nahian jaio zen 1974an Erri-Zale. Udaletxeko zinegotzi batzuk eta herriko elkarteek osatzen zuten Erri-Zale. Udaletxeko ordezkariak, hain zuzen ere, Estanis Iriarte *Sarralle*, Manuel Altuna *Kanpaxa* eta Imanol Elias ziren. Imanol, gainera, elkarte berriko presidentea zen. Oroitzapen onak gordetzen ditu Erri-Zaleren garai hartatik. "Oargiren segizio bat bezala izan zen —azaltzen du Imanolek—, baina udala ere hor sartuta zegoenez, zerbait lortzeko erraztasun handiagoa zeukan zerbait eskatu edo antolatu behar zenean". Manuel

Altuna *Kanpaxa*-rentzat ere ekimen baliotsua izan zen Erri-Zalerena: “Oso jende ona elkartu ginen, herriaren alde lan egitea nahi genuenak”. Erri-Zalen elkartzen ziren, besteak beste, Maria Jesus Bastida, Kepa Ibarzabal, Andoni Albizuri *Katxo*, Maria Jesus Arregi, Mikel Larrañaga *Enbortxo*, Jesus Larrañaga *Kaminburu* eta Patxi Etxaniz.

Erri-Zalerena ez zen iraupen luzeko proiektua izan, bizpahiru urtez luzatu zelako, baina martxan izan zen bitartean hainbat ekintza bultzatzeko eta antolatzeko gai izan zen. “Gauza xume baina politak” egin zituzten, Imanol Eliasen esanetan. Herriko festatan Oargiren tokia nolabait hartuz egiten zituzten ekitaldiak ahaztu gabe —Sansebastianetako haurren danborrada, adibidez—, Erri-Zaleren bidez antolatutakoen artean aipagarriak izan ziren Txokolotar txistulariei, Bixente Beloki, Joxe Arruti *Xulogile* eta Felix Epelderi, eta Gipuzkoako Diputazioko buru izandako Perez Arregi eta Elorza azpeitiarrei eskaini zitzaizkien omenaldiak. Beloki Azpeitian abesbatzan urte luzez aritutako tenorea zen, Arruti lurperatzailea eta Epelde parrokiako sakristaua. Txokolotarrak omentzeko, nola ez, Euskal Herri osoko hainbat txistulari elkartu ziren Azpeitian. Belokiren, Arrutiren eta Epelderen omenaldirako, berriz, Arrasateko abesbatza ekarri zuten meza nagusira, eta ondoren omenaldi ekitaldia egin zen udaletxean. “Denetariko” taldeak elkartzen ziren Erri-Zalen, eta kezkak eta proposamenak ere “era guztietakoak” izaten ziren. “Erri-Zale aproba bat izan zen —dio Imanolek—. Oso ondo hasi zen, lan dezente egin genuen. Gero, ordea, taldeak sakabana-



Imanol, Bixente Beloki, Felix Epelde eta Joxe Arruti 'Xuloqile' udaletxeko balkoian, 1974ko ekainaren 23an azken hiru gizon horiei Eri-Zalek eskainitako omenaldi ekitaldian. / IMANOL ELIAS

tzen joan ziren. Hasiera batean kanpoan gelditu zen beste jende bat azaldu bileratara eta hau eta bestea egin behar zela esaten hasi ziren, gero udaletxeak bere atea itxi egin zituen, eta horrelaxe desegin zen taldea”.

## ***Angel Otaegi ez hiltzeko eskaera***

Francoren garaiko Azpeitiko Udaleko azken talde hari diktaduraren amaierako eta ondorengo urteetako une historiko zailak eta garrantzitsuak bizitzea egokitu zitzaion. Zailak eta garrantzitsuak izan ziren, bai, urte haiek, gertaera latzak eta hunkigarriak bata bestearen atzetik gertatzen zirelako, eta horietako batzuk oso gertutik ukitu zuten, gainera, Imanol Elias. Esate baterako, Angel Otaegi nuarbetarrari ezarri zioten heriotza zigorra eta fusilamendua. Otaegi 1974ko azaroaren 18an atxilotu zuten, urte berean apirilaren 3an Gregorio Posadas guardia zibilaren hilketan parte hartu izanaren akusaziopean. 1975eko abuztuaren 29ean, Castillo del Valen (Burgos, Espainia) egindako gerra kontseiluan heriotza zigorra ezarri zioten, eta fusilatuta hil zuten hilabete baino lehen: 1975eko irailaren 27an.

Bi hilabete ondoren hil zen Francoren diktadura ankerraren azkeneko erakusle nagusietakoa izan zen gertaera hark izan zuen munduan oihartzunik; zeresanik ez Euskal Herrian eta, jakina, Otaegiren auzoan, Nuarben. Heriotza zigorraren berri jakin zutenean, Azpeitiko udaletxeko lau zinegotzik erabaki hori atzera botatzeko eskatu zuen mozioa aurkeztu zuten. Manuel Altuna *Kanpaxa*, Rafael Larrañaga *Txortena*, Lorenzo Soraluze eta Imanol Elias izan ziren mozioa aurkezteko erabakia hartu zutenak, eta udalbatzarreko osoko bilkuran mozioa aurrera atera zen. Garai hartarako, Kanpaxaren hitzetan, udalaren aldetik “oso jarrera gogorra” izan zen erabaki hura. “Gobernadore zibilak —gogora-





Institutuko futbol taldea. Zutik: Inazio Usabiaga, Angel Otaegi, Joxe Antonio Enparan, Imanol irakaslea, Rafael Azkue, Eusebio Aqote eta Juan Mari Ucin. Behean: Jesus Aranburu, Luis Mari Galdos, Imanol Zinkunegi, Julian Alonso eta Joxe Luis Elustondo. / IMANOL ELIAS


tzen du Kanpaxak— Silvestre Otamendi zenari telefonotik deitu zion, hari halako akordiorik ez bidaltzeko esanez. Silvestrek, ordea, akordioa hartuta zegoela eta bidali egingo ziola erantzun zion, gero berak ikusiko zuela zer egin. Erraz esaten da, eh, Francoren denboran!...”. Argi dago, baina, Azpeitiko Udalaren eskaerak ez zuela nahi bezalako erantzunik jaso.

Angel Otaegiren hilketak gertutik ukitzen zuen Imanol Elias. Izan ere, nuarbetarra bere ikaslea izan zen Azpeitian, Institutu Laboralean; ikasle bezain lagun izan zituen lehendabiziko promozio hartakoa, gainera. Imanol bera *Curiosidades históricas de Beizama, Urrestilla y Machinventa* libururako informazio bila ibili zenean, bere ikasle ohi Otaegiren laguntza jaso zuen, berau Nuarbekoa izanik, aztertu

beharreko bazterrak Imanolek baino askoz hobeto ezagutzen baitzituen. Eta hara nondik, nuarbetarrak ez zuen inoiz irakurriko bera hil eta hurrengo urtean (1976) argitaratu zen liburu hori. “Angel oso mutil alaia zen, txistosoa —gogoratzen du Imanolek—. Garai hartan, beste asko bezala, gizajoa eskolan gaizki ibiltzen zen. Nuarbetik inoiz irtengabea izango zen eta hari gauzak erdaraz azaltzea alferrik zen”.

Angel Otaegirenak ez ezik, honen ama Mariaren oroitzapenak bereziki gordeta dauzka Imanol Eliasek. Institutu Laboralean semearen irakasle zen garaian ezagutu zuen Imanolek Maria, eta harrezkero benetako amistadea izatera iritsi ziren. “As-teartetan azokara etortzen zenean-eta ikusten genuen elkar —dio Imanolek Mariari buruz—. Gure mutil koskor hori [Asier ilobagatik dio] bere semea bezalaxe hartzen zuen; Egaña gozotegira eraman eta pastela ematen zion”. Angel Otaegi Burgosen kondenatuta zegoela, Nuarbeko etxera bisitan joan zitzaizkion behin Maria Otaegiri Imanol eta bere emazte Itziar. Bisita hura gogoratzean oraindik ere seko hunkitzen da Imanol Elias: “Han geunden sukaldean, eta Garmendiaren ama etorri zen. Honen semea ere kartzelan zegoela uste dut, bu-ruan zartadaren bat emanda. Espektakulu hura, bataren semea kondenatuta eta bestearena ere antzeko, egundokoak hartuta zegoen eta... Hura etorri zenean, guri alde egitea tokatu zitzaigun, baina bi emakume haiek hala ikusteak halako zera bat egin zidan barruan”.

1975eko azaroaren 20an Franco hil zen, eta



Bergarako plaza eta udaletxea, 1976ko uztailaren 21ean. Jendetza bildu zen Euskal Herriko 69 udalek foruak aldarrikatuz egin zuten ekitaldira.

bere diktaduraren aztarnek sortzailearekin batera joateko presarik hartu ez zuten arren, aro berri bati hasiera eman zitzaion orduan.

## **1976. Bergara. “Hemen zerbait bazetorrek”**

Demokraziarako trantsizioa egin nahi zen garai hartan, aparteko esanahia eta garrantzia izan zituen ekitaldi batean parte hartzeko aukera izan zuen Imanolek, 1976ko uztailaren 21ean, Bergaran (Gipuzkoa). Ekitaldiaren sustraiak, ordea, urtebete lehenagotik zetozen. Madrildik alkateen aukeraketa sisteman aldaketa garrantzitsua ekarri zuen lege berri bat etorri zen. Lege horren arabera, eta ordu arte ez bezala, kopuru jakin bat baino biztanle gehiago zituzten herrietan aurrerantzean zinegotziek zuten alkatea aukeratzeko eskubidea. Sistema

berri hori aplikatuz joan ziren udalak, batik bat Gipuzkoan, eta horren ondorioz egoera berri bati ateak zabaldu zitzaizkion. Izan ere, herri askotan alkate abertzaleak izendatu zituzten.

Udaletan gertatzen ari ziren aldaketen atzean, besteak beste Bergarako Jose Luis Elkorok, Zarauzko Imanol Muruak, Hernaniko Inazio Iruinek eta Oiartzungo Iñaki Aristizabalek osatzen zuten taldea zegoen —laurak ere gipuzkoarrak—, eta prozesu hori prestatzeko Arantzazun bilerak egiten zituen. 1976ko martxoaren bukaeran, Elkorok abertzalea Bergarako alkatetzara iritsi berria zela, Bergarako Udalak gutun bat igorri zion Juan Carlos I.a Espainiako erregeari. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa euskal probintzietan 1876ko uztailaren 21eko legeak ezereztatu zituen foruak itzultzeko, eta 1931an Lizarran (Nafarroa) euskal udalerriek onartu zuten Autonomia Estatutuaren antzeko proiektua martxan jartzeko eskatzen zuen gutunean Bergarako Udalak. Hego Euskal Herriko probintziek foruak galdu zituzteneko mendeurrena gainean zen, eta data hori gogoratuz idatzi zen aipatutako gutuna.

Giro horretan, Alkateen Taldea herriz herri bilerak antolatzen joan zen, udalak demokratizatu behar diren premia nabarmenduz, eta presioaren beharra aldarrikatuz. Alkate batzuek kargua utzi egin zuten eta besteek bat egin zuten Alkateen Taldearekin. Azpeitian, 1972tik alkate zen Silvestre Otamendik 1977ko ekainaren 3an eman zuen dimisioa. Bere lehen ordezkoa Agustin Prat zen eta behin-behinean hartu zuen kargua, eta, garai hartako bilkura aktei kasu eginez gero, egoera horretan jarraitu



Bergarako bilkura. Argazkiaren ezker aldean, Azpeitiko kartelari eusten, Lorenzo Sorluze. Bere atzean Iñaki Urkia agertzen da. / IMANOL ELIAS

zuen 1979an lehen udal demokratikoa sartu zen arte. Azpeitiko Udalak ere hartzen zuen parte Alkateen Taldearen bileratan. Normalean bi ordezkari joaten ziren, “denbora aldetik libre samar ibiltzen ginenak normalean”, Kanpaxak dioenez.

Alkateen eta udal ordezkarien mugimenduaren ekintzarik adierazgarriena 1976ko uztailaren 21ean egin zen, Bergaran, foruen galeraren mendeurrenako egunean, hain zuzen. Bergarako Udalak Euskal Herriko gainontzeko udal guztiak gonbidatu zituen urtemuga hori ospatzeko elkartzera. Horrela, guztira 69 korporaziok hartu zuten parte han prestaturik ziren ekitaldietan. Mezan eta osoko bilkura batean hartu zuten parte hara joandakoek, eta amnistia,

euskara eta Euskal Herriaren etorkizuna erabakitze-ko ahalmena eskatzen zituen agiri bat onartu zuten.

Egun haren aurretik, Azpeitiko udaletxean eginitako beste osoko bilkura batean, herriko korporazioa Bergarako ekitaldietara joatearen aldeko erabakia hartu zen. Eta Azpeitiko udal ordezkariak joan ziren Bergarara, baina ez guztiak. Agustin Prat, Iñaki Urkia, Manuel Altuna *Kanpaxa*, Lorenzo Soraluze, Tomas Bereziartua eta Imanol Elias izan ziren han egon ziren bost udal ordezkari azpeitiarrak. Imanol Eliasi barreneraino iritsi zitzaion Bergaran bizitakoa. “Orduantxe ikusten zen han mugimendu bat, zerbait sortzen ari zela herrian, ikaragarria. ‘Hemen zerbait bazetorrek, eta handia’, pentsatu nuen. Ordu arte ez genuen halakorik ezagutzen, hango jendearen berotasun hura, han esan zirenak... Gauzak beste mar-txa batean zetoze ikusten zen”.

## ***Ikurrina jartzen aurrenetakoak***

Hamarkadako lehendabiziko urteetako gertakizun goibelen ondoren, baikortasunerako eta itxaropene-rako arrazoiak ez ziren falta sasoi hartan. Artean frankismoaren ondorengo lehen hauteskundeak egi-teke zeudela, 1977ko urtarrilaren 18an, euskal he-rritarren eta udalen presioa zela medio, Rodolfo Martin Villa Espainiako ministroak gobernadore zibi-lei agindu zien ikurrinaren aurka ez jotzeko, ikurrina beti ere Espainiako banderarekin batera agertzen baten. Hori zela eta, euskal udalek erabaki zuten urtarrilaren 20an ikurrina jartzea beren udaletxee-

tan. “Azkoitian eta Azpeitian, ordea, egun bat aurreratu ginela uste dut”, dio Imanolek. Bi hauek ez ziren egun hartan atera zuten bakarrak izan, Donostian ere urtarrilaren 19an atera zutelako ikurrina, Konstituzio Plazan, San Sebastian bezpera ospatzen dela eta. Dena den, legeztapenaren ostean Etxarri-Aranazko (Nafarroa) Udala izan zen ikurrina jarri zuen aurrena, Javier Mauleon alkatea buru zela.

Azpeitian festa giro bikainekoa izan ohi da San Sebastian bezpera, baina 1977ko urtarrilaren 19 hura aparteko poztasun eguna izan zen azpeitiar gehienentzat, ilunabarrean azkenean ikurrina udaltxeko balkoitik zintzilika ikusi zutelako. Ikurrina kalean ikusteak min ematen zien frankista asko eta askori, batik bat Manuel Fraga Iribarneri, Franco-rekin Turismo eta Informazioko ministro izandakoari, aurretik gogor esana baitzuen: “Bandera hori [ikurrina] azaltzen utzi baino lehen nire gorpuaren gainetik pasatu beharko dute”. Ba Azpeitiko Udalak azaldu zuen, Imanol Elias bertako kide zela, 1977ko urtarrilaren 19 hartan, Fragaren gorpuaren gainetik pasatu gabe —Espainiakoa ere atera zuten orduan, Azpeitikoarekin batera—.

Ikurrina jartzea erabaki zenean Silvestre Otamendik dagoeneko alkatetza utzita zeukan —artean ez modu ofizialean— eta bere ordeiz Agustin Pratek betetzen zituen behin-behineko alkate lanak. Pratek gazteleraz eta Imanol Eliasek euskaraz, udaletxeko balkoi nagusitik irakurri zuten udalbatzar osoak ikurrina jartzeko hartu zuen erabakiaren testua, behean Azpeitiko Plaza Nagusia betetzen zuten herritarren txalo zaparraden artean.

Hain zuzen, ondoren datorrena da egun hartan Imanolek irakurri zuenaren transkripzioa: “Azpeitiko Udaletxean dan agintari taldeari, Euskal Herri osoak gogozko eta ezaugarri bezala duen ikurriña, guztion jakineko da eta bestaldez gaur egunean diren agintariak eta berdin baita ere kondairan zehar izan diranak ondo dakite horren berri, oraingo ehunkadaren hasieran gure aurrekoen artean sortu zan ezkeroztik berebiziko foru zaletasuna, geroago berriz beste alderditasun bat hartzeko, ontzat hartu zan ikurriña ezaugarri bezala eta Euskal Herriko udaletxe ta Aldundietan zutik izana da, bai kultura erako eginkizunetan, ta baita herriak bere usadioak agertu ditueanean, batez ere berriz fuero alderdiari heldu nahi izan danean. Sinestu ezin daitekeen gogo batek indartuta, isil eta izkutu antzean saiatu dira ordea izan ditugun agintariak gure aldetik betirako zapaltzen ezaugarri hori. Nahiz eta jakinean izan Euskal Herriaren gogo bat ikurrin hori ofizialki ezagutzea izan zala. Alperrik bada ere eginahalak egin dira, nahasketa gogor bat sortzeko ezaugarri horri buruz, bainan erantzun bezala gure herriko kultura elkarteak eta baita ere beste era askotakoak herri osoak bat batez bere ezaugarri bezala ikurriña ontzat hartua du, eta horregatik ahalegindu da zapaltze horren aurkako lanean eguna joan eta eguna etorri iritsirik gaur egunean ikurrin hori Euskal Herri osoak bere gogozko eta begizko izatea. Esan lezakegu gaur, zerbait alde batera utziaz orainarte agintariak izan dituzten erruak ematen duela behintzat demokrazi bidean hasiak direla, eta, nahi dutela hartueman gehiago izatea fueroen bidean eta izanik gogo hoie-





tako bat gure ikurriña ontzat hartzea esan dedan bezala hau ere dalako tokatzen zaigun eskubide bat, beste askoren artean. Horregatik benetan gogozko zait herriko agintari taldeari eskaera berezia egitea, eta hala iruditzen bada behintzat eta ofizialki hartzea ikurriña herriaren izenean, Euskal Herriko ezaugarri bezela eta gure fuero nahia agertuaz eta jarria izan dedila udaletxeko balkoi nagusian, bandera nazionalen eta Azpeitiko herriak duenaren onduan, deituaz herri osoari egin dan bezala une honetan. Hau da, herriko agintari taldeari egiten diodan gogozko nere eskari berezia. 1977. urteko urtarrilaren 19. egunez. Alkateak".

Azpeitiko udaletxe aurrea festa bat zen, txistu-

larien musikarekin eta ekitaldiaren amaieran kanta-  
tu zen *Gernikako arbola*-rekin. Une historiko hunki-  
garri hartan, ordea, Imanol Eliasen sentipenak gazi-  
gozoak ziren. 1972an hil zen Pako Elias *Pako Bar-  
bero* zetorkion gogora, bizi osoan bere herriko uda-  
letxean ikurrina ikustearekin amets egin eta azkene-  
an ametsa bete gabe joan zen bere aita. “Noiz iku-  
siko ote dugu ikurrina hor goian zintzilik?”, horixe  
zen berea, plazatik pasatzerakoan udaletxeko bal-  
koira begiratzen zuenean. Eta azkenean ez zuen  
ikus. Lehengo zaharrei entzunda, hori betiko amets  
bat zuten”, dio Imanolek.

1977ko urtarrilaren 19ko hura emozio askoko  
eguna izan zen beretzat, baita laneko lagun baten  
eskutik etorri zitzaion ezusteko gozoarena ere.  
Forjasen lan-segurtasunaren arduraduna zen garai  
hartan Imanol. Bulegoan, bere aldamenean, Javier  
Otaño egiten zuen lana, pertsonal buruak. Otaño  
karlista zen, “Montejurrara joaten zena eta bere bor-  
ladun katxarroa janzten zuena”, Imanolen hitzetan.  
Baina ikurrina urte luzeetako ezkutalekutik irten eta  
udaletxeko balkoian jarri behar zen egun hartan,  
harri eta zur utzi zuen Imanol bere lankideak. “Esan  
nion egun hartan iluntzean zer neukan, eta urduri  
ikusiko ninduen edo, zeren eta eguerdia baino  
lehen, ‘etorri, goazen hemendik’ esan eta berekin  
eraman ninduen. Lehenengo Getarira (Gipuzkoa)  
eraman ninduen, eta han kristoren bazkaria, bere  
kontura. Gero, Galarreta frontoira eraman ninduen,  
eta hango sarrerak eta abarrak ere berak ordaindu  
zitu. Handik atzera etxera ekarri ninduen, eta  
‘orain nahi duan bezala konpon hadi’ esanda agurtu

zen. Gauzak nola izaten diren”, kontatzen du, harri-tuta eta mirestuta, Imanolek.

1979an, lehenengo udal hauteskundeak egin eta aro berriko aurreneko korporazioa osatu zen Azpeitian ere. Udaleko osoko bilkuren aktatan jasota dagoenaren arabera, urte horretara arte eutsi zion Imanol Eliasek zinegotzi karguari. Berak, ordea, postu hori aurretik utzi zuen irudipena dauka. “Nik dakidana da bilera batetik jaiki eta alde egin nuela. Han esandakoarekin ez netorren bat, lehenagotik beste gauza batzuk esanda zirelako”. Zehaztasun gehiago ematera animatzen ez bada ere, Imanolek onartzen du azkenaldira udal hartako kideen artean zatiketa eta konponezin dezenteak sortu zirela. 1978ko ekainaren 29an egindako osoko bilkuran Manuel Altunak, Lorenzo Soraluzek, Rafael Larrañagak, Inazio Urangak, Imanol Eliasek, Javier Arakistainek eta Estanis Iriartek zinegotzi kargutik euren dimisioa eman zuten, nahiz eta, gertaera horren aktan jasotzen den modura, udaleko idazkariak horrelakorik ezin zutela egin esan: “...*de conformidad con la legislación vigente no se puede dimitir del cargo de concejal al ser este cargo de carácter obligatorio*”. Hortik aurrera Azpeitiko Udala zeharo ahulduta gelditu zen, zinegotzien erdia pasak, legeak agindu ez arren, bere karguak utzi egin zituztelako, eta batzuetan osoko bilkurak egin ahal izateko beharrezko gehiengorik ere ez zuten lortzen udal-txe barruan gelditu zirenek, 1978ko uztailaren 27ko aktak erakusten duen bezala. Horrela bukatu zen Imanolek herriko udalean bizitako lehen *abentura*-ren ibilbidea.

## ***Antxieta Etxea, ogibide berria***

Acerías y Forjas lantegian hamabost urte pasatu ondoren, 1978an ogibidea erabat aldatzeko une egokia iritsi zitzaion Imanol Eliasi. Gipuzkoako Kutxa Probintzialak Azpeitian Antxieta Etxean zuen erakusketa aretorako zuzendaria aukeratzeko deialdia luzatu zuen, eta Imanolek postu horretara aurkeztea erabaki zuen. Aukeraketa prozesu luze samar bat gainditu ostean, aurrezki kutxakoek Imanol Elias izendatu zuten zuzendari kargu horretarako. Horrela, Azkoitiko lantegian zuen lan-segurtasunerako arduradun postua utzi eta ordu arte lanbide gisa izan zituenekin zerikusi txikia zeukan arduraren berria bereganatu zuen Imanolek. Era berean, baina, hain gustukoa eta berea zuen kultur giro baten barruan lan egiteko parada zuen azkenean.

Antxieta Etxean hamalau urte egin zituen zuzendari lanetan Imanolek. Lehenengo urteetan Gipuzkoako Kutxa Probintzialeko arduradunak Imanolek Azpeitiko erakustokian garatzen zuen lanarekin gustura zeuden nonbait, eta modu bikoitzean jakinarazi zioten. Alde batetik, beraien miresmena eta esker ona adieraziz gutuna helarazi zioten Imanoli, eta, bestetik, Azpeitia eta Antxieta Etxeko lana utzi eta Donostiara joateko eskaintza luzatu zioten, ustez aukera hobek eskaintzen zizkion lan bat betetzera. Baina Imanolek nahiago izan zuen, berriro, bere Azpeitia maitean geratzea. “Zeinek daki —dio berak, erdi txantxan erdi serio—, igual orain askoz okerrago biziko nintzateke”.

1992an, aurreratutako erretiroa hartzeko auke-



Imanol Elias, honen emazte Itziar Oiarzabal, Andoni Albizuri 'Katxo', Manolo Madrazo eta Pepe Gil, beste lagun batzuekin batera, Antxieta Etxean, Madrazoren erakusketan. / IMANOL ELIAS

ra izan zuen eta halaxe egin zuen, eta harrezkero Itziar Oiarzabal bere emazteak zuzentzen du orain Kutxarena den erakustokia. Antxieta Etxeko lanak era ofizialean utzita egon arren, eta zuzendari karguak etxean jarraitzen duela kontuan hartuta, Imanolek oraindik ere pasatzen ditu bere orduak erakustokian. Antxieta Etxea, gainera, "inspirazio leku" ere bihurtu izan zaio behin baino gehiagotan, berak aitortzen duenez: "Erakusketak zaintzen nagoenean eta aretoa lasai antzera dagoenean, askotan bertan idazten jarduten naiz, eta, gainera, askotan etxean baino askoz hobeto ateratzen zaizkit gauzak. Ez dakit etxeagatik beragatik den, horko egur artean egoteagatik edo, baina bertan egiten ditut nik gauza asko". ■



# 5. *Politikaren amets zapuztua*

**F**rankismoaren azkeneko urteetatik 1979ko lehen udal hauteskunde demokratikoak bitartean, Imanol Azpeitiko Udaleko partaide izan zen, eta trantsizio politiko bezala ezagutzen den garai nahasia zuzenean bizitzeko aukera izan zuen, baina horren ondoren, urte batzuetan alde batera utzita eduki zuen politika jarduera publikoa. Udalaren aro berriko lehenengo legegintzaldi horretan (1979-1983) ez zuen parte hartu eta beste eginkizun batzutan murgildu zen. Antxieta Etxeko zuzendari bezala lortu zuen lanpostu berriaren lehen garaiak ziren, eta ardura horretara zuzendu zituen bere aha-lerinak, prentsa idatzian argitaratzen zituen artikulak eta urte batzuk lehenago deskubritu zuen historialari lan-afizioa ahaztu gabe.

Atsedenaldi moduko urte batzuen ostean,

ordea, antzerkia eta politika indarrez itzuli ziren bere bidera. 1980ko hamarkadaren hasierako urteetan, Antxieta Antzerki Taldea martxan jarri eta ia berehala, berriro udalera itzuli zen Imanol, oraingoan herri-tarren botoen babesarekin. Ez zen, gainera, nolana-hiko itzulera izan: Imanol Eliasek Azpeitiko Udalean alkatetza eskuratu zuen 1983ko udabe-rrian, Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) zerrendabu-ru gisa. Ilusioz eta gauzak egiteko asmo betez ekin zion orduan ibilbide berriari, baina udaleko bigarren esperientzia hura ere ez zen berak uste bezala atera.

## ***Galdutako denbora berreskuratuz***

Azpeitiko alkatetzara iritsi aurretik, Imanolek hama-bost urtez baztertuta —ahaztuta ez— izan zuen bere pasioari, antzerkiari, berriro heltzeko aukera paregabea aurkitu zuen. 1960ko euskarazko antzerkiaren berpizkunde indartsuaren ondoren, antzerki kontuak nahiko ahaztuta gelditu ziren Azpeitian. Desagertzera iritsi gabe, garai hartako indarra gal-duta zeukan. Baina egoera horrek buelta eman zuen 1980ko hamarkadaren hasierarekin batera. Izan ere, 1980an Jacinto Arregi eta Inazio Rezabal *Potxolo*-ri omenaldia eskaini zitzaizen. Aurreko ata-letan ikusi bezala, Azpeitian euskal antzerkiaren benetako aitzindariak ziren Arregi eta Rezabal, bi gizon hauen izenak aipatu gabe ezinezkoa litzate-keelako Azpeitiko antzerkiaren tradizioa azaltzea; eta, hain zuzen ere, Azpeitiko antzerkiari horrenbes-te eskainitako bi lagun hauen goratzarreak, ia ezus-





Maritxo Unanue, Inazio Rezabal 'Potxolo' eta Iñaki Bergara 'Pio' 'Ustegabeko poza' antzezten. Hortik sortu zen Antxieta taldea. / I. BERGARA

tean eta Imanol Eliasen eskutik, euskal antzerkiaren loraldi berria ekarri zuen herrira.

“Zaharrentzako diru pixka bat bildu eta bi gizon horiei omenaldia eginez emanaldia antolatzea nahi zen. Emanaldi hori nolabait zuzentzen beste bat hasi zen, baina hark ezin zuela eta orduan Imanoli deitu zitzaion. Imanol etorri zen eta baldintza bat ezarri zuen: emanaldi hartan ez gelditzea eta antzerki taldearekin aurrera segitzea. Eta Imanolek exijituriko baldintza horretatik sortu zen gero Antxieta taldea”, azaltzen du Iñaki Bergara *Pio*-k, Arregiren eta Rezabalen omenez prestatu zen jaialdian partaide izan zen aktoreetako batek. Omenaldikoan antzeztu zen lana bi omenduek, bere garaian

antzerkian ibiltzen zirenean, egin zuten azken obra bera izan zen: *Ustegabeko poza* izenekoa. Rezabal eta Arregi ere aktore gisa aritu ziren.

Horrela abiatu zen 1981ean Antxieta Antzerki Taldearen historia. Sorreran bezala, ondorengo ia hamar urteetan ere Imanol Eliasen figura ezinbesteko erreferentzia izan zen Azpeitiko antzerki talde amateur horretan. Imanol zen zuzendaria eta, gainera, 1989a bitartean Imanolek idatzitako antzezlanak plazaratu zituen Antxietak, zortzi guztira: *Sendagai traketsa* (1982), *Jokoa nagusi* (1983), *Lapurreta urtsua* (1984), *Bi ahoko ezpata* (1985), *Haunditasun ametsak* (1986), *Hiru morroiak* (1987), *Sendagile dantzaria* (1989) eta *Bat, bi, hiru* (1989). Antxietaren sorrerarekin, Imanol Eliasek 1970etik alde batera utzita zuen antzerkigintza berreskuratu zuen bere lanetan; indarrez, gainera.

Talde horretan igarotako denbora ez zen hamar urtera iritsi eta Imanolek tarte horretan hamazazpi antzerki obra idatzi zituen, Antxietak estreinaturikoen kopurua aise bikoiztuz. Horietako batzuk ez dira inoiz taularatuak izan (*Morroi hiltzailea*, *Idazlearen herioa*, *Bi korkoitzak*). Beste batzuk, berriz, idatzi eta handik zenbait urtera berreskuratuak izan ziren. Horrela, 1990eko hamarkadan Azpeitian sortu zen beste antzerki talde batek, Lakrikunek, Eliasek 1986an idatzitako *Zorioneko oporrak!* lana berreskuratu zuen 1997ko Euskadiko XV. Euskal Antzerki Topaketatan estreinatzeko, eta Ereintza Errenterriko taldeak *Urkiola* (1986) drama 1998an estreinatu zuen. Inoiz estreinatu ez eta saria jasotako beste obra bat ere badu Imanolek garai hartakoa: Eusko



Imanol Elias alkatea, udaletxeko bere bulegoan. 1983ko maiatzaren 8ko hauteskundeen ondoren iritsi zen Azpeitiko alkatetzara. / IMANOL ELIAS

Jaurlaritzak 1987an eraturako Euskadi Literatur Sarietan akzesita lortu zuen *Arranpan*, hain zuzen.

Imanolen garaian, berak gordetako datuen arabera, 1982ko uztailaren 29tik 1989ko abenduaren 9a bitartean, Antxieta Antzerki Taldeak guztira 58 emanaldi egin zituen. Oso marka errespetagarria, euskaraz aritzen den talde amateur bat dela kontuan hartuta. Imanolek, ordea, bazuen beste lanik; udaletxean lan politikoa.

### ***Bigarren udal bozak: Imanol alkate***

Imanol Elias EAJ alderdiko afiliatua zen. Afiliazio hori noiz gauzatu zuen ez da gogoratzen, baina bai “txikitatik beti hor” ibiltzen zela, “igandetan meza irteeran erdi ezkutuka paperak banatzen eta”; guztia

debekatuta zegoen garaian abertzaletasun kutsua izan zezakeen ororen bueltan, alegia. 1970eko hamarkada erdialderako behintzat, alderdiko kide zela badaki, besteak beste bera izan zelako herriko batzarrari Bergaran 1976ko uztailaren 21ean Euskal Herriko udalek foruak aldarrikatuz egin zituzten ekitaldien berri emateaz arduratu zena. “Garai hartan Martxieleneko [Marcial Ucin] etxearen azpi horretan egiten genituen bilerak”, gogoratzen du.

Diktaduraren ondorengo aurreneko udal hauteskundeetan, esan bezala, Imanol Elias ez zen Azpeitiko Udalean sartu. EAJk irabazi zituen 1979ko udal hauteskunde haiek eta Luziano Lazkano bihurtu zen aro berriko Azpeitiko lehendabiziko alkate. Lazkanok legegintzaldi horretako lau urteak bete eta berriro ez aurkeztea erabaki zuenean, Azpeitiko EAJk Imanol Eliasengan pentsatu zuen 1983an egingo ziren hauteskunde berrietan zerrendaburu izateko. Alderdiak proposatu, Imanoli nahi al zuen galdetu eta honek baiezko erantzuna eman zien. “Beno, probatzea zen, ezta?”, esaten du orain berak, alkategai aurkezteko prest zegoen galdetu zioteneko hura.

Horrela, 1983ko maiatzaren 8an egin ziren Francoren ondorengo bigarren udal hauteskunde haiek eta Azpeitian garaipena berriro EAJrentzat izan zen, oraingo honetan Imanol Elias zerrendaren buruan zela. Imanol Elias EAJren zerrendaburua izan zen bezala, EE-IPSrena Ramon Etxezarreta izan zen, HBrena Juanita Odriozola eta PSE-PSOErena Diego Pozo. Garai hartan Azpeitiak 9.493 laguneko hautesle zerrenda edo zentsoa zeu-



Azpeitian 1983-1987 legegintzaldiari ekin zion udal korporazioa. Ezkerretik, Laxaro Azkune, Juanita Odriozola, Begoña Franzesena, Esteban Orbegozo, Imanol Elias, Kepa Ibarzabal, Ramon Etxezarreta, Jose Mari Bastida, Julian Unanue, Diego Pozo, Maria Jesus Aranburu, Mikel Arruti, Txomin Sesma, Miguel Angel Zendoia, Pello Elorza, Agustín Irigoien (idazkaria), Iñaki Bereziartua eta Joxe Manuel Valverde. / IMANOL ELIAS

kan. Horietatik 5.758 izan ziren 1983ko udal hauteskundeetan botoa eman zutenak; partaidetza, beraz, %60,65ekoa izan zen. EAJ, EE-IPS (Izquierda para el Socialismoren siglak), HB eta PSE-PSOE izan ziren Azpeitian hauteskundeetara aurkeztu ziren talde politikoak, eta EAJk boto kopuruan oso alde nabarmena atera zien bere aurkari guztiei; 3.737 boz bildu zituen. Bigarren tokian EE-IPS gelditu zen, 711 botorekin; hirugarren HB, 683 botorekin; eta laugarren PSE-PSOE, 446rekin.

Udal hauteskundeak egin eta bi astera, 1983ko maiatzaren 23an, udalbatzar berria osatu eta alkate berriaren aukeraketarako osoko bilkura egin zen udaletxean. Hauteskundeetan izandako boto bana-

ketaren ondorioz, EAJk erabateko gehiengoa zeukan, hamabi ordezkariarekin. EE-IPSk eta HBk bina zinegotzi zituzten, eta bakarra PSE-PSOEk. Udalean ordezkari-tza lortu zuten lau alderdiek aurkeztu zituzten euren zerrendaburuak alkatea auzeratzeko bozketara. Baina korporazioaren osaketak ez zuen ezustekotarako zirrikiturik utzi, eta bere alderdiaren hamabi botoei esker egun bertan alkate izendatu zuten Imanol Elias. Legegintzaldi haren hasieran Jose Mari Bastidak, Kepa Ibarzabalek, Iñaki Bereziartuak, Julian Unanuek, Maria Jesus Aranburuk, Txomin Sesmak, Joxe Manuel Valverdek, Mikel Arrutik, Miguel Angel Zendoiak, Pello Elorzak eta Begoña Franzesenak osatzen zuten, Imanolekin batera, EAJren ordezkari-tza Azpeitiko udaletxean. Ramon Etxezarreta eta Laxaro Azkune ziren EE-IPSn ordezkariak, Juanita Odriozola eta Esteban Orbegozo HBrenak, eta Diego Pozo zen PSE-PSOEren zinegotzi bakarra.

## ***Aparatu politikoarekin topo***

Udalean bere bigarren aldiari ekin zion, horrenbestez, Imanolek. 1974tik 1979ra izandako esperientziak balioko zion noski, baina orduzkerotik egoera asko aldatuta zegoen. “Demokrazia iritsi berria zen eta ia dena egiteko” zegoela eta “dena egin” zitekeela ematen zuen. Imanolek, bere aldetik, teoriarik “logika osoa” zuen planteamendua zerabilen buruan, baina laster konturatu zen hori eguneroko martxan praktikan jartzea berak uste baino zailagoa zela, ezinezkoa ez esateagatik. “Udalean sartuta,

kanpoan geldituta baino gauza gehiago egiteko aukera zegoela iruditzen zitzaidan, gauzak errazago bideratzeko aukera; kultura aldetik, batik bat. Guk ikusten genuen beti edozer gauzatarako udaletxera zuzendu behar zirela eskaerak, gero erantzunaren zain egon eta baietz esaten bazizuten ondo eta ezetz esanez gero, kito. ‘Zeu han baldin bazaude, aldiz, baietz esango duzu eta kito’, genioen”, dio Imanolek, herrian kultur ekintzak bultzatzen eta antolatzen zeukan esperientzian oinarritzen zen bere orduko pentsakera azalduz. Logika idealista hori, ordea, laster erori zitzaion hankapera, udalean sartzerakoan zituen asmoen eta ilusioen zati handi batekin batera. “Ikusten nuen hura ez zela nire tokia, handik ere ez zegoela gauza handirik egiterik. Ez nuen gauzak egiteko askatasunik aurkitzen”, dio, alkate bezala izan zituen lehen esperientzietan sortu zizkioten sentsazioak gogoratzean.

“Arazoen aurrean Imanolek bere justiziaren kontzeptua gehiago hartzen zuen kontuan, eta ez distribuzio politikoa. Horrekin asko sufritzen zuela iruditzen zait”. Ramon Etxezarretaren esaldi horrek balio dezake, Imanolek berak udala bere tokia ez zela esaten duenean adierazi nahi duena ulertzeko. Euskadiko Ezkerrako (EE) ordezkari bezala, Ramon Etxezarreta Azpeitiko Udaleko alkateordeetako bat izan zen 1979-1983 eta 1983-1987 legegintzaldietan, eta Imanolekin harreman zuzena izan zuen, horrenbestez. Etxezarretaren ustez, Imanol “garai txarrak” harrapatu zuen alkatetzan, besteak beste EAJren barruan zeuden arazoengatik. Imanolek ere onartzen du bere ideiek eta une bakoitzeko intere-

sek tupust egiten zutela behin baino gehiagotan, eta hori eramatea ez zela beretzat erraza izaten. “Udalean bere linea baten egon behar izaten da —baieztatzen du Imanolek— eta ni ez naiz horrela zuzen-zuzen ibiltzeko horietakoa. Neure ideiek ere zeozer balio izaten dute, eta haiek aintzakotzat hartzen ez badituzte, ba...”.

Interes politiko desberdinak defenditu arren, bien artean lotura bat bilatu zutela uste du Ramon Etxezarretak, euskararen eta literaturaren munduarekin biek “konpartitzen” zuten harremanak errazten zuena. Bien arteko gertutasun horrek Imanolen alderdikideen artean “errezeloak” sortzen zituela ere uste du Etxezarretak, udalean bera azken batean oposizioko kidea zela kontuan hartuta. “Askoz ere sentiberagoak ginen biok —dio, lotura hori azaltzeko—. Nik uste dut Imanolek sinpatia handiegiarekin tratatzen ninduela, eta neuk ere bai bera”. Imanol alkateaz hitz egiterakoan, bere lanean sarritan “deseroso” sentitzen zela iruditzen zaio Etxezarretari, batik bat herrian eztabaida sutsuak edo iritzi kontrajarri nabarmenak eragiten zituzten kontuen aurrean. “Hartutako erabakiaren alderdi positiboarekin gelditu beharrean, erabaki horrekin kaltetuta sentitzen zirenei begiratzen zien, eta sufritu egiten zuen”, gaineratzen du. Adibide bat jartzerakoan, Nuarben Ibai-Eder urtegia egiteko proiektua aurkeztu eta Azpeitiko Udalak baiezkoa eman zionekoa dauka gogoan. “Orain urtegia ikusita —dio Etxezarretak—, garai hartan alde egiten zutenek seguruenen arrazoia zutela esan daiteke. Baina nik garai hartan, herrian beste jende askok bezala, oso gogor egin nuen kon-





Azpeitiko udaletxea, jai egunetako jantziekin. Imanol Eliasek espero ez zituen oztopoak aurkitu zituen bertan alkate izen zenean.

tra, udaletxeko osoko bilkuretan ere bai, noski. Sasoi hartan Azpeitian egiten ziren bilkuretarako, oso pleno gogorak izan ziren haiek. Eta nik uste dut Imanol oso deseroso sentitzen zela horrelako egoeratan. Berak esango du egoskorra dela, baina, aldi berean, pertsona biguna ere bada, eta horrelako erabakiak hartzea ez zitzaion atsegina gertatzen”.

Imanol Elias “herri-maitea, oso-oso azpeitiarra eta azpeitiar zalea” bezala ere ikusten du Ramon Etxezarretak, “beti gauzak egin nahian eta bultzatzen”, eta alkatetzarako hautagaitza onartzearen arrazoi nagusiak hor aurki daitezkeela iruditzen zaio. “Alkatetzara iritsi zenean —jarraitzen du Etxezarretak—, aparatu politikoarekin egin zuen topo. Hirigintzari eta beste gai batzuei arreta handiagoa jarri behar izaten zien, berak gogokoak zituen kulturari, antzerkiari edo euskarari baino”. Imanolen kulturarekiko kezkek ondo ezagutzen zituen Ramon Etxezarretak, baita udaletxean biek bat egin aurretik ere. “Imanol alkate izan baino lehenago —kontatzen du Etxezarretak—, aurreko legegintzaldian bilera bat egin nuen gazte batzuekin. Herriko kultur elkarteak eta plataforma bat sortzearen inguruan zen, eta bilera hartara agertu zen adin pixka bateko pertsona bakarra Imanol izan zen, kuriositate handiz agertu ere”. Ramon Etxezarretarentzat Imanol “gizon ona, estua eta sentiberatasun handikoa da. Sentiberatasuna zentzu positiboan, baina baita batzutan sentiberatasuna ez dela praktikoa jakinda ere. Seguruenik horixe da bere bertutea eta bere akatsa”.

## ***EAJren krisia***

Imanol Eliasek Azpeitiko Udalean bere buruhaustekak pasatzen zituen bitartean, bere alderdi politikoa-  
ren barruan gauzak ez zeuden hobeto, ezta gutxiago-  
gorik ere. EAJren zuzendaritzaren eta Carlos Garaikoetxea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE)

lehendakariaren (EAJkoa bera) arteko harremanak gaiztotzen ari ziren eta egoerak gero eta konponbide zailagoa zeukan. Halaber, alderdi jeltzalearen krisiak denboran bat egin zuen Imanol Eliasen alkatetzarekin, eta krisi horren amaierak EAJn sortu zuen hausturak eragin zuzena izan zuen, era berean, Imanolek 1984. urte amaieran eman zuen dimisioarekin.

EAJren krisian, askorentzat, Garaikoetxearen eta Xabier Arzalluzen elkar eraman ezina zen faktore bakarra, baina horren gainetik oinarrian bi faktore nagusi zeuden. Eta faktore horietako bat, Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren zuzendaritzaren ikuspuntu desberdinak ziren. Hain zuzen ere, Arzalluzek 1980an eskuratu zuen EAJn Euzkadi Buru Batzarreko (EBB) buruzagitza, Garaikoetxea ordekatuz hain justu, honek urte hartako hauteskundeen ondoren Eusko Jaurlaritzako lehendakaritza hartu zuenean. Izan ere, EAJren barne arauen arabera, EAEko lehendakaritza eta alderdiko zuzendaritza ezin ziren pertsona bakar baten eskutan egon. Beraz, Garaikoetxeak ezin zituen zuzendu, aldi berean, Eusko Jaurlaritza eta EAJ. Gauzak horrela, bi parteen artean sortzen zen arazorik, ikuspuntu desberdin batzuegatik. Adibidez, EAEko Lurralde Historikoen Legearen proiektuaren inguruan EAJren buruzagitza eta Eusko Jaurlaritza ez ziren bat etortzen. Alderdiko zuzendaritza lege horrekin eta beronek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioen esku uzten zituen kompetentzia zabalekin ados zegoen bitartean, Garaikoetxea buru zuen Eusko Jaurlaritzak ez zuen batere begi onez ikusten diputazioek

eskuratuko zuten ahalmen eta botere kopuru hori. Legea zegoen bezala onartuz gero, etorkizunean hiru diputazioen eta Eusko Jaurlaritzaren artean “arazo larriak sortzeko aukerak” ikusten zituzten Garaikoetxearen gobernuko agintariak, eta legeak “gobernuaren papera ahultzen” zuela uste zuten. Aldiz, EAJren zuzendaritzak, Xabier Arzalluz eta Roman Sudupe txandaturuz buru zirela —Jesus Insausti *Uzturre* ere bai tarte laburrez—, tradizio forala errespetatuz, hiru diputazioek kompetentzia maila altua mantentzearen aldeko jarrera erakusten zuten. EAEn Lurralde Historikoen Legearen inguruan gauzak horrela, Nafarroan bertako jeltzaleak haserre ziren. Izan ere, Euzkadi Buru Batzarrak, EAJk Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan alkatetzak eta diputazioak lortzeko (Bilboko eta Gasteizko alkatetzak batik bat, baita Arabako Diputazioa ere), eskuin Espainiazalearekin —Alianza Popular alderdiarekin— akordioa lortu zuen 1983ko maiatzean, jeltzaleek Nafarroan APk lurralde honetako gobernu eskuratzeko botoak ematearen truke. Hala, Nafarroako jeltzaleak ziren bertako legebiltzarrean APri lagundu behar ziotenak, baina EAJko ordezkari nafarrek ez zuten inondik inora onartzen eskuin Espainiazaleari laguntzea, hauek gobernura iritsiz gero “justu abertzaleen interesen aurkako politikak” bulztatuko zituztelakoan. Nahiago zuten Nafarroan gobernu PSOEk osatzea. Eta, hain zuzen, Garaikoe-txea bera Nafarroako jeltzaleekin bat zetorren; edo Nafarroako jeltzaleak Garaikoetxearekin.

Udal hauteskundeak egin eta urtebete baino lehenago, 1984an, EAEko legebiltzarrekoak egin



1983an, Saninazioetan, abuztuaren 1ean, Loiolan, Carlos Garaikoetxea EAEko orduko lehendakaria eta Jose Antonio Ardanza Gipuzkoako ahaldu nagusia. EAJren krisiko protagonistetako bi ziren.

behar ziren. Barne arazoak alde batera utzita, EAJK lehendakaritzarako berriro Carlos Garaikoetxea aurkeztea erabaki zuen. Garaikoetxeak, ordea, hasiera batean uko egin ondoren, azkenean bi baldintza jarrita onartu zuen atzera aurkeztea: Lurralde Historikoen Lege Proiektuaren inguruan EBBk Eusko Jaurlaritzaren tesiak kontuan hartzea batetik, eta EAEko lehendakaria EAJren diziplinatik kanpo geratzea. Garaikoetxearen jarrera horrek, aurretik zetorren giro nahasiari lotuta, EAJren barruko krisia azaleratu egin zuen azkenean. 1984ko otsailean hauteskunde autonomikoak irabazi egin zituen EAJK, baina krisia baretu beharrean, urtean zehar areagotu egin zen. Nafarroako jeltzaleek ez zuten EBBren agindua bete eta APk ezin izan zuen

Nafarroako Gobernua eskuratu. Jarrera horri erantzun gogorra eman zion EBBk, apirilean Nafarroako EAJko batzorde eragilea alderditik bidaliz eta bere ordeztutako gestora bat ezarriz. Militante nafarrek ez zuten egoera berria onartu. Egoera horrek, bestalde, ez zituen hobetu dagoeneko txarrak ziren EBBren eta Carlos Garaikoetxearen arteko harremanak. Nafarra da Garaikoetxea —Iruñekoa— eta EAJK alderditik kanporatu zituen jeltzale nafarren ondoan egon zen, eta hauek, berriz, beti erakutsi zioten beraien atxikimendua EAeko lehendakariari.

Bestetik, 1984ko maiatzean Xabier Arzalluzek utzi egin zuen EBB —1986ko otsailean itzuli zen presidentetzara—, eta Roman Sudupek bete zuen tokia EAJren buruzagitzan. Suduperi egokitu zitzaion, beraz, EAJren krisialdiaren azken kapituluak idaztea, Garaikoetxearekin batera eta/edo kontra.

## ***Garaikoetxeari: “Zu bazoaz, ni ere bai”***

Gauzak horrela, EAJren barruan bizi zen egoera korapilatsuaren zuzeneko berriak jakiteko primerako aukera izan zuen Imanol Eliasek 1984ko udan. Urte hartako San Inazio jaien barruan, 1620an Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Azpeitiko herriak hasitako ohiturari jarraituz, Eusko Jaurlearitzako lehendakari Garaikoetxea Azpeitira etorri zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Batzar Nagusietako buruak bezala, San Inazio bigarrenengoz —abuztuaren 1ean— Azpeititik Loiolako basilikara urtero egin ohi den prozesioan parte hartzeko. Egun horretan, Loiolako ekitaldiaren ondoren, herriko agintariek eta kanpotik eto-




Joseba Eloegi, Xabier Aizarna, Itziar Oiarzabal, Imanol Elias, Carlos Garaikoetxea eta Sagrario Mina, Azpeitiko udaletxe azpian, 1984ko abuztuaren 1ean, San Inazio bigarrenkoz. / IMANOL ELIAS

ritakoek elkarrekin bazkaltzea izaten da ohitura, eta orduan ere horrelaxe egin zuten. Bazkari hori aprobetxatu zuten, hain zuzen, Carlos Garaikoetxeak eta Imanol Eliasek solasean aritzeko. Ordurako zurrumurru ugari zebilen kalean EAJren goi-mailako ordezkarien arteko giroaren inguruan, eta Garaikoetxea kalera bidaliko zutela ere aipatzen zen. 1984ko Saninazioetako bazkari horretan, udaletxean bertan, lehendakariak egoeraren eta bere iritzien berri eman zion Azpeitiko alkate Imanol Eliasi, eta baita zituen asmoak aurreratu ere, Imanolek azaltzen duen moduan: “Urte hartako bukaera alderako alde egin beharra zeukala esan zidan, eta nik, berriez, hauxe erantzun nion: ‘Zu bazoaz, ni ere bai’”.

Imanolek ezin zuen ulertu lehendakariarekin eta alderdian gertatzen ari zena, eta ez zitzaion batere gustatzen.

EAJren krisialdiak aurrera segitzen zuen. Azpeitian Imanol Eliasi bere konfidentziak egin ondoren, irailean, EAJren Alderdi Egunean jendaurrean garbi geratu zen Garaikoetxearen eta alderdi jeltzaleko zuzendaritzaren arteko haustura. Lehendik nahiko garbi ez bazegoen, EBB diputazioen alde jarri zen erabat Lurralde Historikoen Legearen inguruko kontuetan. Kontrako jarrera mantentzen zuen Eusko Jaurlaritzak, eta EBBk eskatzen zion bere irizpideak onartu eta diputazioekin akordio batera heldzea, 1985eko aurrekontuak aurrera atera ahal izateko. Akordio hori lortzeko muga urriaren 15a zen, baina Eusko Jaurlaritzaren eta diputazioen artean aldeak nabarmenak ziren oraindik. Urriaren 2an, akordio hori sinatzen ez bazen bere kargua utzi egingo zuela esan zuen Garaikoetxeak. Ez zuen dimisioa aurkeztu beharrik izan, egun gutxi barru sinatu baitzen azkenean akordio famatua, baina bere jarrerak are gehiago gaiztotu zuen beraren eta EBBren arteko borroka. EBBk ez zuen onartzen lehendakariak bere irizpideak alderdiaren iritzaren gaineratik ezartzea, eta Garaikoetxeak ez zuen onartzen EBBk bere gobernuak hartu beharreko erabakiak ezartzea. Lehendakariak eta bere alderdiko zuzendaritzak herrialdearen osaketa eta indar banaketaren inguruan iritzi erabat kontrajarriak azaltzen zituztenez, bi aldeen artean giroa jasanezina zen ordurako. 1984ko abenduaren 18an, EAJren Batzar Nazionalak konfiantza erretiratu zion Carlos





Erdian, Iñaki Bereziartua, Imanol Elias eta Jose Mari Bastida, aldamenetan udaleko gainerako zinegotziak dituztela, Loiolara prozesioan. 1984ko Saninazioak ziren, Imanolen alkatetzako azken Saninazioak. / IMANOL ELIAS

Garaikoetxeari, eta abenduaren 22an EAJk Jose Antonio Ardanza, orduko Gipuzkoako diputatu nagusia, izendatu zuen Garaikoetxeak utzi behar zuen lehendakaritza hartzeko.

Horrela itxi zuen EAJk krisialdi luze eta gogor hura. Abuztuaren lehen egunean Imanol Eliasi iragarri ziona bete egin zen eta Garaikoetxea kargutik kanpora gelditu zen urtea amaitu aurretik. Eta Garaikoetxearen kanporatzearen berri izan zuenean, bi aldiz pentsatu gabe eman zuen bere dimisioa Azpeitiko alkateak, kargutik kanpo geratu berri zen lehendakariari bere egunean emandako hitza betez. Esan eta egin, hori baita Imanolen bizitzan joera nabarmenetako bat. Bi aldiz izan da Azpeitiko

Udaleko partaide eta bietan antzeko irteera izan du, aurreko aldian ere bilera batetik altxatu eta gehiago ez baitzen itzuli.

Garaikoetxeak Imanolen dimisioaren berri izan zuenean, saiatu zen erabakia atzera bota zezan konbentzitzen, baina ez zuen ezer lortu. Imanolek gogoan du Garaikoetxeak nola deitu zion: “Iluntzeko ez dakit zer ordutan hotsegin zidan. Ordubete egingo genuen telefonotik hizketan, baina Garaikoe-txeak ez ninduen ni konbentzitzuko, ezta... Nik esan-da neukan gauza bat: huraxe beteko nuen eta kito. Bera egoskorra izango da, baina ni ere bai”. Dei hura ahaztu ez duen bestea Carlos Garaikoetxea bera da. “Saiatu nintzen Imanol iritziz aldarazten, baina alferrik zen. Imanolek bere ekimenez kargua uzteak pena handia eman zidan. Alkate bikaina eta errespetatua izateaz gain, oso pertsona sentibera zen. Gizon bezala asko estimatzen nuen, eta orain ere estimatzen dut”. Egun haietan eta ondorengo hilabeteetan atxikimendu ugari jaso zuen Garaikoe-txeak eta asko izan omen ziren bere elkartasuna adieraztera Ajuria Enearaino joan zitzaizkion herri ordezkariak. “Elkartasun adierazpen horien artean, barreneraino iritsi zitzaidanetako bat Imanolena izan zen. Harrezkero noizean behin ikusi izan dugu elkar, San Inazio jaietan, eta lagun onak bezala agurtu izan gara”, dio Garaikoetxeak.

Jose Mari Bastidak hartu zuen Imanol Eliasek Azpeitiko Udalean utzitako alkatezta. 1985eko urtar-rilaren 10ean egin zen ezohiko bilkuran izendatu zuten alkate Bastida —orain ere berak segitzen du postu horretan—. Alkate berria aurreko legegintzal-

ditik zegoen udalean, bietan alkateorde karguarekin. “Imanol alkate izan zen bitartean berekin oso harreman ona izan nuen, eta gerora ere beti ona izan da gure harremana. Artxibo kontuetan kontsultaren bat egin behar izan dudan guztietan beregana jo izan dut”, dio Bastidak. Bestalde, zinegotzi liberatua zen aldetik, askotan Bastida bera zen udaleko kudeaketaz arduratzen zena. Hori dela eta, Imanolen dimisioarekin udaleko martxan “eten handiegirik ez” zela egon esaten du Bastidak. Bera izan zen EAJren zerrendaburua hurrengo udal hauteskundeetan, 1987an. Eusko Alkartasuna (EA) alderdi sortu berria udal hauteskunde horietara aurkeztu egin zen eta asko estutu zen EAJk ordu arte Azpeitian beste alderdiekiko ateratzen zuen aldea: EAJk 2.940 boto lortu zituen eta lehen postuan geratu zen, eta EAJren ostean 2.466 boto eskuratu zituen EAk. Beraz, alderdi bozkatuena izateari eutsi zion EAJk Azpeitian. Alkatetzak ere ez zion ihes egin, eta Jose Mari Bastidak bere lehen legegintzaldi osoa izango zena hasi zuen 1987an.

Imanol Eliasi dagokionez, 1986an Eusko Alkartasuna sortu zenean partidu berrian afiliatu zen, baina harrezkero ez du politikan partehartze aktiborik izan. “Gainera, esanda nago hurrengo hauteskundeetan [2003an] EA eta EAJ elkarrekin joaten ez badira, hori ere utzi egingo dudala”. Esana badauka, egiteko aukera eman ez gero egin, egingo du. 1984an alkatetza eta udala utzita, Imanoli ez zitzaion gehiegi kostatu bere *normaltasuna* berreskuratzea. “Hurrengo egunean bertan *Guía histórica y taurina de Azpeitia* liburuan hasi nintzen lanean,


aurretik egiterik izan ez nuena”, kontatzen du. Alkate karguan urte eta erdi soilik pasatu ondoren bukatu ziren betirako bere politikako eginkizunak. “Niretzako udalekoa hasieran amets bat izan zen”, esaten du. “Zerbait egitea zegoela uste nuen, baina nik espero baino gutxiago egin zitekeen. Baina udaletik irtearekin asmatu egin nuela uste dut”.

## ***Garai hartan herrian zer?***

Alkatetzaren aroak Imanol Eliasi politikarekiko desenkantua sortu zion, baina udalean iraun zuen urte eta erdi hari gainbegiratu eman ez gero, bere agintepean Azpeitian gauza onak ugari izan zirela ikus daiteke. Horrelako epe laburra izateko, 1983ko udaberritik 1984ko urte amaiera bitartean lan asko egin ziren herrian.

Imanol alkatetzara iritsi zen urtean, 1983an, Azpeitiko Udalaren aurrekontuetan 486.205.997 pezetako sarrerak eta 489.673.386 pezetako gastuak zeuden aurreikusita. 1984an aurrekontuak gora egin zuen, eta 562.684.771 pezetako sarrerak eta 562.873.389 pezetako gastuak aurreikusi ziren. Aldea txikia izan arren, Azpeitiko Udalak zerga bidez edota bere gaintetik zeuden erakundeetatik jasotzen zuena baino diru gehiago xahutu zuen urte horietan, baita Imanol Eliasek alkatetzako bere kargua utzi ondoren 1983-1987 legegintzaldia osatu zuten hurrengo bi urteetan ere.

Imanol alkate zela gauzatutako ekintza nagusiak aipatzerakoan, Aitonena jubilatuen etxe berriaren lanei hasiera eman zitzaizen; 1986ko ekainaren



Ezkerreko argazkian, Aitonena jubilatuen etxea. Imanolen garaian hasi ziren bertako lanak. Eskuinean, 1984an zabaldu zen Udal Euskaltegia.



Azpeitiko Udaleko ordezkariak eta Lekuona apaiza igerrileku estaliaren inaugurazioan, 1983ko abenduaren 18an. Imanol zen alkate. / IMANOL ELIAS

1ean inauguratu zen. Hirigintza arloan, berriz, Paulo VI.a auzoko urbanizazio lanak ditu gogoan Imanolek. 1983an Soreasuko Sebastian Deunaren parrokiako atariko urbanizazioa ere egin zen. Bere

alkatetzako garaiaren barruan iritsi zen, era berean, ur-hornidura Elosiaga auzora, eta Urrestillakoa berriztatu egin zen. Baserri-bideen lehen asfaltaketa lanak ere garai hartakoak dira. Hirigintza eta azpiegiturak aipatzean, gai horietan Azpeitia bere inguruko herrien artean “betidanik aurreratua” izan dela deritzo Imanol Eliasek. “Igual beste herrietan kiroldegiak eta horrelakoak lehenago egingo zituzten, baina azpiegiturak besteak baino gehiago landu izan ditu Azpeitiak”. Imanolen alkate garaian Azpeitiko Hirigintza Plangintzaren Arau Osagarriak ere mahai gainean zituen udalak, eta 1984ko ekainean osoko bilkuran berretsi zituen honen irizpide, helburu eta soluzio nagusiak.

Orduan eraiki ez, baina egitea onartu zena bai, Nuarbeko urtegia izan zen. Herrian oso eztabaidatua izan zen erabaki hura, urtegiaren kontrako iritzia nahiko zabala baitzen. “Urtebete baino gehiago ari zen kontua atzeratu eta atzeratu. Baina noiz edo noiz erabakiren bat hartu beharra zegoen, eta ni tartean tokatu nintzen”.

Garai hartan ekipamendu garrantzitsu batzuk jarri ziren martxan. Horrela, Imanoli egokitu zitzaion 1983an igerileku estalia inauguratzea. Hurrengo urtean, 1984an, Xoxote mendiko aterbea ere inauguratu zen, baina ekitaldi horretan ez zen egon alkattea. “Ez dakit inaugurazioko egunean zergatik ez nintzen igo, baina lehen batean ez zen nire gustuko proiektua izan —dio Imanolek aterbeari buruz—. Ez zitzaidan gustatu gauzak nola egin ziren, azkarregi bezala egin zirelako, guztiekin akordio on bat lortu gabe. Gero, nik aitortzen dut aterbea oso gauza

ederra dela eta ondo eginda dagoela”. Garai hartan egindakoein jarraituz, Garmendipe futbol zelaian aldagela berriak estreinatu zituzten. Euskalerria auzunean ere orduan erosi zituen udalak epaitegi berriak eraikitzeko lurrak, eta hilerria parrokiaren eskuetatik udalaren eskuetara pasatu zen. Eta Imanolek dimisioa eman baino hilabete inguru lehenago, 1984ko azaroan, lehen ikasturtea martxan jarri zen Udal Euskaltegian.

## ***Kultur etxea, bete gabeko asmoa***

Imanol Elias kulturari lotuta egon da beti, eta alkatezara aurkezteko arrazoietako bat udal barrutik kultura bultzatzeko aukera gehiago izango zuela pentsatzea zen. Baina bere helburu nagusietako bat ez zen bete: kultur etxea irekitzea —oraindik ez da ireki—.

Imanolen garaian dagoeneko “garbi” ikusten zuten udal arduradunek Azpeitian kultur etxea martxan jartzeko tokirik aproposena Enparan kaleko Basazabal jauregia izan zitekeela, baina berak eta bere lankideek uste baino arazo gehiago zeuzkan etxe horrek, jabetzari zegokionean hain zuzen ere. “Madrildik esan ziguten Basazabalen jabetza Eusko Jaurlaritzara pasatuta zegoela. Gogoan daukat Jose Mari Bastida eta biok Gasteizera joan ginela eta han oraindik Basazabalen jabetzaren berririk ez zeukatela esan zigutela. Orduan beste tramite batzuk egin hasi beharra zegoen, eta gerora kontu hori izugarri luzatu dela uste dut”, azaltzen du Imanolek. Udalean kultur etxearen beharra ikusten zutela

gogoratzen du, “beste herri gehienetan ari ziren ipintzen, eta, gainera, kultur etxeak martxan jartzeko laguntza batzuk zeuden”. Basazabal ez zen beste kokalekurik ez zuten, ordea, aztertu. “Toki egokia horixe ikusten zen eta, gainera, halako leku handia eta ederra da... Ni udalean egon nintzen bitartean behintzat, ez zen beste lekurik pentsatu”, dio orduko alkateak.

Kulturaren alderditik jarraituz, 1983-1987 legegintzaldi haren lehen zatian sortu zuen Azpeitiko Udalak *Azpeitian Zer?* udal aldizkaria. Gaur egun udalak izen berarekin argitaratzen jarraitzen duen hilabetekariarekin zerikusi txikia zeukaten lehendabiziko zenbaki haiek. Lehenengo *Azpeitian Zer?*-ak oso xumeak ziren, eta beraien edukirik aipagarrienak Azpeitiarekin eta azpeitiarrekin lotutako gaiak hartuta osatzen zen galdetegia edo kuestionarioa zen. Imanolek ondo gogoratzen ditu galdetegi haiek, berak prestatzen baitzituen. “Hil bakoitzean hamar galdera inguru jartzen ziren eta bakoitzerako lau erantzun posible. Erantzun zuzenak aukeratu eta gurutze bat jarri behar zitzairen, lehiaketa moduko bat antolatu baikeuden horren inguruan”. Galdetegi horrekin batera hilabete bakoitzean herrian zeuden ekintzen agenda batek osatzen zituen hasierako *Azpeitian Zer?* haiek.

Kulturarekin amaitzeko, eta aurrerago zabal aipatuko diren Antzerki Topaketak alde batera utzita, 1983an egin zen Azpeitia eta Hazparne (Lapurdi) herrien arteko anaitzea. “Beste herrietan ari ziren horrelakoak egiten eta ‘guk zergatik ez?’, pentsatu genuen. Iparraldekoekin harremanak izatea ondo





Basazabal jauregia, Enparan kalean, 1983-1987 legeintzaldian hasi ziren bertan kultur etxea egin nahian, baina ez zuten (dute) egin.

'Azpeitian Zer?' udal aldizkaritxoaren lehen aleetakoa. / IMANOL ELIAS

ikusten zen, eta Maria Jesus Aranburuk egin zituen harreman guztiak, Kulturako zinegotzi bezala, eta aurrera eramatea erabaki genuen. Beraiek ere

gogoarekin hartu zuten, eta horrelaxe hasi ginen hartu emanetan”, dio Imanolek. Lehendabiziko pauso haietan lapurtarrak izan ziren lehendabizi Azpeitira etorri zirenak, eta ondoren azpeitiarrek hartu zuten Hazparnerako bidea. Baina herriko alkate Imanol Elias ez zen Azpeititik Hazparneko herri anaitura joan zen ordezkartzeko partaide izan. Arrazoa, sinplea: asteburua zen, eta asteburuak sakratuak ziren bi egun horiek bere idazlanetan murgiltzeko aprobetxatzen zituen azpeitiar honentzat.

### ***Euskal Antzerki Topaketan sortzaileetako***

Antxieta Antzerki Taldearen sorrerak eta bere inguruan sortu zen mugimenduak Azpeitian antzerkiaren loraldi berria ekarri zuen, eta loraldi horretan eragin zuzena izan zuen beste elementu bat jaiotzen 1983an: Antzerki Topaketak. Imanolek bere alkate-tza garaitik gordetzen duen oroimenik onenetarikoa da, karguan zegoela martxan jarri ziren proiektuen artean bera gehien bete zuena; hau da, Azpeitian Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak martxan jarri izana. Kulturako zinegotzi Maria Jesus Aranbururekin batera, kultura mailan gerora jarraipena izan zezakeen proiektu bat martxan jartzeko asmoa lantzen joan ziren, eta azkenean antzerkiari eustea erabaki zuten. “Maria Jesus eta biok hitz egiten aritu ginen —gogoratzen du Imanolek—, zer egin genezakeen apartekoa, gerora jarraipena izango zuena. Ni orduan antzerkian nenbilen, eta antzerkiaren inguruko topaketa batzuk egitea erabaki genuen


**1983**

 A. Rodríguez, J. Beristain,  
M.L. Aizpuru


**Ezkerrean, Antzerki Topaketatako lehen bi urtetako kartela. Eskuineko argazkian, Pedro Otaegi eta Juanito Bikendi 'Sendagai traketsa' lanean. Antzietaren lehen lan hori ez zen topaketetan estreinatu. / JUANITO BIKENDI**

azkenean, lehendik ere Azpeitian zegoen antzerki tradizioan oinarrituz”.

Eta horrelaxe egin ziren lehen Antzerki Topaketak, 1983ko abenduaren 2tik 21era. 1990eko hamarkadan topaketen iraupena udazken osora zabaldu zen; ordu arte abendua izaten zen beti antzerkiaren aroa Azpeitian. Abenduaren 21ean Santo Tomas egunak euskal antzerkian daukan tradizioarekin lotuz, egun hori amaierako erreferentzi gisa hartuta sortu ziren topaketak, eta tradizio horri eutsi izan zaio. Hasierako urtetik gaur egun arte edizio bakoitza iragartzeko balio izan duten kartelei erreparatuta, gerora Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak izenarekin ezagutu direnak soilik Antzerki Topaketak leloarekin jaio ziren, eta horri eutsi zioten lehen bi edizioetan. 1985ean, berriz, Euskal Antzerki

Topaketak izenburuarekin egin ziren eta horrela jarraitu zuten urte batzuetan, 1990eko hamarkadaren hasieran egun mantentzen duten Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak deitura bereganatu arte.

Sorrerako edizio hartara itzuliz, 1983an sei taldek hartu zuten parte lehendabiziko Antzerki Topaketatan. Guztiak amateurak ziren: Intzurre, Xirristi Mirrixti, Txo, Lizardi, Goaz eta, nola ez, Imanol Eliasek berak zuzentzen zuen Antxieta. Azpeitiko taldeak topaketen azken jardunaldian, Santo Tomas egunean, *Jokoa nagusi* lana aurkeztu zuen, bere historiako bigarrena. Azpeitiko Antzerki Topaketek sorreran hiru helburu nagusi zituztela esan daiteke: euskarazko antzerkia eskaintzea, talde amateurrei tokia ematea eta euskarazko antzerki sormena bultzatzea. Hiru helburu horiek betetzeaz gain, ikusleen harrera beroa jaso zuten Antzerki Topaketek, eta oso bereziki Antxieta Antzerki Taldeak herritarren aurrean egiten zituen emanaldiek.

Gerora ere, Azpeitiko Udalak Euskadiko Euskal Antzerki Topaketekin aurrera jarraitu du, horien aldeko apustua eginez eta eskaintza zabalduz. Urteak aurrera joan ahala osagarri berriak gehitzen joan zaizkie: topaketek urte bakoitzean duten irudi adierazgarria aukeratzeko kartel lehiaketa, 1991tik aurrera Loiolako Herri Irratiaren bidez aireratzen den eskolarteko irrati lehiaketa edota euskal antzerkigintzaren barruan pertsonaia esanguratsuak izan direnei eskainitako omenaldiak.

Zelaitxo zinema aretoa izan da topaketen etxea

eta babeslekua. Baina 2002ko urtarrilean Zelaitxo bota egin zuten eta topaketak neurri handian umezurtz gelditu dira. Azpeitian ez dago Zelaitxok antzerkirako eskaintzen zituen baldintzak betetzen dituen aretorik, eta hogeitun urte eta gero formula eta egitura berriak bilatu behar izan dituzte udal ardura-dunek topaketekin aurrera jarraitzeko, ohikoa izan den taula gaineko emanaldi programazioaren ordean beste era bateko ekitaldiak eta ikuskizunak proposatuz; 2001ean jada era horretakoa egin zuten, Zelaitxo botatzear zirela eta.

Dena den, Zelaitxoren desagertzea eta areto alternatiborik ezak ekarri dituzten aldaketak iritsi aurretik ere, Antzerki Topaketek hasierako urteetako asmoetatik nolabaiteko garapena ezagutu dutela ikusten da. Euskarazko antzerki produkzioa bultzatzea eta plazaratzea izan dira gerora ere Azpeitian egiten diren topaketa hauen berezitasunik aipagarriena, eta lan berrien aldeko apustuari ere eutsi izan zaio, baina talde amateurekin zuten loturak nabarmen galdu du indarra eta hauek pixkanaka-pixkanaka lekua galtzen joan dira. Imanol Eliasek, esan bezala, partaidetza zuzena izan zuen Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen sorreran, baina gaur egun topaketek urteak pasatu ahala hartu duten norabidearekin nahiko kritikoa agertzen da, bai behintzat hasieran beraien izateko arrazoi nagusietakoa zen euskarazko antzerki amateurra eta lan berriak bultzatzearen ideiak jasan duen bilakaerarekin. Imanolen ustez, "Azpeitian antzerki amateurra galdu egin da eta era horretako taldeek orain topaketetara etortzerik ez" dutela nahi esaten du. "Orain

Mutrikun (Gipuzkoa) egiten diren antzerki amateurraren topaketetara gehiago joaten dira. Izan ere, hemen laguntzen ez bazaie, beste lekuren bat bilatu behar. Han egiten dute lehen hemen egiten zutena. Azpeitian dena galdu da. Zergatia ez dakit, baina horrela izan da. Niretzako pena bat”, dio. Antzerki Topaketen hasierako urte haietan sortu zen giroa faltan botatzen du aspaldian Imanol Eliasek.

## ***Uholdeak ere tokatu! Eskozian zen***

Imanolek alkatetza garaian bukaera oso nahaspilatsua izan bazuen EAJren krisia eta bere dimisioa zirela eta, hasierakoa ere halakoxea izan zuen, 1983ko udan herrian oso gertakari garrantzitsua gertatu zelako: uholdeak. Euskal Herriko beste hainbat herri bezala, Azpeitia urez gainezka esnatu zen abuztuaren 26an. Hogeitahamar urte atzerago Zestoan bidaiariz betetako autobusa aurretik eraman eta bailaran izugarrizko tragedia eragin zuen hartan bezala, Urola eta Ibai Eder ibaietako uraren indarrak txikizioak eta lokatza utzi zituen herrian nonahi.

Une hartan Imanol Eliasek hiru hilabete zermatzen alkatetzan, eta uholde izugarri haiek ez zuten Azpeitian harrapatu. Oporraldi garaia ere bazen, eta Imanol eta Itziar Eskozian zebiltzan, aurrezki kutxako Club Juvenil zeritzonaren eskutik bidaian zeuden gazte askorekin batera. “Uholdeena jakin nuenean inpresio handia egin zidala gogoratzen dut, eta zer esanik ez irudiak ikusi nituenean. Handik itzuli ginenerako, berriz, gauzak dagoeneko



1983ko abuztuaren 26an uholdeak izan ziren Euskal Herrian, eta Azpeitian ere kalte larriak eragin zituzten. Imanol Elias zen orduan herriko alkatea. Argazkian, Harzubia, Urola ibaia gainezka eginda. / MAITERE ALDALUR

lasaituta zeuden. Ez zitzaidan egoera hura gertutik bizitzea tokatu, baina bai gero kaltetutako jendea udaletxera joaten hasi zenean”.

Bistan da eguraldia ere ez zuela lagun izan alkatetza garaian. ■





## **6.** *Antxietatik historia liburuetara*

Imanol Elias Azpeitiko herriko alkate lanetan aritu zen urte eta erdia ez zen oztopo izan Antxieta Antzerki Taldearen bilakaeran eta lanean. Imanolek aro hartan bazuen, jakina, zereginik Azpeitiko udal-etxean, baina bere kargu berriagatik ez zuen alde batera utzi bi urte lehenago abiatu eta beretzat hain gustukoa zen antzerki proiektu hura. Alkate izanagatik ez zion utzi Imanolek idazteari eta Antxieta taldearekin antzezlan berriak aurkezteari. Horrela, Antxieta Antzerki Taldearen bilakaerari begirada bat botaz gero, inondik inora ez da nabarmentzen taldeko zuzendari eta obren egilea zenaren politikako *abentura*.

Antxieta taldearen historia 1989an bukatu zen Imanol Eliasentzat, eta handik aurrera beste proiektu eta eginkizun batzutan murgilduta ibili da eta da-

bil. Txikitan gustuko ez zuen historiak nahikoa bereganatu duela dirudi, eta horretan eman ditu 1990eko hamarkado urterik gehientsuenak. Bat bukatzerako besteari ekiten dio Imanolek, batzutan bi edo hiru gauza batera eskuartean izatea ere *tokatu* izan zaio, eta bere ibilbidean behin eta berriro agertzen den egonezin, jakin-min eta egin nahi horiek hor jarraitzen dute, bizi-bizirik.

## ***Drama bat, hainbat komeria***

Antxieta Antzerki Taldearen hasierako urteetan jende dezente ibili zen taldearen inguruan, eta inguratzen ziren gehienek oholntza gainean eta jendaurrean lanean bukatzen zuten, gainera. Batzuek aurretik esperientzia zutenak ziren, besteak inoiz antzerkia egin gabeak, eta herritar multzo polita osatu zen laster indarra hartzen joan zen proiektuaren inguruan. Juanito Bikendi, Pilar Aizpitarte, Pedro Otaegi, Joxe Zabala, Joxe Aranburu, Iñaki Bergara *Pio*, Iñigo Agirre, Maritxu Unanue, Itziar Oiarzabal... Izen zerrenda luzea osa daiteke, are gehiago lan bakanetan soilik parte hartu zuten guztienak gehituz gero. Guztientzat izan zen berezia eta garrantzitsua Antxieta Antzerki Taldearen esperientzia, eta batzuek harrezkero ere antzezenaren munduarekin lotura izaten jarraitu dute.

Antxieta Antzerki Taldearen garaiak gogoratuz, Imanolek lanak idaztea "lasaitasun handia" zen Iñaki Bergara *Pio*-ren esanetan, "hartara obra bila ibili beharrik ez zegoelako". Iñigo Agirrereren iritziz, berriz, "Imanolek gauza eder bat zeukan: asmatu eta sortzeko ahal-




Antxietakoak 'Lapurreta urtsua'-ren emanaldi baten ostean. Ezkerretik, aurrean, Imanol, Pedro Otaegi, Itziar Oiarzabal, Abel Izagirre, Joxe Mari Olaizola, Pilar Aizpitarte, Maritxo Unanue, Mertxe Arregi, Juanito Bikendi, Pello Elorza eta Joxe Aranburu. Atzean, Joxe Inazio Aizpitarte, Iñigo Agirre, Iñaki Bergara, Joxe Luis Berasategi eta Joxe Zabala. / **JUANITO BIKENDI**

men handia. Gero, bere obrak, lan bakoitzerako elkartzen ginen aktore kopurura moldatzeko izugarriko erraztasuna erakusten zuen". Ildo beretik, eta Joxe Aranbururen hitzetan, "parte hartzeko prest zegoen denentzako zegoen tarte. Motzagoa, luze-xeagoa, txikitxoa edo handitxoa, Imanolek irteteko prest zegoen mundu guztiari ematen zion paper txikiren bat. Horretan, idatzita zegoena moldatzen, artista bat zen, bakoitzari berea". Pilar Aizpitartek, bere aldetik, gogoan dauka nola "jendeak beti esaten zuen urtero herrenen bat, gorren bat edota hitz totelen bat azaltzen zela antzerkian. Horrekin kexatzen ziren, baina gero denei gustatzen zitzaien".

Imanolek sortu eta gero Antxietak antzezten zituen lanik gehienak komediak ziren, ikusleen algarak eraginez jendeari ondo pasarazteko helburua

zutenak. Azpeitiko antzerki taldeak 1982tik 1989ra estreinatu zituen zortzi lanen artean bakarra izan zen komedia kutsurik gabekoa: *Bi ahoko ezpata*, Imanol Eliasek 1984an sortu eta Antxietak 1985eko uztailaren 27an estreinatu zuena. “Drama gogorra” bezala gogoratzen dute garai hartako Antxieta taldeko kideek obra hori. Antzezlan horren inguruan bi ikuspuntu kontrajarri izan zituzten protagonistek. Antxietakoentzat oso lan aberasgarria zen, aktore gisa ordu arte egin ez zutena probatzeko aukera ematen zielako. Muntaia bera ere ordu arte taldeak egindakoen artean aberatsena zen. Bestetik, ordea, estreinatu aurretik ere ia seguru zekiten lan horrek ez zuela jendearen partetik aurrekoen harrera berorik izango. Eta halaxe gertatu zen. “Nik beti esaten nuen —dio Pilar Aizpitartek— ‘hau ez da gustatuko’, eta hala izan zen. Jendea antzerkira barre egitera joaten zen orduan, eta hori ez zen barre egitekoa”. Dena dela, *Bi ahoko ezpata*, ikuslearen eta taldearen arteko harremanarentzat ere interesgarria izan zela uste du Joxe Aranburuk, “Antxietak barrea eragiteko bakarrik ez zuela balio erakutsi baike nuen”. Pilar Aizpitartek, ordea, argi dauka obra berri baten estreinaldiaren atarian jendeak kalean zer galdetzen zion. “‘Pilar, barre egitekoa al da?’, galdetzen zuten beti, eta baiezkoa esanez gero, jendea gustura. Ez zuten galdetzen ona ala txarra zen, eta irteeran ‘nahiko barre egin dinagu, behintzat’ izaten zen jendearen komentarioa”.

*Bi ahoko ezpata*-rekin gertatutakoak, nolabait, Imanol Eliasek zuen teoria bat baieztatu egin zuela esan daiteke. Bere iritziz, ikusleak antzokietara era-



Joxe Zabala, Pilar Aizpitarte eta Itziar Oiarzabal 'Bi ahoko ezpata' lanean. Antxieta taldeak Imanolen garaian taularatu zuen drama bakarra izan zen, berak idatzia hori ere. Taldekoentzat aberasgarria. / PILAR AIZPITARTE

kartzeko eta antzerki zaletasuna pizteko modurik onena "antzerki erraza" eskaintzea zen. Horrela plazaratu zuen bere ideia 1986ko abenduan, Euskadiko IV. Euskal Antzerki Topaketan barruan euskal antzerkigintzaren inguruan egin ziren jardunaldietan: "Hemen Azpeitian Topaketetan argi ikusten da jende asko joaten dela, gazte jendea batik bat, baina nik ez nuke esango hori Topaketak, Topaketa direlako joaten dela jendea antzerkia ikustera. Beno, lehen ere izan da honelako arrakasta bat hemen antzerkian; gero hamabi, hamabost urtez gelditua egon da. Gu orain dela bost urte hasi ginen hemen talde batekin lanak ematen, eta iruditu zitzaigun

behintzat hasiera batean, lehenengo aldiz doana (antzerkia) ikustera, orduan hari eman behar zaiola, ohitzeko pixka bat antzerkira joaten, antzerki erraza. Erraz hartuko duena. Gaia erraz ulertuko duena izan dadila eta hizkuntza izan dadila erraz har dezakeena. Eta horrela ohituko da jendea (...) Nik uste gaur egunean oraindik ere eman beharko zaiola antzerki erraza. Batik bat herri asko daudelako, eta herri horietan ez delako urteetan antzerkirik izan, eta eza gutzen ez dutelako ez zaharrek eta ez gazteek. Nik uste hortik sortu dela Azpeitian dagoen giro hau”.

## ***Lana beltz, harrera beroa***

1989an estreinatu zuten *Sendagile dantzaria* kuentata —Antxietak Imanol Eliasek idatzita egin zuen azkenaurreko lana—, Azpeitiko taldeak 1980ko hamarkada horretan egindako obra guztien estreinako emanaldia uztailean egin ohi zuen, saninazio jaien inguruan, eta beti Azpeitian. Aurrekari horren ondoren, estreinaldi ofizialagoa abenduan egiten zuten normalean, berriz ere Azpeitian, Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen barruan. Herriko jendea beti zain izaten zuten Antxietakoek, eta ikuslez gainezka egiten zituzten estreinaldiko emanaldi horiek.

Entseguak egiterakoan ere Imanolen partehartzea erabakigarria izaten zen Antxieta taldearentzat. Antzerki taldearen izen bereko Antxieta Etxea bihurtu zen urte luzez taldearen elkarte eta entsegu lekua Imanolen beraren bidez, Kutxak Azpeitian, Eliz kalean duen erakustoki horren arduraduna baitzen



Imanol garai hartan. Ordu asko sartu zituzten bertan Antxietako kideek, obra bat bestearen atzetik ikasi, barneratu eta forma emanaz. “Alde horretatik ere Imanolekin zorte ona izan genuen, entseatzeko ezer ez genuen eta”, gogoratzen du Joxe Aranburuk. “Imanolek lan berria ekartzen zigun eta guztien artean irakurri egiten genuen. Ekartzen zuenerako, gutxi gorabehera bakoitzari zein pertsonaia egokituko zitzaigun nahikoa pentsatuta ekartzen zuela esango nuke”, dio Pedro Otaegik. “Nire ustez —gaineratzen du Joxe Aranburuk—, Imanolek idazterako dagoeneko pentsatuta izaten zuen ‘pertsonaia hori harentzako eta hura beste harentzako’”.

Imanolen garaian Antxieta Antzerki Taldean murgilduta ibili zirenek lana erruz egin behar izan zuten. Izan ere, *Sendagai traketsa*-rekin hasi eta

*Hiru morroiak* arte, 1982tik 1987ra, urtero estreinatu zuen lan berriren bat Antxietak, guztiak Imanol Eliasek idatzitakoak. Obra berri bakoitza udaberri aldera aurkezten zien taldekoei Imanolek. Joxe Aranburuk nabarmentzen duen bezala, “aurrekoa oraindik estreinatu berria izaten genuen, hura ere mantendu egin behar, eta martxo edo apiril alderako ‘beste berri bat bazeukat ba’ esanez etortzen zen Imanol. Eta denok ikusminez, zer ote zen galdezka. Urtean bat, urtean bat, urtean bat... Lana behintzat, egin genuen. Orduan guk genuen motibazio hura, ordea, ez dago gaur egun”.

## ***Euskal Herria ezagutuz***

Horrenbeste urtek eta hainbeste antzezlanek pasadizo asko utzi dizkie gogoan Antxieta taldean ibilitako lagunei. Iñaki Piok, esate baterako, badaki Antxieta Etxean antzinako aulki bat falta dela, eta dagoeneko zaila dela aulki haren paraderoa jakitea. “Antxieta Etxean antzinako bi eserleku zeuden —kontatzen du Piok—, oso bereziak, egurrezkoak. Haietako bat antzerki baterako kanpora eraman genuen. Itzuli ginenean, atzera trasteak Antxietan uzterakoan, dirudienez aulki hori ahaztuta kanpoan utzi genuen. Hurrengo astean entsegura agertu ginenean, Imanolek ‘hi, hemen aulkia falta duk’ esan zigun. Eta, nik dakidanez behintzat, oraindik ere aulki hura falta da Antxieta Etxetik. Bakarren batek jakingo du non den, baina... Gogoratzen dut ni neu nola jardun nintzen haren kopia moduko bat egin asmoz, baina egurra labratutakoa zen eta azkenean



ez genuen ezer egin. Badakit Imanol kezkatuta ibili zela. Normala! Aulki hura Antxieta Etxeko inbentarioan zegoen eta norbait hura falta zela konturatuz gero, ardura Imanolena berarena zen”.

Urte haietan Antxieta taldeak Euskal Herrian zehar joan-etorri ugari egin zuen, herriz herri bere lanak emanez. *Sendagai traketsa*, *Lapurreta urtsua* edota *Hiru morroiak* bezalako lanekin bazter ugari ezagutzeko parada izan zuten azpeitiarrek, herri txiki asko bereziki. “Profesional mailako antzerkiak ez dira leku askotara iristen, azpiegitura jakin bat behar izaten dutelako, baina amateurrak eta txikiak, aldiz, ia edozein tokitara moldatzen dira. Hortxe dago aldea”, esaten du Imanol Eliasek, talde amateurrek euskal antzerkian betetzen duten lanaz eta herri txikitara iristeko erraztasunaz mintzo dela. Eta Imanolek dioen hori bertatik bertara ezagutzeko parada izan zuten behin baino gehiagotan Antxieta lagunek, baita hainbat herritan *antzoki* berezietan aritzeko modua ere. Besteak beste, eskolak, frontoiak, arbolapeak eta elizak probatu zituzten Antxieta-koek *antzoki* gisa, era guztietako emaitzekin. Aramaion (Araba) izan zirenekoa gogoan dauka, esate baterako, Iñaki Piok: “Emanaldia eskola batean egin behar genuen, baina egun hartan justu hauteskundeak ziren, eta 20:30ak arte egon ginen boto kontaketa amaitzeko zain, guk antzeztu behar genuen lekuan zegoen-eta hauteskunde mahaia. Haiiek bukatu, traste denak kendu eta orduan hasi ginen gu geurea muntatzen”. Beste batean, berriz, Markina-Xemein (Bizkaia) herri txikian, intxaur-arbolla baten azpian egin zuten emanaldia, “jendea han-

kapean genuela”, gogoratzen du Pilar Aizpitartek, “eta guk gurea bukatzeko zain, musika konjuntorearen emanaldia hasteko”, gaineratzen du ondoren Iñaki Piok.

Mendaron (Gipuzkoa), berriz, antzezpena lehendabizi eliza nagusian eta ondoren ermita batean egitea egokitu zitzaion, eta erretoreari esker. Izan ere, Iñigo Agirrek kontatzen duenez, “herri gehiengotik ez zen antzokirik izaten, ez zegoen areto askorik, eta zenbait herritan jendeak elizak erabiltzen zituen, besteak beste mitin politikoak egiteko. Gu Mendarora joan behar ginen garai hartan Gotzaindegiak halako ohar bat atera zuen, elizak kulturako guneak zirela gogoratuz, eta abar. Mendaroko erretoareak, ordea, baimena eman zigun gure emanaldia ermita horretan egin ahal izateko, Gotzaindegiak zioena baino gehiago herritarren zerbitzura zegoela esanez”.

Azken batean, normalean antzerkiaz eta antzeko ikuskizunaz gozatzeko aukera txikia izaten zuten herri askotara iristen zen Antxieta taldea, eta herri horietako askotan Azpeitiko taldearen presentzia hutsa ezohiko gertaera garrantzitsua izaten zen, festa girokoa. Imanol Eliasek bereziki gogoan dauka Elduain (Gipuzkoa) herrian egiten zieten harrera; beretzat, antzerki talde amateurrek herri txikietan lanak eskaini ahal izatearen garrantziari buruz jar daitekeen adibiderik onenetarikoa. “Hara joaten ginen —kontatzen du—, eskenatokia muntatzen genuen, eta geuk nahi genuen guztia ematen ziguten. Antzerkia bukatzen genuen, eta afaria. Gero, gainera, esandako hura zuzen-zuzen ordaintzen zi-



Pedro Otaegi eta Juanito Bikendi 'Sendagai traketsa'-n. Emanaldi ugari egin zuen Antxieta lan arrakastatsu horrekin. / **JUANITO BIKENDI**

guten. Eta jendea gustura, zorutzen". Herri txiki gehiagotan ere aurkitzen zuten antzeko berotasunik eta jendearen esker onik, baina Elduainekin nahiko harreman berezia izan zuen bere garaian Antxieta

Antzerki Taldeak, eta ia urtero joaten zen Tolosaldeko herri txiki-txiki hartara emanaldiren bat egi-tera.

## ***Aro baten amaiera***

Bederatzi urtez ia etengabean antzezlan berriak sor-tzen, gauzatzen eta plazaratzen ibili ondoren, Antxieta Antzerki Taldeak aldaketa garrantzitsua ezagutu zuen 1980ko hamarkadaren azken aldera. 1989ko abenduan taldearen norabidearen bueltan sortutako halako tira-bira batzuen ondorioz, taldea desegitekotan egon zen, eta Imanol Eliasek eta beste zenbait kidek utzi egin zuten. Imanolen hitze-tan, “urteetan zehar Azpeitiko herrian kultur lanean ibili garenok ongi dakigu ohikoa dugula azpeitiarrok, zerbait martxan egoki denean, guztia apurtzea dugula gogokoa, eta horrelako zerbait gertatu zen Antxieta Antzerki Taldearekin ere”.

Iñigo Agirre izan zen taldearekin aurrera jarrai-tzea erabaki zuenetako bat. Iñigoren esanetan, tal-dearen zatiketa hura “traumatikoa izan zen”, beste-ak beste haustura gertatzeko moduak urte askotan elkarrekin ibilitako lagunen artean une hartan sortu zuen giro traketsagatik. Bestalde, Antxieta taldea bat-batean zuzendaririk gabe eta ordu arte beti bere hornitzaile izan zen egilerik gabe gelditu zen. Entseatzeko tokirik gabe ere aurkitu ziren. Norabide berria hartu zuen Antxieta Antzerki Taldeak. Inaxio Tolosa zumaiarrarengana jo zuten azpeitiarrek zu-zendari bila, eta honen gidaritzapean jarraitu zuten aurrera. Entseatzeko tokia, berriz, Urrestillako esko-

letan topatu zuten, Azpeitiko Udalaren eskutik. 1991n *Nor Nori Nork* lana aurkeztu zuten Antxietakoek, Imanol Eliasek idatzia ez zen lehendabizikoa. Hortik aurrera beste batzuk etorri ziren, azkena 1997an Nagore Aranburu aktore azpeitiarrak idatzitako *Hamar minutu gauerdirako*. Bi urte berandua go, 1999an, Azpeitiko udaletxearen azpiko lokaletan dagoen San Agustin elizan obratan hasi zirela eta, Antxieta taldeak bertan gordetzen zuen material guztia kanpora atera zuten udal arduradunek eta taldea noraezean gelditu zen, lokalik gabe eta nahikoa ukituta. Taldea ofizialki desegin gabe baldin badago ere, harrezkero Antxietak ez du beste lanik eta proiekturik garatu, eta ez dirudi berriro garatuko dituenik.

1990az geroztik ez du atzera antzerkirik zuzendu Imanol Eliasek, ezta talde batean parte hartu ere. Antzerkia, ordea, horrenbeste urteren buruan guztiz barneratuta daraman espresabidea da beretzat, eta etengabeko sortzeko eta idazteko grinak estutzen duenean, antzerkiak beti izaten du tartea bere sorkuntzan. Antxieta Antzerki Taldean izandako hausturaren ondoren, 1990etik 2001era antzerki luzeen eta laburren artean guztira hamasei lan idatzita ditu Imanolek, nahiz eta gehienak paper gainean soilik gelditu diren. Denbora tarte horretan idatzitakoetatik lau besterik ez dira taularatu. Horietatik hiru, eskola antzerki taldeek eman izan dituzte, Azkoitiko Xabier Munibe eta Floreaga ikastetxeetako taldeek hain zuzen ere. 1997an, berriz, Debako (Gipuzkoa) Goaz antzerki talde amateurrek Imanolek bi urte lehenago sortutako *Geure buruari, kuku!* komedia estreinatu

zuen, Azpeitian bertan gainera, Euskadiko XV. Euskal Antzerki Topaketen barruan.

Talde amateurrek eman izan dituzte beti Imanol Eliasek sortutako antzerki lanak. Imanolek berak ere lotura argia izan du beti euskal antzerki amateurrekin, antzezle, zuzendari eta egile gisa horixe izan baita beti ezagutu duen giroa. Antzezlanak sortzerakoan, ordea, ez ditu profesional edo amateur taldeengan pentsatuta idatzi. Antxieta taldearen aroan, noski, bere lanak plazaratzeko tresna ezin hobea zuen eskuartean, baina Imanolek ez du uste bere sormeneko lanak derrigorrez antzerki amateurrari lotuta egon behar direnik. Egile azpeitiarrak, hori bai, bere kritika egiten die zentzu horretan euskal antzerki talde profesionaleri, kanpoko egileen obrak moldatzeari bertako idazleen lana plazaratzeari baino garrantzi handiagoa ematen diotelakoan. “Euskal Herriko profesionalak gehiago jotzen dute kanpoko antzerki handi hori ekartzera. Askotan, lan horiek ikusten dituzu eta idatzi duenaren pentsamendua eta zurea ez dira berdinak, eta ez zaitu ezertarako katigatzen. Hori euskal antzerkia dela diote. Niretzako ez da. Kanpotik ekarritako horiek oso onak izango dira, eta egin ditzatela bakarren batzuk. Baina denak hartara erortzea...”.

Imanolek beti defenditu eta bultzatu izan du berak hain ongi ezagutzeko aukera izan duen euskal antzerki amateurra. Euskal Herrikoa bezalako zirkuitu mugatu batean, molde horretako antzerki taldeek garrantzia berezia dutela iruditzen zaio. “Profesionalen ikuskizunak, bere neurriagatik eta egituraketagatik, leku jakin batzuetan besterik ikus-



ten ez diren bitartean, talde amateur txikiak edozein lekutara irits daitezke, hauen lanak ukailu batean berdin-berdin eman daitezkeelako. Horixe da aldea, eta oso garrantzitsua da”, dio Imanolek.

## ***Eleberriarik ere eutsi***

Imanol Eliasengan antzerkia berezko jarioa bezala agertzen da, 1980ko hamarkada hasieratik bereziki. “Eguneroko bizitzako pasadizoek, gertakizunek” ematen omen dizkiote aitzaki aproposak antzerki lanak bata bestearen atzetik taxutzeko. Imanolen idazteko eta adierazteko irrikiak ez dira, ordea, antzerkikira mugatzen, ia berrogei antzezlan idatzi dituen pertsonari buruz hitz egitean *mugatu* aditza erabiltzea harrigarria iruditu arren.

Antxieta Antzerki Taldea utzi zuen urte berean aurkeztu zuen Imanol Eliasek *Amuko zubia* (1989), ordu arte idatzita zituen lan guztiekin zerikusirik ez zeukan obra. Egile gisa beti saiakera berrien bila zebilen, eta Imanol eleberri batekin ausartu zen *Amuko zubia*-rekin, Azpeitian dagoen antzinako zubi ezagunaren izena izenbururako hartu eta garai bateko euskaldunen bizimodua eta ohiturak drama gogor batean azalduz. Azpeitiko Udalak argitaratu zuen liburua, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

*Amuko zubia* eleberri historikoa da eta benetan existitu ziren pertsonaiak tartekatzen dira bertan Imanolek sortutako protagonistekin. XVIII. mendeko matxinada ospetsuaren garai inguruetan kokatzen du Imanolek orain arte argitaratutako bere nobela bakarraren istorioa. Azpeitiko Enparan kalearen barrenean bizi ziren Bikuñatarrak agertzen dira, besteak beste, 'Amuko zubia'-ren istorioan. "Gaia Azpeitian gertatu zena zen. Garai batean, XIX. mende hasiera aldera bereziki, baserriak jabe gutxi batzuen esku jarri ziren, eta baserri jabe horiek nahi zituzten guztiak egiten zituzten. Baserrian ere nahi zituztenak jartzen zituzten; baten bat alargun gelditzen bazen, jabeak topatzen zuen harentzako gizona, berari komeni zitzaiona noski, lana egingo zuena. Egoera horrekin lotutakoa da liburuaren gaia". Istorioa, berritzen dituen egoera latz haiek bezala, gogorra eta tragikoa da. Aurkeztu zeneko garaian, horrela esan omen zion batek idazle azpeitiarrari: "Jo Imanol, a zer liburu tristea idatzi duzuna. Horrela bizitzekotan... hobe genuen etorri ez bagina!".



*Amuko zubia*-rekin ordu arte probatu ez zuen eleberriaren eremua landu zuen Imanolek baina, hori bai, bere aurreko ibilbidean behin eta berriro errepikatzen ziren bi elementu bidelagun hartuta: datu historikoak eta kokalekua —Azpeitia, alegia—. Fikzioa eta benetan gertatutakoak nahastuz, *Amuko zubia* beretzat hain deigarriak diren gure arbasoen bizimoldeak eta jokaerak ezagutarazteko beste tresna bat dela esan daiteke, nolabait.


## ***Historiaren haritik tiraka***

Dagoeneko 1990eko hamarkadan murgilduta, aurreko hamarkadan Antxieta taldearekin antzerkian buru-belarri emandako urteetan ia erabat alde batera utzitako historia liburuei berriro heltzeko garaia iritsi zitzaion Imanoli. Horrela, 1994an Eliasek idatzitako bi liburu argitaratu ziren, biak gazteleraz. *Iglesia parroquial de San Sebastián de Soreasu*, de *Azpeitia* izenekoa Gipuzkoa Donostia Kutzak argitaratu zion, eta Azpeitiko Zezenzale Elkartearen eta Azpeitiko Udalaren eskutik plazaratu zen *El Toro, símbolo de fiesta en Gipuzkoa* lana, zezenen inguruan Imanolek idatzitako bigarren lana.

Baina Imanol Eliasek historia lanik zabalena, mardulena eta garrantzitsuena 1997an ezagutarazi zuen: *Azpeitia Historian zehar* liburua. Berriro Azpeitiko Udalaren eskutik, udal beraren Artxibategi Historikoan datu bila zenbatu ezin daitezkeen orduak pasatu ondoren, 670 orrialdeko liburua jaio zen, euskara hutsean egina. Hizkuntzaren datua bera ere aipagarria da, ordu arte historiaren espa-

ruan idatzitako liburu guztiak gazteleraz egin baitzitu-  
tuen Imanolek, gazteleraz eta euskaraz bietara argi-  
taratu zen *Guía histórica y taurina de Azpeitia* ken-  
duta. Bihotzean daraman eta inoiz utzi ez duen bere  
herriari eskainitako liburua, aipatutako Udal  
Artxibategi Historikoan mendeetan lokarturik zeu-  
den hainbat dokumentutan eta agiritan oinarrituta  
dago. Imanolek urteetan zehar herriko agintari-  
ek hartutako eta artxibategian jasota dauden erabakien  
bidez, XIV. mendean sortu zenetik ia gure eguneta-  
raino Azpeitiak bizi izan duen garapena bildu zuen  
*Azpeitia Historian zehar* horretan.

*Azpeitia Historian zehar*-en neurriko liburu  
batek lan galanta eskatzen du, ezinbestean. Eta ho-  
rrelakoxea izan zen Imanol Eliasek egin zuena: lan  
galanta. Guztira lau urte eman zituen historia lan  
mardula taxutzeko. Lehendabiziko bi urteak Azpei-  
tiko Udal Artxibategia goitik behera miatzen aritu  
ondoren, beharrezko datu guztiak bildu eta gero  
datu horiek sailkatzen, zuzentzen, itxura ematen eta  
idazten pasatu zituen beste biak. Ordu pila ederra,  
bere kabuz bururatutako proiektuan murgilduta, kal-  
kulatu ezinezko ordaina izango lukeena. Azkenean,  
liburua argitara ematea izan zen Imanolentzako  
saria, beretzat preziatuena. Liburuaren hitzaurrean  
Imanolek idatzita utzi zuenak garbi erakusten du  
*Azpeitia Historian zehar* egitera bultzatu zuten arra-  
zoiak eta liburuaren beraren helburua: “Nire jaiote-  
rriari, Azpeitiari diodan maitasunak bultzaturik saiatu  
naiz lanean eta ondorio hauxe lortu dut (...) Ongi  
dakit beste norbaitek lan egokiagoa lortuko zuela nik  
aurkitu eta erabili ditudan datuak izan balitu. Baina



jakinean naiz baita, gehienez ere, nik jarri dudan hainbateko gogoia jarriko zuela beste norbait horrek. Gehiagorik ez behintzat, ezinezkoa denez”. Lau urte gogor bezain aberasgarrien ondoren idatzitako hitz horiek bazuten, izan ere, izateko benetako arrazoia. Liburuko testu guztia, lagun batzuek emandako

ordenagailu txiki batean idatzita eta bukatuta izan zuenean, edonor lur jota utziko zukeen gertaera bat ere gertatu baitzitzaion: Azpeitiko Udala zenez liburuaren argitaratzailea, hara eraman zuen disketea, orrialdeak inprimatu eta alkateari aurkeztu ahal izateko, baina disketeak ez zuela balio ohartu ziren; arazoren bat zeukala Imanolen ordenagailuak eta hor jasotakoa ezin zela beste batera pasatu. Gauzak horrela, liburu osoa berriro idatzi beharko zuela erabaki zuen Imanolek, eta baita idatzi ere. “Poliki-poliki, atzera dena idatzi nuen —gogoratzen du berak—, hasieratik bukaeraraino. Neuk orriak etxean inprimatuta neuzkan, hala-moduz ordea, inprimagailu kaskarra neukan eta. Kopia haiek ez ziren inori emateko modukoak, baina haiek hartu eta lehenengo orrialdetik azkena arte banan-banan idatzi nituen berriro denak. Baserrira joan nintzen, han hala-moduzko atril bat egin nuen, zerrarekin eta, ordenagailuaren ondoan jarri, han orrialdeak zabaldu eta horrelaxe idatzi nuen berriro. Egundoko lana eman zidan”. Ordenagailua ez zen aurreko bera, noski.

Handik bi urtera, berriz, 1999an, Azkoitiko agiri historikoekin eginiko antzeko lana argitaratu zion Azkoitiko Udalak: *Azkoitia Historian zehar*. Imanolek aitortzen duenez, Azpeitikoa egin izanak asko lagundu zion bigarren historia bilduma hori gauzatzekoan, metodologia aurrez zehaztuta zeukalako. “Azkoitian ere hainbestetxe lan eduki nuen, han ere bi urte egingo nituen artxibategian sartuta; urte eta erdi bai, behintzat. Baina idatzi eta bukatu hiru urterako egin nuen. Azpeitikoarekin gauza asko



Azpeitiko herria. Imanolen jaioterria, bere txoko kuttuna eta, askotan, bere lanerako inspirazio iturri. / UZTARRIA

ikasi nuen, gero Azkoitikoa arinago egiteko. Gaiak, datak eta horrelako guztiak aurkitu ahala sailkatzen nituen, ordenatuta neuzkan guztiak... Hura beste gauza bat izan zen”, dio.

Azpeitikoarekin amaieran gertatu zitzaionaren hainbateko lanak eman ez arren, *Azkoitia Historian zehar*-erako lanean zebilela ere tokatu zitzaion gertaera bitxi bat Imanoli, ustezko mamuak tartean zirela. “Goi-goian nengoen, artxiboan bakar-bakarrik. Halako batean hasperen moduko bat entzuten hasi nintzen, norbaiten xuxurla bezala, ‘aaaahh’. Pentsatu ere egin nuen Andoni Katxo edo halakoren bat izango zela, zerbait esatera zetorkidana. Soinuak jarraitu egiten zuen eta nik ezin egon. Jaiki eta aldamenean zegoen gela batera joan nintzen

begiratzera, baina ezer ez. Balkoia ireki nuen eta, noski... Behean, Kontsejupen, pilotan ari ziren, eta pilotak horma jotzen zuenean 'aaaahh' entzuten zen. *Mekaguen*, haiek hamar minutuak pasatu nituenak!", gogoratzen du umorez, gertatutakoan batere barregarik eragin ez zion pasadizoa.

Azpeitian eta Azkoitian historiaren inguruan lan bera egin duenaren ikuspuntuarekin, Azkoitian zenbait gauza Azpeitian baino gehiago baloratzen dituztela ere iruditzen zaio Imanol Eliasi: "Azkoitian herriaren alde lana egiten duena Azpeitian baino askoz ere gehiago kontsideratzen dela uste dut".

Imanolentzat, historiagintza "lotzen zaituen kate bat" bezala da. 1970ean bere aurreneko historia lana egin zuenetik, datu bila aritzen zen bakoitzean gero eta gehiago murgiltzen zen mundu horretan. Datu batek bestearekiko lotura zekarren, eta horrela beti mendeetan aurrera eta atzera. Gainera, aurkikuntzek bere herria eta bazter ezagunak hobeto ulertzeko balio ziotenean, jakin-mina eta gehiago aurkitzearen nahiak areagotu egiten zuten lotura hori. "Maitatzeko, lehenengo ezagutu beharra dago", esaten du Imanolek, herri bakoitzak bere historia ezagutzeak duen garrantzia nabarmentzeko. Berari behinik behin ez zaizkio gehiago ezagutzeko eta ezagutarazteko gogoak oraindik asetu. "Orain denbora bat eman niri, lasai, emaztearen errieta eta zerarik gabe, eta 'hortxe egon hadi urtebetean' esanda Oñatin utziko banindute, Azpeitiko historia berri-berria egingo nuke. Han aurki daitezkeenak!", dio, oporraldi luze batekin amets egiten duenak bezalaxe.



Asier iloba eta Imanol, Donostian ateratako argazkian. Hilabetetako haurra zenetik bizi da Asier osaba-izeben etxean. / IMANOL ELIAS

## ***Adierazi nahi hori***

Horrelako bi historia liburu bi urteren tartearekin plazaratzeak suposa zezakeen nekeari eta betekadari betarik eman gabe, *Azkoitia Historian zehar* argitaratu eta hurrengo urtean, 2000an, Imanol Eliasek idatzitako liburu berri bat argitaratu zuen Azpeitiko Udalak: *Azpeitia. Gaztaroko kronikak–Crónicas de juventud*. Imanolen beraren esanetan, egin dituen “lan guztien artean zailena” beretzat. “Istoriopak asmatzea eta idaztea, edota besteen historiaz aritzea gauza bat da, baina norberaren bizipenak adieraztea zailagoa egiten da”. Zentzu berean hitz egiten zuen egin zioten elkarrizketa batean, liburua pla-

zaratu bezperatan: “Norbere buruari buruz idaztea eta berak askotan ezkutuan dituenak azaltzea pixka bat bihotza zabaltzea dela uste dut, norbere sentimenduak azaltzea, eta hori dezente zail egin zait. Gero, gainera, jende asko aitutzen duzu eta gogoan eduki behar duzu inorekin ez duzula astakeriarik egin behar. Lan zaila eta ezberdina izan da niretzat, lehengoekin ez dauka zerikusirik”.

Egileak berak liburu hori ere historiaren esparruan kokatzen du, baina zalantzarik gabe bertan gehien nabarmentzen dena kutsu autobiografikoa da. Imanolek bere haurtzaroko eta gaztaroko bizipe-nak eta oroitzapenak gogora ekarri eta hauei forma emanaz gauzatu zuen *Azpeitia. Gaztaroko kronikak...*, testuak euskaraz zein gazteleraz jarriz, eta jarraipen zehatzik gabeko atal solteetan egituratuz. Berak gazte denboran ezagututako Azpeitiaren —berriro Azpeitia— isla pertsonal bat ere bada liburu-a. “Nire bizitzako pasarte batzuen bidez, Azpeitian gaztetan ezagutu nituen hainbat gauza azaltzea nahi izan nuen. Batik bat, garai hartan bizimodua gaurkoarekin alderatuz zer-nolakoa zen ikusteko, oso desberdinak baitira”. Baina, era berean eta batik bat, Imanolen bizitzako hainbat pasarte biltzen ditu *Azpeitia. Gaztaroko kronikak...* liburu horrek. Familia, eskola, lagunak, garai bateko pertsonaia kuttun eta ez hain kuttunak, antzerkia... Oroitzapen gazi-gozoz eta zuri-beltzeko irudiz betetako orrialdeak, neurri handi batean “barrua husteko” plazaratuak. Bi urte eman zituen Imanolek liburu hori idazten, baina askoz ere denbora gehiago, ia bizitza osoa, materiala biltzen. Eta zerbait gutxiago, baina asko era





Imanol, 'Azpeitia. Gaztaroko kronikak - Crónicas de juventud' liburuaren aurkezpeneko egunean. Imanolek gaur arte plazaratu duen azken idazlana da hori, kutsu autobiografiko handia duena. / UZTARRIA

berean, gordeta zituen datuak, bizipenak eta pasarteak aztertzen eta aukeratzen.

*Azpeitia. Gaztaroko kronikak...* da Imanol Eliaasi argitaratu dioten azken liburua. 2001eko urtarrilaren 1ean 65 urte beteta, ofizialki jubilatuta dago Imanol, baina horrek ezer gutxi esan nahi du beretzat. Egunero-egunero jartzen da ordenagailuaren aurrean eta han ematen ditu orduak, idazten, sortzen, egiten. Berak dioen bezala, "gogoia baldin badaukazu, gauza askotara iristen zara; gogorik gabe, berriz, ez". Argitaratutako azken liburua 2000. urtekoa da, baina badirudi Imanol Eliazen liburu zerrenda ez

dela hor gelditu behar. *Amuko zubia*-ren ondoren bigarren eleberri edo nobela bat ere idatzi du eta bukatuta dauka. *Hamaika egun Azpeitian* da bere izenburua. “Ez dakit aterako den ala ez, baina hor dago. Karlistada garaietan oinarritutako istorio bat da. Hor inbentzio handia dago, baina datu historiko batzuk tartekatuta. 1870. urtean kokatzen da istorioa. Eleberriko protagonista Zumaian bizi den gizon bat da. Honek Azpeitik berak ezagutzen ez duen beste gizon batek idatzitako gutuna jasotzen du, berekin hitz egin nahi duela esanez. Zumaiarra Azpeitira etortzen da eta, gutuna idatzi dion gizonarekin ez baina etxe handi eta dotore batean bizi den familia misterioitsu batekin topo egingo du”, aurreratzten du Imanolek. *Amuko zubia*-ren tankeran, nahiko istorio dramatikoak kontatzen du Imanolek agian argitaratu gabe geldituko den nobela berri horretan. Baina hori ere ez da Imanol Eliasek taxutu edo taxutzear duen azken lana. Izan ere, azken urteetan hain gustukoa bihurtu zaion historia ere ez du alde batera utzi, eta hortik zerbait sortzea ere ez litzateke harrigarria izango.

Kontua da Imanol Eliasek ez dakiela zerbait idatzi edo sortu gabe bizitzen. Horrelaxe egin izan du ia bere bizitza guztian, eta ez dauka uzteko inongo asmorik. Imanolek bere filosofiaren eta bizitzaren aurrean daukan jarrera ondo argitzen du bere gogo eta honek: “Zerbait egin dezakedala ikusi eta egin gabe uztea, hori azkena da. Nik ez nuke nahi esatea orain edo hemendik urte batzutara, bizi baldin banaiz, ‘hau egin behar nian eta ez nian egin’. Ez. ‘Egindakoarekin gustura nagok. Zer falta zait egite-



Ezkerrean, Joxe Agirre 'Oranda', Imanol eta Juanito Bikendi, 2002ko Inauterietan, kaldereroekin. Eskuinean, 2000ko Inauterietan, Patxi Azkargorta eta Imanol, kaldereroen omenaldia jasota. / **UZTARRIA**



Urkia (RSBAPeko burua), Juan Inazio Uria eta Imanol, azken hau Euskal Herriko Adiskideen Elkartean sartu zeneko ekitaldian. / **IMANOL ELIAS**

ko? Beno, oraindik jarraituko nitek gauzak egiten, baina egindako hura balekoa duk'. Horixe".

Etengabeko sormen lan horren iturriak nondik

datozen galdetuz gero, ez du erantzun zehatzik. “Etorria, esan nahia, zeozer egin nahia... Neuk ere ez dakit, ordea. Batek gogo bat jartzea da. Nik, hori bai, aitortu beharra daukat emazteak asko laguntzen didala. Bere partez beste egoskorren bat izan banu alboan, ez dakit. Zerbaitetan ari naizenean, hartara dedikatzeko askatasun osoa ematen dit”, aitortzen du Imanolek. Ezkondu aurrekoak zenbatu gabe, Itziar Oiarzabalek 41 urte pasa daramatza Imanol Eliasekin bizitzen. Hilabeteetako haurra zela beraien etxera etorri eta betiko gelditu zen Asier ilobarekin batera, elkar ondo ulertzen duten familia osatzen dute. Honezkero, noski, ondo baino hobeto ezagutzen ditu Itziarrek bere senarraren laneko ohi-turak. “Makinaren aurrean gero eta ordu gehiago ematen joan da, eta joan deneko ez dakit zenbat urteetan egunak dituen ia ordu guztiak ematen ditu hortxe —dio Itziarrek—. Ni jada bakarrik ibiltzen ohi-tuta nago. Mendizalea naiz, asko gustatzen zait mendira irtetea, eta ilobarekin ez banaiz, bakarrik joatea nahiago, Imanol ez baita joaten. Gozatu egiten dut mendira bakarrik joanda”. Gaua eta eguna bezala, bata lau horma artean eta bere lanean murgilduta zoriontsuen, eta bestea ahal duen guztian aire librearen bila. Asteburuetan Itziarren baserrira igotzen direnean hartzen dute, antza, bata bestea-arentzako denbora. Bakoitza bere aldetik, baina beti elkarrekin.

Trukean ezer espero gabe, jakiteko nahi horrek bultzatuta eta sarritan musutruk egindako lanak azkenean argia ikusiko duen jakin gabe, horrela dabil Imanol. Urteetako dedikazioak jendearen onar-

pena ere izan du, ordea, herri mailan zein kulturaren esparruan. Horrela, 1995eko otsailean Imanol Elias Euskal Herriko Adiskideen Elkarte (Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais) erakunde ospetsuko kide izendatua izan zen, Antxieta Etxean egitako ekitaldian. Beste maila batean, baina bere Azpeitia maiteko jendeak ere berak egindako guztia gogoan daukala adieraziz, 2000. urtean herriko Inauteri jaietan Kaldereroen konpartsaren omenaldia jaso zuen, Patxi Azkargortarekin batera.

Imanol antzerkilaria, Imanol alkatea, Imanol idazlea, Imanol historialaria... Imanol Eliasek aurpegi asko ditu, baina izaera bakarra: beti jakin-minez, beti bila, beti lanerako prest, beti sortzen eta beti zerbait adierazi nahian. ■

# Imanol Eliasek

## ANTZERKIAK

### Inoxente

1964. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1966-12-21

### Amaren malkoak

1965. Drama. Luzea.

### Haurtxoa seaskan

1966. Historikoa. Luzea.

### Gurutz Bidea

1966. Historikoa. Luzea.

### Nor errudun?

1970. Drama. Luzea.

### Sendagai traketsa

1982. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1982-7-29

### Jokoa nagusi

1982. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1983-7-23

### Lapurreta urtsua

1983. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1984-7-28

### Morroi hiltzailea

1983. Komedía. Luzea.

### Bi ahoko ezpata

1984. Drama. Luzea.  
Estreinaldia: 1985-7-27

### Idazlearen herioa

1985. Komedía. Luzea.

### Haunditasun ametsak

1985. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1986-7-24

### Hiru morroiak

1986. Komedía.  
Luzea.

### Bat, bi, hiru

1986. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1989-7-24

### Urkiola

1986. Drama. Luzea.  
Estreinaldia: 1998-7-23

### Zorioneko oporrak!

1986. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1997-12-6

### Zirt eta zart

1986. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1992-12-15

### Arranpan

1987. Drama. Luzea.

### Deiadar

1987. Drama. Luzea.

### Azken luzea

1987. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1994-4-26

### Sendagile dantzaria

1988. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1989-3-4

### Bi korkoitzak

1988. Komedía. Luzea.

### Legazpi

1990. Drama. Luzea.

### Alferrikako bidaia

1990. Komedía.  
Motza.

### Beste mundura bidean

1990. Komedía.  
Motza.

### Gau beldurgarria

1991. Komedía. Motza.  
Estreinaldia: 1994

### Azken asmakizuna

1991. Komedía. Motza.  
Estreinaldia: 1994

### Ehun zatzada

1991. Komedía.  
Motza.

### Lapurrak etxean

1991. Komedía. Motza.

### Bisitariak Azpeitian

1991. Komedía. Motza.  
Estreinaldia: 1995

### Iraurgi

1991. Opera edo Zartzueta.

### Aitonaren itzala

1994. Komedía. Luzea.

### Geure buruari, kuku!

1995. Komedía. Luzea.  
Estreinaldia: 1997-11-29

### Noraezean

1996. Drama. Luzea.

### Auzotarrak

1996. Drama. Luzea.

### Zurrunbiloan

1996. Drama. Luzea.

### Zugarramurdi

1998. Drama. Luzea.

### Zertarako idatzi?

2001. Kafe-antzerkia.

### Erretorearen larrialdiak

2001. Komedía.  
Luzea.

# datzitako lanak



## LIBURUAK \*

### Azpeitia y sus hombres

1970. Historia.

### Apuntes históricos de Albiztur, Régil, Beizama, Santa Marina y Urquizu

1975. Historia.

### Curiosidades históricas de Beizama, Urrestilla y Machinventa

1976. Historia.

### Juan Antxieta. Apuntes históricos

1981. Historia.

### Gipuzkoako baserria kondairan zehar

1983. Historia.

### Guía histórica y taurina de Azpeitia

1986. Historia.

### Amuko zubia

1989. Eleberria.

### Iglesia parroquial de San Sebastian de Soreasu, de Azpeitia

1994. Historia.

### El toro, símbolo de fiesta en Gipuzkoa

1994. Historia

### Azpeitia Historian zehar

1997. Historia.

### Azkoitia Historian zehar

1999. Historia.

### Azpeitia. Gaztaroko kronikak – Crónicas de juventud

2000. Historia.



AMUKO ZUBIA



### el toro

SÍMBOLO DE FIESTA EN GIPUZKOA

Imanol Elías





# *Aurkibidea*

<b>1.</b>	<b>Gerraren urtean jaiotakoa</b>	<b>5-21</b>
	– Haur baten oroitzapenak	6
	– Baserritik kalera, kaletik baserrira	10
	– Urte gogorrak	12
	– Ilararen azkenetakoa, baina komiki zalea	15
	– Bilbo, bizitza berri baten hasiera	18
<b>2.</b>	<b>Institutu Laborala eta Oargi</b>	<b>23-41</b>
	– Azpeitia, herri antzerkizalea	26
	– 'El Verdugo de Sevilla'	27
	– Imanol eta Itziar	29
	– "Zer degu O.A.R.G.U.I.?"	31
	– Gauzak egiteko prest zegoen makina	34
	– Donostiatik Ifniko gerrara	38
<b>3.</b>	<b>Antzerkia eta kazetaritza</b>	<b>43-67</b>
	– Ikasleek alde egitea ezin eraman	44
	– Ezkondu eta lanbide berria	49
	– Azpeitiarren 'pasioa'	51
	– 'Inoxente', Manuel Eliasena	55
	– Taularatu gabeak	58
	– Prentsako artikulak	59
	– Loiola Irratiaren hasieran, eta euskaraz	62
<b>4.</b>	<b>Historia idatziz eta eginez</b>	<b>69-99</b>
	– Historian "txar-txarra" zen	70
	– Fraideen eta apaizen kolaborazioa...	73
	– Azpeitiko katuak eta arkakusoak	76
	– Zezenez ere bai, gehiegi gustatu gabe	78
	– Udaletxean zinegotzi...	80

– ...eta Erri-Zalen presidente	82
– Angel Otaegi ez hiltzeko eskaera	86
– 1976. Bergara. “Hemen zerbait bazetorrek”	89
– Ikurrina jartzen aurrenetakoak	92
– Antxieta Etxea, ogibide berria	98

## **5. Politikaren amets zapuztua** **101-133**

---

– Galdutako denbora berreskuratuz	102
– Bigarren udal bozak: Imanol alkate	105
– Aparatu politikoarekin topo	108
– EAJren krisia	112
– Garaikoetxeari: “Zu bazoaz, ni ere bai”	116
– Garai hartan herrian zer?	122
– Kultur etxea, bete gabeko asmoa	125
– Euskal Antzerki Topaketen sortzaileetakoa	128
– Uholdeak ere tokatu! Eskozian zen	132

## **6. Antxietatik historia liburuetara** **135-163**

---

– Drama bat, hainbat komedia	136
– Lana beltz, harrera beroa	140
– Euskal Herria ezagutuz	142
– Aro baten amaiera	146
– Eleberriari ere eutsi	149
– Historiaren haritik tiraka	151
– Adierazi nahi hori	157





## ***Biografiak***

- 1. Joxe Takolo** (Enekoitz Esnaola)
- 2. Angel Otaegi** (Iban Arregi)
- 3. Imanol Elias** (Mailo Oiarzabal)





LAGUNTZAILEAK:

Argitarapenaren arduradunak laguntzaileak

En la industria, no existe publicación sin ellos



kutxa

zuri esker  
gracias a ti



AZPEITIKO UDALA

**Biele**

Automatización de procesos

1960ko hamarkada hasieran zen. Berrogei urte pasatu dira, beraz, ezagutzen dudala. Antzerki saio baterako prestaketa lanetan ikusi nuen lehenengo aldiz. Ondo edo gaizki, Imanolen argazki antzekoa egin nuen, honelatsu: langile handia da, langilerik bada. Izu bainoago bakarti. Otsoa eta inurria biak batean. Lagunartean, irribarrea ezpainetan. Kanean gora edo behera bakarrik ikusiz gero, kopetilun eta pentsakor. Beti lanari lotuta, ari eta ari, artxibo zokoak miatu eta aztertzen. Behin aitortu zidanez, goizeko zazpietan hasi eta arratsa arte askotan, hemen hasi eta han segitu, paper zaharretan ahal duena irakurri eta gero argitara emanez. Hitzuna da, baina idazle oparoagoa. Etsitzen ez duen horietakoa, lanerako tematia...

Inoiz Imanolekin izan dudan pasadizoren bat aipatzearren, Loiolako Herri Irratirako idazten zuen 'Andre-gizonak' irratsaio harengatik gogoratu behar. 1962ko udazkena zen, eguerdia. Ustekabean, artean inoiz entzun ez nuen saio hura ez zuela idatziko esan omen zuela Imanolek, eta neuk prestatu beharke nuela agindu zidaten. Areago: hogeita minutu nituela horretarako. Haserreak haserre, idatzi nuen. Eta gero, ondo irten eta ondo kontatu. Baina larrialdi hura nekez ahantz nezake. Une hartan eskura harrapatu izan banu Imanoli.

Antzezlan eta ipuin idazle, olerkari, herriko kronikari eta istorio biltzaile nekazina; eta garairik gordinenean herriko alkate ere izan zen Imanol Elíasi hasieran nion hura, mirespen bihurtu zitzaizdan behin bererako duen ausardia eta adorea.

**Joxe Mari Iriondo**

IMANOL ELIAS



94-607-0515-5

0656 ZABAI EN

21 Mar 03

00 EU  
1.165 PT

UR KOORDINADORA